

# EKIALDE ERTAINEKO ETA PALESTINAKO ERREFUXIATUEI BURUZKO EUSKAL BIZTANLERIAREN PERTZEPZIOAK

IKERKETA DIAGNOSTIKOA

UNA Gestión y Comunicación-ek burutua ADIMEN-en kolaborazioarekin



erkidego batzordea  
**unrwa**  
euskadi

**Palestinako  
errefuxiatuekin**

**una**  
gestión y  
comunicación

**Adimen**  
INVESTIGACIÓN

**Ikerketa, metodologia, analisia eta testuak:** koordinatzaile nagusia Arkaitz Gorritxo López / UNA gestión y comunicación, ADIMENen kolaborazioarekin.

**Edizioa:** Arkaitz Gorritxo López / UNA gestión y comunicación, UNRWA Euskadiren laguntzarekin.

**Diseinua eta maketazioa:** Binari Comunicación.

**Lege-gordailua:** M-387 44-2019

**ISBN:** 978-84-09-16877-4

Bilbo, 2019ko azaroa.

[www.unrwaeuskadi.org](http://www.unrwaeuskadi.org)



erkidego batzordea  
**unrwa**  
euskadi

**Palestinako**  
**errefuxiatuekin**

Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza jaso du.



Argitalpen honen egileek eta bizi-historien protagonistek egindako analisisiek eta emandako iritziek ez dute UNRWA Euskadiren edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren iritzia islatzen ezinbestean.



**Edukiak CC by SA: Creative Commons lizentziapean argitaratu dira.**

Aitortu - Ez komertziala - Partekatu Berdin (by-nc-sa): lan hau eta lan honetatik abiatuta sortutakoak ezin dira merkataritza-xedeetarako erabili, eta partekatzeetan jatorrizkoaren lizentzia berarekin partekatu behar dira.

**Lizentzia osoa:** [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es\\_ES](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES)

**EKIALDE ERTAINEKO ETA PALESTINAKO  
ERREFUXIATUEI BURUZKO EUSKAL  
BIZTANLERIAREN PERTZEPZIOAK**



# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	7
<b>2. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK</b>	8
<b>2.1.</b> Diagnostikoa osatzeko egindako azterketaren ondorio nagusiak	8
<b>2.2.</b> Estereotipoak eta aurreiritziak eraisteko ekintza-arlo potentzialak	17
<b>2.3.</b> Ekintzarako gomendio zehatzak, genero-analitik eta eskubideen ikuspegitik	20
<b>3. IKERKETAREN ESPARRU TEORIKOA ETA TESTUINGURUA</b>	22
<b>3.1.</b> Lege-esparrua	22
<b>3.2.</b> Asilo-eskatzaleei, errefuxiatuei eta aberrigabeei buruzko datuak	29
<b>3.3.</b> Euskal herritarrek errefuxiatu eta migratzaileei buruz dauzkaten pertzepzio, estereotipo eta jarrerak	32
<b>4. DIAGNOSTIKO-PROZESUAREN DESKRIBAPENA</b>	39
<b>4.1.</b> Metodologia	39
<b>4.2.</b> Lan-plana	50
<b>4.3.</b> Exekuzio-kronograma	51
<b>5. ANALISIAREN EMAITZAK</b>	54
<b>5.1.</b> EAEko populazioari buruzko analisi kuantitatiboa	54
<b>5.2.</b> Analisi kualitatiboa adituen elkarriketetatik abiatuta	76
<b>5.3.</b> Analisi kuantitatiboa eztabaida-taldeetatik abiatuta	95
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	98
<b>1.GO ERANSKINA. WEB ORRI BIDEZ EGINDAKO GALDETEGIAREN EREDUA</b>	100
<b>2. ERANSKINA. UNRWAREN LAN EREMUEEN MAPA</b>	113

# SIGLAK ETA AKRONIMOAK

**CEAR:** Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea

**CIS:** Ikerketa Soziologikoen Zentroa

**DSBE:** Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

**EAE:** Euskal Autonomia Erkidegoa

**EUDEL:** Euskadiko Udalen Elkarte

**GEH:** Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza

**GGKE:** Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea

**GLEA:** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

**NBE:** Nazio Batuen Erakundea

**UNHCR:** Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Mandataritza

**UNRWA:** Palestinar Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia





# 1. SARRERA

Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuei buruz euskal gizartean dauzkagun estereotipo eta aurreiritzien inguruko informazioa eskuratzeko beharrari eta argitasunari erantzunez egin dugu ikerketa hau, datu eguneratuak eskaintzeko asmoz, generoaren eta adinaren arabera banatuta.

UNRWA Euskadiren<sup>1</sup> (Ekialde Hurbileko Palestinar Errefuxiatuei Laguntzeko Nazio Batuen Agentziak gure autonomia-erkidegoan duen batzordearen) ekimenez egin da diagnostiko hau. UNRWAK laguntza, babes eta defentsa ematen die Palestinako 5,4 milioi errefuxiatuei, beren egoera zailarentzako konponbide bidezko eta behin-betiko baten zain dauden bitartean. Agentziak zazpi hamarkada baino gehiago daramatza lanean, Jordanian, Sirian, Libanon, Zisjordanian eta Gazako Zerrendan errefuxiatuta dauden palestinarrei hezkuntza, osasuna, laguntza humanitarioa eta gizarte-zerbitzuak bermatzeko.

UNRWA Euskadi 2006an sortu zen funtsezko bi helbururekin: euskal gizarteari Palestinako errefuxiatuen egoera azaltzea eta UNRWAK egiten duen lan humanitarioa eta babes-lana ezagutzera ematea.

Horretarako, funtsezkotzat jotzen du palestinar errefuxiatuen diskriminazioa saihesten eta euskal gizarteak haiei buruz dauzkan pertzepzio, jarrera eta jokabideak aldatzen laguntzen duten jarrerak, tresnak eta ezagutza kritikoa zabaltzea. Helburu horiek lortzeko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAE) gizarte zibilak azterketa diagnostiko honen aztergai nagusia osatzen duen populazioari buruz dauzkan kultur eta genero- estereotipoak sakonki eza-gutu beharra daukagu aurrena.

Gainera, lan honen helburua da euskal herritarren eta gizarte-erlaketako eragileen artean giza eskubideen sustapenean oinarritutako esku-hartze estrategiak sortzeko hautemandako gaitasunen, ahulezien, esperientzien eta praktika onen azterketa identifikatzea eta partekatzea. Gizarte-erlaketak eraginkor eta koherenterako ekin-tzari garrantzi handiagoa ematen dieten interbentzio-estrategiak sortzeko, genero-berdintasunerantz aurrera egiten laguntzen duen ikuspegi feminista eta giza eskubideen ikuspegia uztartuz.

Egindako lan guztia jaso dugu dokumentu honetan, eta **UNA gestión y comunicación**<sup>2</sup> arduratu da dokumentua apailatzeaz. Genero-berdintasunean espezializatutako aholkularitza-enpresa da **UNA**, eta esperientzia luzea dauka garapenerako lankidetzaren eta gizarte-erlaketarako hezkuntzaren alorrean. Lan-egitasmo honetan **ADIMEN Investigación**<sup>3</sup> aholkularitza-enpresaren laguntza izan dugu, halaber. ADIMEN oso ezaguna da EAEn, soziologiaren, estatistikaren, ikerketa sozioekonomikoen eta ikerketa kuantitatiboko metodologiaren alorrean.

Ekialde Ertainean gertatzen ari diren aldaketak ikusita (krisi humanitarioa Sirian eta Siria inguruan eta Europako herrialdeetan aterpea hartu duten errefuxiatuak; palestinar errefuxiatuen zazpi hamarkadako exodoa Ekialde Ertainean eta haien giza eskubideen urraketak; palestinar lurraldeen mende erdiko okupazioa eta hamabi urteko blokeoa Gazako Zerrendan, palestinar errefuxiatuei ere eragiten diena...), beharrezkoa eta egokia da diagnosti-ko bat egitea informazio eguneratua eskuratzeko, generoaren eta adinaren arabera xehatua eta arreta EAEn jarrita. Horrela, euskal herritarrek Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen egoerari buruz dituzten estereotipoak eta uste okerrak agerian uzten dira, betiere, generoaren eta giza eskubideen ikuspegia kontuan hartuta, eta EAeko gizarte-eragileek jorratuko dituzten ekintzetarako eta plangintza estrategikoko prozesuetara-ko lagungarriak izan daitezkeen ondorioak ateratzea ahalbidetzen da.

1 <https://www.unrwauskadi.org>

2 [www.unagestion.com](http://www.unagestion.com)

3 [www.adimen.es](http://www.adimen.es)

## 2. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Euskal herritarrek Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuei buruz duten pertzepzioaren diagnostikoaren ondorio nagusien laburpena aurkeztuko dugu jarraian, generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik.

Ikerlan honetan 807 inkesta egin dizkiegu Internet bidez, EAEn bizi diren estratu sozioekonomiko, adin-tarte, jatorri, bizileku, aukera erlijioso eta ideologiko desberdinak ordezkatzeko hamasei urtetik gorako gizon eta emakumei<sup>4</sup>. Era berean, hogeitaz elkarriketa egin dizkiegu garapenerako lankidetzako elkarteetako profesionalei, errefuxiatuei laguntza eta arreta eskaintzen dieten elkarteetako ordezkariari, hedabideetako profesionalei, EHUko fakultate desberdinetako irakasleei eta gai honetan eskumenak dituzten euskal erakundeetako arduradunei. Azkenik, hiru tailer fokal egin genituen, EAeko hiriburuetan. Hogeita bederatziz lagunek hartu zuten parte tailerrotan: hamasei emakumek eta hamahiru gizonak. Informazio hori guztia 2018ko abenduaren eta 2019ko ekainaren artean jaso genuen.

Atal honetan jasotako ondorioak landa-laneko hiru faseetako (Internet bidezko inkestak, elkarriketa sakonak eta eztabaida-talde fokalak) emaitzei triangulazio-teknika aplikatuz atera ditugu.

### 2.1. DIAGNOSTIKOA OSATZEKO EGINDAKO AZTERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK

#### 2.1.1. Euskal herritarren pertzepzioak errefuxiatuen inguruan, bereziki Ekialde Ertainekoei eta Palestinakoei dagokienez

Inkesta-lanaren ondorioei jarraiki, euskal herritar gehienek **identifikatzen dute errefuxiatu terminoa**, baina ez dakite zehatz-mehatz errefuxiatua izateak zer dakarren, zer baldintzatan gertatzen den eta zer ondorio dakartzan. Beraz, inkestatuen erdiak inguruk zalantza zeuzkan terminoaren benetako esanahiaren inguruan. Alorreko espezialistei egindako elkarriketak eta eztabaida-taldeetan esandakoak aztertuta, ikusi dugu gehienek ez zeukatela garbi terminoak zer esan nahi duen eta errefuxiatua izateak zer ondorio dauzkan. Talde fokaletako parte-hartzaile gehien-gehienek ez zekiten errefuxiatuaren definizioa zein zen, zer baldintza bete behar diren asiloa eskatzeko edo nazioarteko eta Espainiako legeek zer eskubide ematen dieten errefuxiatuei. Bai militantziagatik bai lanagatik gaiarekin lotura zeukatenak ere ez ziren gai alderdi horiek ondo zehazteko.

Nolanahi ere, xehetasunak ezagutu ez arren, elkarriketetan ikusi dugunez, euskal herritarren imajinario sozialean **errefuxiatuek balorazio eta onarpen sozial handiagoa daukate** mugikortasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuek (esate baterako, etorkinak) baino.

Era berean, inkestek erakutsi digutenez, euskal herritarrek **ikuspegi eurozentrikoa** daukate errefuxiatuak hartzen dituzten lurraldeak identifikatzeko garaian. Errefuxiatuak nagusiki Europara iristen direla uste dute gehienek. Gurera iristen diren errefuxiatuen kopuruari buruzko ikuspegi gaindimentsionatua badute ere, parte-hartzaile gehienek iritziz, errefuxiatuen krisia ez da **EAEn arazo nagusienetako** bat.

EAera errefuxiatuak iristea arazotzat jotzen ez badute ere, inkestatuen erdiaren iritziz gurera iritsitako **errefuxiatuen kopurua** nahiko luketena baino handiagoa da eta **murriztu** egin **beharko** litzateke. Gai horri dagokionez, adierazgarria da pertzepzioa nola aldatzen den adinaren arabera. Gazteenen (16-18 urte) ia erdiak uste dute EAera errefuxiatu gutxi iristen dela, edo gehiago izan beharko liratekeela; 30-50 urte artekoen hamarretik hiruk baino zerbait gehixeagok dute iritzi hori; 61 urtetik gorako inkestatuen artean, azkenik, hamarretik bik baino ez dute hori pentsatzen. Horrenbestez, adinean gora egin ahala handituz doa errefuxiatuen kopuruari buruzko pertzepzioa.

<sup>4</sup> OHARRA: Azterketa kuantitatiboan hiru aukera ematen ziren genero-identitateari dagokionez: gizona, emakumea eta «aurreko biek ez naute ordezkatzeko». Parte hartu zuten 807 pertsonetako bakar batek ere ez zuen hirugarrena hautatu.



**Ihes egiteko arrazoiei** dagokienez, inkestatuen iritziz, gerrak, arrazoi ekonomikoak eta jazarpen ideologiko eta politikoa dira nagusi. Horrek berretsi egiten du lehen aipatu duguna: jendeak ez dakiela errefuxiatu-estatutua zer baldintzatan ematen den eta estatutu horrek zer ondorio dituen, arrazoi ekonomikoak ez baitira aintzakotzat hartzen errefuxiatu gisa aitortua izateko. Datu horren berri ez izan arren, parte-hartzaileek **legitimazio sozial** handiagoa eman diete **arrazoi politiko edo ideologikoei** ekonomiko bano, errefuxiatuak beren herrialdea uztera bultzatu dituzten arrazoietan pentsatzen dutenean.

Imajinario kolektiboak errefuxiatuei buruz duen irudia da arrazoi politikoen legitimazio horren atzean dagoena: uste dute errefuxiatuak gizonak direla, eskubide zibil eta politikoengatik borrokatzeak eraman dituela ihes egitera Estatuak edo beste instituzioren baten jazarpena jasan eta gero, eta hori espazio publikoarekin lotuta egon da tradizionalki, eta gizonak gizartean duten rolaekin. Errefuxiatuei buruzko **ikuspegi androzentrista** berresten da, horrela. Pentsaera androzentriko horrek ikusezin bihurtzen ditu emakumeak errefuxiatuen artean eta errefuxiatu gisa dituzten rola eta bizipenak ukatzen ditu, ondorioz. Gainera, gure ikerketarako elkarrizketatu ditugun adituek azpimarratu dutenez, ikuspegi horrek errefuxiatu guztiei (hala emakumeei nola gizonei) zeharka eragiten dien ondorio bat dakar berekin: errefuxiatuen egoerari buruzko begirada hotzago da, eta ez hain emozionala. Bai elkarrizketetan bai talde fokaletan ikusi dugunez, euskal herritarrek erruki eta elkartasun handiagoa sentitzen dute asiloa eskatzen duten edota errefuxiatu-estatutua duten emakume eta adin txikikoekin, gizon helduekin baino. Errefuxiatuen pertsonifikazio androzentriko horrek bi ondorio izan ditzake, beraz: emakumeak ikusezin bihurtzea eta errefuxiatuen irudiarekiko urruntze emozionala.

Bestalde, **Ekialde Ertaineko** errefuxiatuei dagokienez, **inkestatako eta elkarrizketetako emaitzen arabera**, euskal herritarrek hobeto ikusten eta gehiago onartzen dituzte populazio jakin batzuk (**siriarrak eta palestinarrik**, esate baterako). Ildo horretan, errefuxiatuen kategorizazio soziala egiten da, lehen eta bigarren mailako errefuxiatuak bereiziz, jatorriaren eta jaioterritik ihes egitera bultzatu zituzten arrazoen arabera. Hala, **Siriako gerrak** eragindako krisi humanitarioa, jendea ihes egitera bultzatu zuena, **jarrera soziala aldarazi duen faktoretzat** identifikatu dugu gure landa-lanean, euskal herritarrik gai horren aurrean irekiagoak izatea eragin baitzuen. Dena den, errefuxiatuekiko jokabidearen eta imajinario kolektiboaren aldaketa populazio-multzo horretara (siriarrak) mugatzen da, eta ez da gauza bera gertatzen gainerako errefuxiatuekin. Aurrerago sakonduko dugu alderdi horretan, baina populazio zehatz horri sinpatia handiagoa izatea siriarrak errefuxiatuen krisiak hedabideetan izandako oihartzunari zor zaio, jaso ditugun lekukotzen esanetan, eta jarrera hori aldatu egiten da hedabideetan emandako oihartzunaren arabera.

Arabiar gizarteei buruzko ezezagutzak eta hemengo eta hango gizartearen artean alde kultural, erlijioso... ikaragarria dagoelako usteak areagotu egiten du populazio haiekiko enpatiarik eza eta arbuioa. Hala, **Ekialde Ertaineko** eskualdeak interes- eta sinpatia-maila ertaina edo txikia pizten du inkestatutako euskal herritarren artean, baina **Palestinak, eskualde geografiko horren barruan egonda, eskualde osoak baino sinpatia handixeagoa pizten du**. Edonola ere, alde txiki horrek ez dakar populazio horren aldeko ekintza edo jarrera berezirik.

Errefuxiatuei buruzko iritziz desberdin eta kategorizazio sozial horien ildo berean, bada diagnostikoan ikergai hartu dugun populazioari eta euskal herritarrek hari buruz duten pertzepzioari eragiten dion beste faktore garrantzitsu bat: ikerketan parte hartu duten euskal herritarrek **kolektibo homogeen gisa ikusten dituztela arabiar jatorrizko pertsona guztiak**.

Giza mugikortasun egoeran dauden pertsonen kasuan, errefuxiatuak izateak onarpen eta irekitasun handiagoko estatus soziala ematen badie ere, parte-hartzaileek arabiar aurpegiarako pertsonen buruz dauzkaten estereotipoen pisua handiagoa da asilo-eskatzaile gisa duten egoera juridikoarena baino.

### 2.1.2. Euskal herritarren estereotipoak eta jarrerak errefuxiatuen inguruan, bereziki Ekialde Ertainekoei eta Palestinakoei dagokienez

Jende gehienak gertutasun emozionala adierazten du **errefuxiatu-kondizioaren eta egoeraren aurrean**. Kasu gehienetan, errukia eta pena dira euskal herritarren artean pizten diren emoziorik ohikoena.

**Palestinarrei** buruzko pertzepzioarekin ere **hori bera gertatzen da**. Palestinaren inguruko zerbaite entzun edo irakurtzerakoan sortutako lehen inpresioak aztertu ditugu gure inkesta-lanean. Burura datorrien lehen hitza adierazteko eskatuta, % 67ek «**gerra**» aipatu dute, % 48,5ek «injustizia» eta % 30ek «**terrorismoa**».

Ariketa bera modu irekian formulatuta, erantzun hauek jaso ditugu: Israel, laguntza, ihesa, pena, behartsua, terrorismoa, tristura, asiloa, herria, jazarria, Gaza... Beraz, errukia da sentimendu nagusia. Gerrarekin eta Israelekin zerikusia duten terminoak datoz jarraian.

Aipatzekoa da, era berean, inkestatuek asoziazio desberdinak egiten dituztela Palestinaz edo Ekialde Ertainaz aritzekoan. «Injustizia» hitza, adibidez, argi eta garbi lotzen dute Palestinarekin, baina ez hainbeste Ekialde Ertainarekin. Gizonen kasuan, Palestinaren eta injustizia-sentimenduaren arteko lotura 30 puntu handiagoa da Ekialde Ertainaren kasuan baino, eta 18 puntukoa baino ez emakumeen kasuan. Bestalde, Ekialde Ertaina emakumeen aurkako indarkeriarekin lotzeko joera handiagoa dute emakumeek (% 22), baina pertzepzio hori nabarmen murrizten da Palestinaren kasuan (% 7)

Nolanahi ere, landa-lanean agerian gelditu denez (bai inkestetan, bai elkarrizketetan), konexio emozionalak ez du **herritarren artean interesik eragiten errefuxiatuen errealitatea ezagutzeko**, haien ihesaldiaren **arrazoiak eta baldintzak** jakiteko edo haien bizimodua (ohiturak, kultura...) ezagutzera hurbiltzeko.

Era berean, errefuxiatuen **eskubideei buruzko kontzientzia sozialik ere ez du pizten parte-hartzaileen artean**, jendeak ez du haien estatus juridikoa ezagutzen, ez daki migrazio-igarotzan dauden beste pertsona batzuegandik zertan bereizten diren, nahiz eta errefuxiatuak hobeto baloratu giza mugikortasuneko egoeran dauden beste pertsonak (arrazoi ekonomikoengatik migratzen dutenak, adibidez) baino.

Beraz, ikerketan parte hartu duten pertsonen errefuxiatuen egoerarekin eta testuinguruarekin duten konexio emozionala hauskorra da, aldakorra, uneko egoerarekin dauka lotura eta ez du inolako **gogoeta politiko eraldatzailerik edo eskubideen gaineko ikuspegiarik** oinarrian. Ez du konpromisorik edo erantzukizunik sortzen epe ertainera.

Errefuxiatuekiko elkartasunaren erro emozional horrek ondorioak dauzka, populazio guztiek ez baitute **sinpatia-maila** bera eragiten. Aurreko epigrafean ikusi dugunez, kulturalki, politikoki edo sozialki gertuen dauzkagun populazioak dira sinpatia-mailarik handiena sortzen dutenak: Europar Batasuneko nazionalitatearen bat dutenak, EBz kanpoko europarrak eta gutxiago Latinoamerikatik etorritakoak. Datuetan islatzearen, egindako inkestaren emaitzen arabera, 0-10 arteko eskalan, EBko herrialdeetatik etorritakoek 7,19 puntu lortzen dituzte, EBz kanpoko europarrek 6,72 eta latinoamerikarrek, azkenik, 6,09.

Sinpatia-eskalaren beste muturrean dauzkagu arabiar jatorriko herritarrak: magrebtarrek 4,85 puntu jaso dituzte eta **Ekialde Ertainetik** iritsitakoek, berriz, 5,52.

Esandakoa gorabehera, eta diagnostiko honi dagokionez, nabarmentzekoa da inkestatutako euskal herritarren artean **Ekialde Ertainak** oso sinpatia-maila txikia eragiten badu ere, **Palestinak**, herrialde zehatz gisa, **balorazio handiagoa** daukala bere **inguruko herrialdeen batez bestekoa baino**: 10etik 5,93.

Gauzak horrela, argi ikusten da euskal herritarrek, azterketa honetan parte hartu dutenek behinik behin, **sinpatia** handiagoa dietela errefuxiatu-talde jakin batzuei, jatorriaren eta bereziki arrazoi **ideologiko-politiko**en ondorioz. Adituek azaltzen dutenez, euskal gizartearen zati bat palestinar gatazkarekin identifikatzen da eta elkartasuna sentitzen du, bai politikoki bat datozelako, bai euskal abertzaletasunaren gatazkarekin parekotasunak dituelako. Baina palestinar gatazkarekiko elkartasunak gorabeherak dauzka errealitate horren berri ematen duten hedabideen arabera, gure ikerketan parte hartu duten pertsonak elkarrizketatzean eta galdekatzean ikusi dugunez.

Errefuxiatuekiko konexio soilik emozionalak ondorio larriak dakartza berekin, **estereotipoak eta aurreiritziak** aktibatzen baititu. Horiek emozioetatik elikatzen dira, eta ez arrazoietatik. Elkarrizketatu batzuek azpimarratu dutenez, errefuxiatuen kondizioari eta eskubideei buruzko gogoeta sakonik ez dagoenez gero, eta emozioa denez harrera- eta asilo-prozesua legitimatzen edo oztopatzen duena, euskal herritarrek errefuxiatuei buruz (kasu honetan Ekialde Ertainekoei buruz) dauzkaten estereotipo eta aurreiritziek eragin handia dute, eta arabiar

populazioari leporatu ohi zaizkion estereotipo eta aurreiritziak egozten zaizkie, talde edo pertsona bakoitzaren jatorri zehatza kontuan hartu gabe. Ekialde Ertainaren inguruko ezjakintasunak (errefuxiatuekin harremanik estuena edo haien egoerari buruzko kontzientziazio handiagoa daukaten herritarren artean ere bai) imaginario nahasia sortzen du eskualde hori osatzen duten herrialdeen eta populazioen inguruan.

Hala, lehenago genioen moduan, adituen arabera herritarrek arabiar populazioaren ikuspegi homogenea dute, eta denek, jatorria gorabehera, berdin jasotzen dituzte euskal testuinguruan (beste testuinguru batzuetan bezala) indarrean dauden estereotipo eta aurreiritziak.

Egindako talde fokaletan gehien aipatu den eta errotuen dagoen estereotipo baten arabera, **arabiar jatorriko pertsona guztiak musulmanak dira** eta islama praktikatzen dute. Euskal gizartean guztiz zabaldua dagoen ikuspegi horrekin batera badago hain hedatuta ez dagoen beste bat, indar handikoa: **arabiarrek islamistak direla**, hau da, islama praktikatzeaz gain, erlijio horrek Estatu eta zuzenbidea gidatzea nahi dutela. Bi pertzepzioak bat datoz **islamofobia (islamaren arbuioa)** deritzon jarrerarekin. Zortzi sinesmen edo diskurtso daude ikuspegi horren azpian<sup>5</sup>:

- Islama bloke monolitikoa eta estatikoa da eta aldaketaren aurka dago.
- Islama beste erlijio eta kulturen guztiz desberdina da, eta ez du haiekin inolako baliorik edo eraginik partekatzen.
- Islama mendebaldir kulturaren azpitik dago: primitiboa da, irrazionala, basatia eta sexista.
- Islama biolentoa da berez, gure aurka dago eta arrazismorako eta zibilizazioen arteko talkarako joera dauka.
- Ideologia politikoa eta erlijioa estu lotuta daude islamean.
- Bizkarra ematen zaie esparru musulmanetatik Mendebaldeari buruz egiten diren kritikei.
- Zuritu egiten dira musulmanen aurkako praktika baztertzaila eta diskriminatzaileak.
- Naturalizat eta arruntzat jotzen da musulmanenganako etsaigoa.

Eraikuntza horretatik sortzen da arabiar populazioari buruzko beste ohiko estereotipo bat, bai inkestetan bai elkarrizketa eta talde fokaletan agerian gelditu den moduan: **guztiz matxistak direla haien gizarteak** eta haien kultura eta pentsaera. Arabiar guztiak musulmanak direlako pentsamendutik eta emakume eta gizonen arteko erlazioari dagokionez erlijio horri buruz dagoen ikuspegi estereotipatutik abiatuta, arabiar emakumeei buruzko kontakizun eta irudi zehatz bat eraikitzen da: denak direla otzanak, buru-zapia edo jantzi inposaturen bat daramatela beti, mendekotasun-harremana daukatela beren gizonezko bikotekideekin, genero-indarkeria jasaten dutela eta ez daukatela beren kabuz erabakitzeko ez askatasunik ez gaitasunik. **Genero-islamofobia** deritzo horri<sup>6</sup>. Gainera, gizartearen ikuspegi horren ondorioz, jendeak pentsatzen du populazio atzeritar horrek «matxismoa dakarrela» geurea bezalako gizarteetara, eta areagotu egiten dutela parekidetasunik eza eta genero-indarkeria. Hamar inkestatutik seik uste dute errefuxiatuek harrera-herrialdeko ohituretara egokitu behar dutela, behar izanez gero beren ohiturak alde batera utziz, integrazioaren mesedetan.

Talde fokaletan egindako lanak erakutsi digunez, euskal herritarrek errefuxiatuei buruz duten ikuspegian ere gure gizartean gizonen eta emakumeei buruz dauzkagun **genero-rol eta estereotipo** berberak azaleratzen dira: gizonari hornitzaile-rola egozten zaio, indartsuarena, ez zaintzailearena, eta emakumeari, berriz, familiaren zaintzailearena, rol pasiboak, mendekotasunezkoak, etab. Horrek ezkutuan uzten ditu, batetik, zaintzaz arduratzen diren gizonak (beren senideak, seme-alabak edo adinekoak zaintzen dituztenak) eta, bestetik, emakume independenteak (ekonomikoki, lan-aldetik, familiari dagokionez...) edo genero-estereotipoekin bat ez datozenak (indartsuak, seme-alabarik edo zaindu beharrekorik ez daukatena, militante politikoak, sexu-identitateagatik jazarriak...).

5 Zurrumurruren Aurkako Sarearen webgunetik atera dugu informazio hau: <http://zurrumurrurikez.eus>. [Azken kontsulta: 2019ko urriaren 29a].

6 Mahmood, Saba (2005) *Politics of Piety: The Islamic Revival and the Feminist Subject*, Oxford: Princeton University Press.

Ilido berean, genero-rol eta -estereotipoak indartu eta betikotu egiten dira euskal herritarrek arabiar populazioari buruz duten ikuspegia aztertzen dugunean. Lehenago azaldu dugunez, eta egindako elkarrizketa eta talde fokalek berresten dutenez, **genero-islamofobiak jotako begirada** bat dago, gizon eta emakume arabiarrei (musulmani) buruzko ikuspegi estereotipatuan oinarritzen dena: matxismoan errotuta daude, emakumeak oinperatuta daude, genero-indarkeria dago... Ez da patriarkatuaren gogoeta kritikorik egiten eta ez da onartzen patriarkatua gizarte guztietan dagoela, baita euskal gizartean ere, eta agerpen desberdinak dituela (mendebalder gizarteetan, adibidez, estetikako ebakuntzak dauzkagu, gorputzaren gurtza, emakumeen irudia salgai gisa...). Errefuxiatuek harrera-gizartera «matxismoa dakartela» esatera iristen dira zenbait aukera politiko edo ideologiko eta diskurtso hori imaginario kolektiboan iltzatzen joaten da. Ikuspegiren<sup>7</sup> azken barometroak jasotako datuek hori guztia berresten dute. Barometroaren arabera, euskal herritar gehienek iritziz (% 59,8), etorkinak matxistagoak dira, oro har, bertakoak baino. Adierazgarria da, halaber, barometro horrek berak erakusten duenez, 0-10 arteko konfiantza-escalan (batere konfiantzarik ez izatetik konfiantza osora) euskal gizarteak mesfidantza argia erakusten duela islamaren aurrean (2,7 puntu). Azkenik, Ikuspegiren emaitzekin bukatzeko, beste datu hau azpimarratu nahi genuke: erantzunen eboluzioari begiratzen badiogu, «matxismoa areagotzen dutela» dioen zurrumurruak gora egin duela 2014-2018 bitartean, % 13,4tik % 24,2ra.

Euskal gizartean arabiar populazioari buruz dagoen beste estereotipo baten arabera, **espazio publikoa «inbadditzen»** omen dute. Beren ohituren eta erlazioatzeko moduaren eraginez, kolektibo horiek beste batzuek baino gehiago erabiltzen dute espazio publikoa. Horrek harrera-gizartearen erreakzioa eragiten du, ez baitaio ondo iruditzen gureru iristearrekin batera «beraiena ez den» espazio bat «neurritz gain okupatzea».

Azken urteotan arabiar populazioari, eta bereziki gizonei, buruz zabaldu den beste estereotipo baten arabera, **«delinkuentziarako joera»<sup>8</sup>** daukate. Arabiarrek kaleko arrisku- eta delinkuentzia-maila areagotu dutela dioen diskurtso soziala naturalizatu egin da, ebasketa eta lapurreta bezalako delitu arinei dagokienez bereziki. Euskal herritar gehienek (kontzientzia sozialik handiena dutenek barne) partekatzen dute populazio-talde horrek «bizikidetzat mehatxatzen» duelako ustea elikatzen duen diskurtso estereotipatu eta aurreiritziduna. 2001eko irailaren 11z geroztik, ikaragarri zabaldu eta larriagotu da estereotipo hori, arabiar populazioa terrorismo jihadistarekin lotzen delarik. Inkestatu gehienak estereotipo horrekin bat ez badatoz ere, imaginario sozialean iltzatuta dago. Landa-lanean egindako inkestetan, ondorengo esaldiari buruzko iritzia galdetu genuen: «*Errefuxiatuen etorrerak areagotu egiten du eraso terrorista bat jasateko arriskua*». Inkestatuen ia % 40 ados edo oso ados zegoen baieztapen horrekin.

Azkenik, **«laguntza sozial guztiak berenganatzen dituztela eta haietaz abusatu»** egiten dutela dioen estereotipoa daukagu, berdin aplikatzen zaiena arabiarrei, europarra ez den edozein nazionalitatetako atzerritarrei eta gizarte-bazterketa jasaten duen edozein talde etnikorik (ijitoei, adibidez). Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) edo babes ofizialeko etxebizitzak dira populazio atzerritarra modu bidegabean salatzen duen diskurtsoa eraikitzeko aipatu ohi diren baliabide publikoak. Diskurtso horren arabera, atzerritarrek beren estatus juridikoa edozein dela ere, lehentasuna daukate baliabide horiek jasotzeko eta abusatu egiten dute. Egiazko datuak jakin gabe (2017an, EAEn DSBE jasotzen zutenen % 34 bakarrik ziren atzerritarrak<sup>9</sup>), zalantzan jartzen da botere publikoek lege eta prozedura egiaztatuen bidez kudeatzen dituzten baliabide eta laguntza sozialak jasotzeko herritar horiek duten eskubidea eta zilegitasuna. Hainbestearino, inkestatuen erdiak baino gehiagok (% 57,4) uste baitu gizarte-babeserako sistema arriskuan dagoela errefuxiatuen etorreraren ondorioz.

Azterketa honetan ikergai hartu dugun populazioari buruzko estereotiporik hedatuenak ikusita, euskal herritarrek errefuxiatuei buruz duten jarrera eta jokamoldea aztertuko dugu jarraian.

Inkestatuen artean **harrerazko jarrera da hedatuena**: inkestatuen % 90ek haien aldeko jarrera azaldu dute. Harrera horrek bere mugak dauzka, ordea (% 17ek bakarrik babestu dute mugarik gabeko harrera): «beren jaioterrian jazarriak direla frogatzen badute» (% 49) edo «urtean gehieneko kopuru bat» (% 30) baldintzak aipatzen dituzte. Beraz, lehen erreakzioa hartzea bada ere, jendeak oztopo garbiak jartzen ditu errefuxiatuei gureru mugarik gabe etortzeko eskubidea onartzeko garaian (ez dakite eskubide hori existitzen denik).

<sup>7</sup> IKUSPEGI (2019) *Barometroa 2018. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak*. Bilbo: Ikuspegi.

<sup>8</sup> Ibid.

<sup>9</sup> Ikus: <http://especial.elcorreo.com/2017/rgi-euskadi-nacionalidades/>.

Hori gutxi ez eta, gure ikerketaren arabera, gaian adituak diren elkarrizketatuek ohartarazi dute azken garaian **modu kezagarrian zabaldu dela arabiarren aurkako diskurtso arrazista eta xenofoboa**, baita euskal gizartean ere. Jasotako lekukotzek salatzen dutenez, gero eta jarrera eta jokamolde arrazista gehiago dago Ekialde Hurbileko (eta Palestinako) errefuxiatuen aurka.

Ikerketako parte-hartzaileek emandako erantzunen arabera, hamarretik bat baino gutxiago dira errefuxiatuak beren herrialdean sartzea guztiz arbuiatzen dutenak, hamarretik ia lauk onartu egingo lituzkete beren auzoan, eta ia batek beren etxean. Kanpotar horiek arabiar herrialdeetatik badatoz, ordea, mesfidantza-maila izugarri handitzen da, eta hamarretik lauk argi adierazten du hartzearen aurkako jarrera. Puntu horretan ez dago alde esanguratsurik Palestinatik edo, oro har, Ekialde Ertainetik datozen errefuxiatuen harrerari dagokionez.

Zenbait lekukok azkenaldiko **krisi ekonomikoa** aipatu dute, mugikortasun-egoeran dagoen populazioaren eta errefuxiatuen aurkako arbuioaren gorakada azaltzeko. Hartzen dituen populazioak bere erosotasunei uko egin behar dienean edo bere bizi-estiloa arriskuan ikusten duenean, elkartasunak behera egiten du. Ildo horretan, lehenago esan dugunez, errefuxiatuen etorrerak gure gizarte-ongizateko sistema arriskuan jartzen duela uste du populazioaren erdiak inguruk. Beharbada horri zor zaio azterketa honetan kontsultatutakoen arteko askok errefuxiatuei harrera egiteko baldintza gisa aipatu duten faktorea: guregana datozenek ekarpen aktiboa egin behar diotela harrera-gizarteko ekoizpen-sistemari.

Azkenik, hala analisi kuantitatiboan nola kualitatiboan, parte-hartzaileen **adina eta generoa** hartu ditugu kontuan, jendeak errefuxiatuei buruz, eta bereziki Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuei buruz, dauzkan pertzepzio eta jarreretan eragina dutelakoan. Ateratako emaitzak ikusita, esan dezakegu adinean behera egin ahala jendeak jarrera toleranteagoa daukala, aurreko epigrafean aipatu dugun moduan. Bestalde, emakumeek gizonen baino jarrera zertxobait irekiagoa daukate atzerritarrek hartzeari dagokionez (zati kuantitatiboan aldea ez da portzentuarki oso nabarmena, baina oso garbi ikusten da ikerketaren zati kualitatiboan). Landa-lan kualitatiboko ondorioek erakusten dutenez, emakumeek enpatia handiagoa daukate errefuxiatuek (edozein jatorritakoek) jasaten duten pairamen eta premiak direla eta. Gizonen, berriz, urruntze afektibo handiagoa erakusten dute, baina urruntze hori txikiagoa da lotura ideologiko-politikoaren duten populazioekin.

### 2.1.3. Errefuxiatuei, bereziki Ekialde Ertainekoei eta Palestinakoei, buruzko eztabaida publikoaren kanalak eta euskarriak

Inkestaturen % 40 inguruk diote ez dutela errefuxiatuen gaiari buruzko **batere erreferentziarik** izan azken asteetan. Hortaz, ez dirudi gaiak jendearen eguneroko bizitzan presentziarik duenik gaur egun. Gainerakoek (% 60) baietz erantzun dute, azken aldiaren entzun, irakurri edo ikusi dutela errefuxiatuei buruzko iruzkinik. Gaiarekin lotura izan duen populazio-talde horren barruan, hirutik batek dio jasotako **iruzkinak negatiboak** izan direla. Eta hamarretik batek bakarrik dio iruzkin horiek positiboak zirela.

Gaiak aktualitatean daukan presentzia-maila identifikatu ondoren, funtsezkoa da informazio, gogoeta eta diskurtso horiek **eztabaida publikoko zein kanalen bidez** zabaltzen diren jakitea: errefuxiatuei buruzko erreferentzia gehienak (% 53,2) telebistaren bidez jasotzen dira, eta ondoren datoz Internet (% 23,7) eta sare sozialak (% 22,5). Gainerako kanalak ere pisu nabarmena daukate, irratia delarik eraginik txikiena daukana (% 10,4).

Herritarrek informazioa eskuratzeko erabilitako baliabideetan adinari lotutako **eten digitala** dagoela ikusi dugu. Hauek dira inkestatu gazteenek maizen erabilitako kanalak: telebista (% 59,3), sare sozialak (% 44,4) eta Internet (% 37). Adinekoen kasuan, ordea, prentsa idatzia (% 32) da informazio-iturri nagusia telebistaren atzetik (% 40).

Emakumeek eta gizonen erabilitako **hedabideen** artean badago alderik. Emakumeek gehiago jotzen dute telebistara (% 55,7) eta sare sozialetara (% 25,9) eta, gizonen, berriz, Interneten (% 26,8), prentsa idatzian (% 21,1) eta kalean (% 15,5) jasotzen dute informazioa.

Inkestaturen laurdenak baino ez ditu **albisteak egunean-egunean jarraitzen** eta daki munduan zer gertatzen ari den. Genero-ikuspegiarekin jarraituz, deigarria da ikustea askoz handiagoa dela hizpide dugun gaiari buruzko albisterik kontsumitzen ez dutela dioten emakumeen kopurua gizonena baino: ia bikoitza. Adinaren aldagaiak ere eragina dauka hemen, adinean gora egin ahala gero eta albiste gehiago kontsumitzen baita.

Euskal herritarrek errefuxiatuen inguruan duten informazio- eta sentsibilizazio-mailari buruzko datuok ikusita, aurreko paragrafoetan aurreratu ditugun ondorioetako bati helduko diogu berriro: euskal gizarteak **ez dago ondo informatuta** eta horrek ez du laguntzen errefuxiatuekiko kontzientzia soziala eta solidarioa areagotzen.

Eskubideak aintzakotzat ez edukitzeari zor zaio, agian, jasotako informazioa hain urria izatea eta informazio hori jasotzeko modua. Ildo horretan, **persona kalteberen estereotipoa** indartzen dute hedabideek, hondamendiak edo egoera dramatikoak direla-eta larrialdietarako laguntza behar duten biktima gisa aurkezten baitituzte, albistea edo informazioa jasotzen dutenen emozioei zuzenduz beren mezuak. Gorago esan duguna indartzen du horrek, eta **sakontasunik gabeko lotura emozionala** garatzen da, nagusiki telebistaren bidez (herritarrek gehien erabiltzen duten hedabidea) edo sare sozialen bidez zabalduetako irudiek aktibatutako enpatia, alegia.

Errefuxiatuen irudia **eskubideetan** (eta harrera-gizartearen betebeharreran) **oinarritutako ikuspegitik** balioztatzeko beharra ikusten da, beraz, eta hedabideen bidezko sentsibilizazioa saihestekoa ere bai, populazio batzuekin (hedabideetan presentzia apalagoa daukatenekin) beste batzuekin baino tolerantzia-maila handiagoa sorrarazten baitute hedabideok, zenbait inkestak adierazi dutenez. Errefuxiatuen arazoari buruzko sentsibilizazio soziala hedabideen bidez sortzen denez, testuingururik gabeko logika bisual baten bitartez nagusiki, horrek ez du laguntzen herritarrei fenomenoari buruzko ulermen orokorra eskaintzen, ez eta Estatuak (Espainiakoak barne) egoera horri aurre egiteko daukaten erantzukizuna ulertarazten ere. Nahitaezkoa da euskal gizarteak (beste guztietan bezala) asiloa eta aterpea emateko betebeharra lantzea, eta batik bat erantzukizunari lotutako jarrerak sustatzea, karitateari edo errukiari lotutakoak baino gehiago.

Bai elkarrizketetan bai inkesten emaitzetan agerian gelditu denez, errefuxiatuen egoerari eta kondizioari buruzko sentsibilizazioa hedabideen bidez iristen da, elkarrizketuen lekukotzek eta inkesten emaitzek agerian utzi duten bezala. Ikusten dugu, beraz, ez daukagula errefuxiatuen **integrazioaren erreferenterik** eta ez direla pertsona horiek baloratzen, ez behintzat goian aipatu ditugun estereotipo eta aurreiritzien inguruko eztabaida publikoan jendeak jarrera bat edo bestea defendatzeko erakusten duen indar berarekin. EAEn bizi diren errefuxiatu askoren esfortzua eta lana ez dira ezagutzen edo erakusten, ez eta aurrera ateratzeko egiten duten ahalegina eta lana ere, eta benetako integrazio sozial arrakastatsuen eredutzat aurkezteko moduko erreferentzia positiborik ere ez da hedatzen.

Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, egoerari buruzko informazio-iturri nagusiak **hedabideak** dira, zalan-tzarik gabe, hala idatziak nola ikus-entzunezkoak. Alde horretatik, inkestatu ditugun prentsako eta telebistako arduradunek azaldu dutenez, diagnostiko honetan aztergai hartu dugun inguruari buruz –Ekialde Ertaina eta Palestina– informatzeko eta hango egoeraren berri emateko garaian beren mugak dauzkate. Munduko eskualde horrek «interes mediatiko mugatua» pizten du, eta, bereziki dramatikotzat jotzen diren zenbait egoeraren eta testuingururen berri emateko ahaleginik egon badago ere (Siriako gerra, adibidez), informatzeko tartea mugatua da eta albisteak elkarren artean lehiatzen dira espazio mugatu hori betetzeko. Horrek informazioaren irismena baldintzatzen du, aipagai ditugun iturrien arabera.

Gainera, kontua ez da informatzeko denbora eta espazioak eskaintzea soilik, gertatzen ari denari buruzko ideia global eta sakon bat garatzeko aukera ematen duten datuak eta informazioa ere eman behar zaizkie herritarrei, testuinguru egokian txertatuta. Hori oso zaila da gaur egun informazioa transmititzeko erabiltzen den formatuan, aipatutako denbora eta espazio faltak ez baitu gaietan sakontzen edo testuinguruan jartzen uzten. Ildo horretatik, informazioa zabaltzeko garaian prentsa idatziak telebista baino irismen handiagoa omen du, biztanleriak orokorrean gutxiago kontsultatzen badu ere.

Gaiarekin eta errefuxiatuekin harremana daukaten gizarte-eragileek nabarmendu dutenez, hedabideek **eragin erabakigarria daukate euskal herritarrek arlo horretan** daukaten jarrera eta jokabideetan.

Ikerketa honetarako oso garrantzitsua izan den inkesta-prozesuaren emaitzetako bat aipatuko dugu jarraian. Azkenaldian **errefuxiatuei buruzko iruzkinik edo informaziorik** entzun ote duten galdetuta, parte-hartzaileen ia erdiak ezetz erantzun du eta hiru lagunetik batek baietz, entzun duela informazio edo iruzkinik, eta negatiboak izan direla. Galdera bera **Palestinaren** kasura eramanda, inolako iruzkinik entzun ez dutenen kopurua (ia % 50) handiagoa da eta, aldi berean, txikiagoa iruzkin negatiboak entzun dituztenen kopurua.



Zenbait eragilek hedabideak aipatu dituzte, eta Siriako errefuxiatuen krisiaz egin duten jarraipena, **elkartasunezko eta ongietorriko erreakzio sozial jendetsuaren eragile gisa**, baina halakoak ez dira EAeko errefuxiatu guztiekin gertatzen, ez intentsitate-maila berarekin behintzat.

Gainera, hedabideekin egindako landa-laneko elkarrizketetan ikusi dugunez, hedabideek badakite ez dutela gaiaren sakoneko tratamendurik egiten, ez doazela erroetara eta irudiei (bideo eta argazkiei) ematen dietela lehentasuna, **ongintza asistentzialeko** ikuspegia areagotzen dutelarik, ondorioz. Irudi jakin batzuk etengabe ikusten egoteak bilatzen ez den ondorio bat eragiten du: **estereotipoak elikatzen laguntzen da** errealitate baten berri eman beharrean. Horrenbestez, gaiaren gaineko ezagutzarik eta testuinguruan kokatutako informazio zorrotzik ez edukitzeak oztopatu egiten du euskal herritarrek lotura eta enpatia sentitzea errefuxiatuekin, eta horrek errukiari lotutako elkartasuna indartzen badu ere, ez du eskubideen edo betebeharren kontakizunik erakitzen. Profesionalek berek aitortu dute oraindik hutsune asko dauzkatela gaiaren eta eskualdearen ezagutzari dagokionez.

Kontsultatu ditugun hedabideetako arduradunek, baina, are tresna konplexuagotzat eta zalantzarriagotzat dauzkate **Internet** eta **sare sozialak**, informazioa eskuratzeko bitarteko gisa. Komunikazio- eta informazio-tresna horien dinamikaren eta gizartean daukaten zilegitasunaren eraginez, egiazkotasuna eta zorrotasuna aitortzen zaie egiazkoak eta zorrotzak ez diren albisteei, eta albisteok gertuko zirkuluetan (senide eta lagunaren artean) zabaltzen dira. Horrela, bidaltzailearekin duen harreman pertsonalen ondorioz, jasotako informazioa egiazkoa eta zilegizkoa dela pentsatzen du hartzaileak, informazio hori auzitan jarri gabe. Hori oso kezagarria da, kontuak izanik EAeko gizon gehienak sare sozialen bidez informatzen direla.

Gaur egun EAEn errefuxiatuei buruzko imajinarioaren sorburu nagusiak hedabideak badira ere, aipagarria da kalleko **ahoz ahokoak** daukan potentziala (hala positiboa nola negatiboa). Familia, lagunartea eta talde pribatuak dira estereotipoak hedatzeko potentzialik handiena duten zirkuluak. Hirugarren edo laugarren batek inolako testuingururik gabe kontatutako gertakariak egia absolututzat jotzen dira, kontakizuna zabaldu ahala aldaketak jasaten joaten den arren.

Dena den, elkarrizketatuek adierazi dutenez, gure inguruan populazio atzerritarra handitu ahala, bertakoen eta kanpokoen arteko erlazioak, bizikidetzan oinarrituak, sortzen joaten dira. Ildo horretatik, elkarrizketa eta talde fokaletako parte-hartzaileek nabarmendu dutenez, **auzo edo herri berean egunerokoan izaten diren harreman pertsonalek** gizarte-inklusioan aurrera egiten lagundu dezakete, eta harreman horien bidez aldaketa txikiak gertatzen dira arabiar populazioari buruzko diskurtsoan eta begiradan lehen haiekiko arbuioa adierazten zuten pertsonen artean. Horrek azaltzen digu zeri zor zaion populazioaren % 40k baino gehiagok onartzea errefuxiatuak beren auzoetan bizitzen jartzea, baina beren herrialdeaz galdetuta, kopuru hori soilik % 7koa izatea. Errefuxiatuak inguru hurbilean edo inguru globalean hartzearen artean dagoen alde ikaragarri hori anbiguo samarra bada ere, badu azalpenik: errefuxiatuekin harreman zuzena izatean aldatu egiten dira jendeak hasiera batean haiei buruz zeuzkan estereotipo eta jarrerak eta herrialde-mailako kopuru orokorrak entzutean sentitzen zuten arbuioa.

#### 2.1.4. Errefuxiatuei, eta bereziki Ekialde Ertaineko eta Palestinakoei, zuzendutako politika publiko, estrategia eta jardunbide egokiak

Herritarrek **immigrazio- eta harrera-politiken** aurrean daukaten jarrera funtsezkoa izaten da mugikortasun-egoeran dagoen populazioari (tartean errefuxiatuak) buruzko jarrera eta estereotipoak sakonago jorratzen dituzten ikerlanetan.

Diagnostiko honen ondorioei dagokienez, jende gehienari egokia iruditzen zaio **errefuxiatuak hartzea** (% 66,4): ia hamar lagunetik zazpiri. Hori oso datu positiboa da eta erakusten du euskal gizarteari ondo iruditzen zaiola errefuxiatuak geure artean hartzea. Dena den, xehetasunei begiratuz gero, zera aurkitzen dugu: euskal herritarren % 17,6k soilik uste dutela errefuxiatuak inolako mugarik gabe onartu beharko genituzkeela, eta % 48,8k diote soilik beren jaioterrian jazarpena jasaten dutela frogatzen badute onartu behar ditugula. Harrera-gizartearen ehuneko handi batek baldintza hori ontzat hartzea lehen aipatu dugun ustezko jarrera irekia baldintzatzen duen garrantzizko ñabardura dugu.

Ikuspegi horretatik, inkestatutako euskal herritarren % 70 inguruk uste dute errefuxiatuek **gizarte-zerbitzuak** (eskola publikoa, osasuna eta laguntza juridikoa) **erabiltzeko eskubidea** izan beharko luketela. Eskubide hori onartzearen aurkako jarrera oso txikia da (% 4,2 eta % 7,8 bitartekoa). Hala ere, zerbitzu horiek erabiltzeko baldintza jakin batzuk bete beharko lituzketela uste dute inkestatuen % 25,8k, hezkuntza publikoaren kasuan; % 30,9k, osasunaren kasuan, eta % 37,9k, laguntza juridikoaren kasuan. Nolanahi ere, «baiezko borobilak» gehiago nabarmena dauka kasu guztietan.

Euskal gizartea ez da hain tolerantea, ordea, errefuxiatuei beste eskubide eta politika publiko batzuk aitortzeko garaian. Onarpen handienetik txikienera dauzkagu **familia elkartzea, laguntza sozialak, babes ofizialeko etxebizitzak** eskuratzea eta **boto-eskubidea** edo sufragio aktiboa, azkenik. Aurkako jarrera handiena pizten duena sufragio aktiboa da, zalantzarik gabe, inkestatuen % 35,6 aurka baitaude. Gainerako eskubideei dagokienez, inkestatuak alde daude, baina baldintzekin. Lehen aipatu dugunez, gizartean oso zabaldua dago atzerri-tarrek gizarte-ongizateko sistemaren prestazio batzuek (adibidez, DSBE edo babes ofizialeko pisuak) abusatzen dutelako ideia, eta inkestetan jasotako emaitzetan ere horixe bera ikusi dugu. Nolanahi ere, badirudi gizarte-zerbitzu unibertsalak (osasuna eta hezkuntza, esaterako) erabiltzeari dagokionez, parte-hartzaileei ez zaiela gaizki iruditzen errefuxiatuek zerbitzu horiek erabiltzea.

**Migrazio-politika** espezifikoei, **nazioarteko lankidetzako politikei** eta **errefuxiatuei laguntzeko politikei** dagokienez, hauek dira herritarrek gehien babesten dituztenak: baliabideak bideratzea errefuxiatuen jatorrizko herrialdeetara (% 85,5), emakumeen eta haurren harrera lehenestea (% 71,2) eta mugen kontrola zorroztea (% 65). «Errefuxiatuen jatorrizko herrialdeetan interbentzio militarra egitea, egoera kontrolatzeko» aukera da inkestatuen artean babesik txikiena daukan neurria, eta hamarretik sei horren aurka daude.

Deigarria da, bestalde, herritarren % 60k pentsatzea **mugen kontrola zorroztu** beharra dagoela. Jarrera murriztaile hori ez da oso ondo ezkontzen lehen aipatu dugun harreraren aldeko eta elkartasuneko jarrerekin, irekitasun hori soilik populazio bereziki kalteberarentzat (inkestatuek esandakoaren arabera, emakumeak eta haurrak) dela erakusten baitu. Horrez gain, jendea askoz itxiagoa da musulmanekin, eta arbuio eta mesfidantza handiagoa sentitzen dute haiei dagokienez, inkestatuen erdia ados daudelarik errefuxiatu musulmanen etorrera bereziki kontrolatzearekin.

Orain arte azaldu ditugun politikak EAeko erakundeen eskumeneoak ez badira ere, euskal erakundeek bultzatutako politika publikoek etorkinei eta errefuxiatuei buruzko diskurtsoak eta haiei harrera egiteko praktikak gizartean errotzen nola laguntzen duten ere ikertu dugu.

Ildo horretan, azpimarratzekoa da euskal instituzio publikoak, bai Jaurilaritza, bai diputazioak, bai udalak, politika aktiboak bultzatzen ari direla EAeko asilo-eskatzailak integratzeko. Azterlan honetarako elkarrizketatu ditugun arloko espezialistek salatzen dutenez, euskal instituzio publikoek bultzatutako integrazio-politikak **ikuspegi produktibista** du oinarrian.

**Funtzionalitate sozialera bideratutako elkartasuna** aipatzen dute: integrazioa legitimatzen dutenak ez dira giza eskubideak edo justizia bezalako balio unibertsalak, eredu ekonomiko jakin batera eta tokiko edo eskualdeko egitura produktibora egokitzeko ahalmena baizik. Elkarrizketatutako pertsonak salatu dutenez, orientazio politiko horrek lehen aipatu dugun «harrera baldintzatua» sakondu besterik ez du egiten, eta legitimatu egiten ditu, lan-merkatuan sartu eta sistema ekonomiko-sozialari eusten ekonomikoki laguntzen ez denean, gizartearen gehiengoak errefuxiatuen aurrean dituen errezeloak.

Kritikak jasotzen dituen beste politika publiko bat **hezkuntza-politika** dugu. Elkarrizketatutako zenbait pertsonak kezka agertu dute euskal hezkuntza-ereduaren inguruan, **inklusioa** lortzeko eta **kulturarteko gizartea eraikitzeko** helburuetan dituen gabeziak direla eta.

Zenbait elkarrizketatutak ikastolen ereduaren balorazio negatiboa egin dute eta salatu dute ikastolek ez dutela populazio migratuak integratzeko politika aktiborik. Bildutako lekukotzen esanetan, ikastolen sisteman ez dago desberdintasuna integratzeko eta kulturartekotasuna balioztatzeko baliabiderik edo politikarik eta, horren ondorioz, etorkinek eta errefuxiatuek ez dute bertakoek adina arretarik jasotzen. Ildo horretan, zera galdetu genuen: gatazkarik ba ote dagoen euskal identitatea identitate gutxitu gisa berrestearen eta beste populazio batzuen (tartean Ekialde Ertainekoak) integrazioaren eta kulturartekotasunaren aldeko politika aktiboago baten artean.

**Ongi Etorri Eskola**<sup>10</sup> programa aipatu dute jardunbide egokien adibide gisa. Gipuzkoako lurralde historikoan garatzen den ekimen horren bidez laguntza ematen zaie etorkinei (ez zehazki errefuxiatuei), harrera-komunitatearen baitako integrazioa errazteko eta bermatzeko.

Bestalde, inkestatutako biztanleek errefuxiatuei laguntzeko ekimenez duten ezagutza-mailari dagokionez, Ongietorri Errefuxiatuak da plataforma<sup>11</sup> ezagunena: % 83,7k dute haren berri. Haren atzetik datoz Eusko Jaurlaritzaren Auzolana<sup>12</sup> ekimena eta Ados plataforma: % 28k eta % 21ek ezagutzen dituzte, hurrenez hurren. Ekimen horiez gain, gaia jorratzen eta lantzen duten EAEn sortutako edo EAEn lan egiten duten beste gizarte-erakunde eta instituzio hauek ezagutzen dituzte, besteak beste: UNRWA, Zaporeak, CEAR, Alboan eta UNHCR. Populazioaren % 7k ez dute errefuxiatuei laguntzeko batere ekimen edo plataformarik ezagutzen.

Diagnostikoa osatzeko garaian, errefuxiatuei buruzko aurreiritzi eta estereotipoei aurre egiteko eta haiekiko jarrera irekia eta ongietorria ematea bultzatzeko estrategia arrakastatsuen artean «zurrumurrueen aurkako estrategia» delakoa aipatu dute gai honetako adituek. EAEn Zurrumurrueen Aurkako Sarea osatzen duten eragile sozial eta instituzionalak dira estrategia hori aplikatzeaz arduratzen direnak<sup>13</sup>.

Azkenik, errefuxiatuei laguntzeko garaian euskal herritarrek duten **mobilizazio- eta aktibismo-mailari** dagokionez, landa-lanean jasotako emaitzak ikusita, gaur egun baxu samarra dela esan dezakegu. Hamar pertsonatik batek parte hartzen du errefuxiatuei laguntzen dieten dinamika eta elkarteetan normalean edo tarteka, eta % 16,4k mobilizazioetan parte hartzen dute noizean behin. Irakurketa **adinen** arabera eginda ikusten dugunez, helduek baino mobilizazio- eta aktibismo-maila handixeagoa daukate gazteek, eta **gizonen eta emakumeen** artean ez da alde nabarmenik ikusten.

## 2.2. ESTEREOTIPOAK ETA AURREIRITZIAK ERAISTEKO EKINTZA-ARLO POTENTZIALAK

Gure azterketaren emaitzak ikusita, komenigarria da euskal herritarrek Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuei buruz dauzkaten estereotipo eta aurreiritziak eraisteko ildo batzuk proposatzea eta, gaiari dagokionez, EAeko herritarrei zuzendutako GEHren estrategia batean aintzakotzat hartu beharreko elementuak zehaztea.

Aurreko atalean aipatutako emaitzak, xede-populazioaren eta proposatutako ekintza eta ildoen arabera antolatuko ditugu jarraian.

### a) Euskal gizartearekin jorrazteko lan-ildoak

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da euskal gizartearen jorrazteko beharreko GEHren arloko ekintzen hartzailak multzoka (gutxienez generoaren eta adinaren arabera) aztertzea, ekintzarako estrategia desberdinak lantzeko. Batetik, euskal gizartera iristen den informazioaren **kanalak eta euskarriak desberdinak direlako**, hartzailak emakumeak edo gizonak izan. Euskal gizonek gai horri (aterpea ematea) eta populazio horri buruz duten iritzia eta pertzepzioa taxutzen dituen informazioa prentsa idatziaren eta Interneteko hedabideen bidez jasotzen dute eta emakumeek, berriz, telebistaren eta sare sozialen bidez nagusiki. Gainera, azterlan honetarako egindako ikerketan agerian gelditu denez, emakumeek (oro har) lotura emozional eta enpatikoa garatzen dute errefuxiatuen sufrimenduarekin eta egoerarekin eta gizonezkoek, aldiz, ikuspegi diskurtsibo eta ideologikoago batetik garatzen dute lotura hori. Ebidentzia horien aurrean, prestatzen diren estrategiak hala emakumeek nola gizonek erabiltzen dituzten kanal eta lengoaietara egokitzea komeni da, kontuan izanik ez batzuek ez besteek ez dutela arreta giza eskubideetan jartzen, GGKE-etako langileen eta errefuxiatuekin edo giza eskubideen alorrean lan egiten duten erakunde eta instituzioen kasuetan izan ezik.

10 Informazio gehiago eskuratzeko, ikus <http://www.ongietorrieskolara.org>.

11 Informazio gehiago eskuratzeko, ikus <https://ongietorrierrefuxiatuak.info/eu/>.

12 Informazio gehiago, hemen: «3. atala. Esparru teorikoa».

13 Informazio gehiago eskuratzeko, ikus <http://zurrumurrurikez.eus/>.

Bestalde, **belaunaldien arteko aldeak** ere garrantzia daukela ikusi dugu: biztanle gazteenek (16-29 urte bitartekoak) jarrera irekiagoa dute eta hobeto hartzen dituzte errefuxiatuak, oro har, diagnostiko honen aztergaia diren Ekialde Ertainekoak eta Palestinakoak bereziki. Adinean gora egin ahala, ordea, batez ere hirurogei urtetik gora, jendeak errezelo handiagoa du eta ez zaizkio ondo iruditzen integrazio-politikak eta errefuxiatuei eskubideak onartzea. Ildo horretatik, bi populazio-talde horiek (helduak eta gazteak) modu desberdinean lantzea komeni dela uste dugu, eta helburu eta jarduteko estrategia desberdinak garatzea talde bakoitzarekin, arrakasta lortzearen batzuekin eta besteekin.

Ekialde Ertaineko populazioari buruz (eta, beraz, baita Palestinako errefuxiatuei buruz ere) herritarren artean hedapenik handiena duten estereotipoak islamofobiarekin eta genero-islamofobiarekin zerikusia dutenak dira. Alde horretatik, aurreiritzi horiek ezabatzekeo jarduerak garatu beharra dago, **arabiar/musulman imajinarioari** lotutako estereotipoen eraispenetik eta informazio egokitik abiatuta.

Ildo horretan, emakumeek **emakume aktibo gisa eta eskubideen subjektu gisa** duten rola indartzea eta **gizonezkoak** beren familiaren **zaintzaile gisa duten rola** eta errefuxiatu izatearen ondorioz emozionalki jasaten duten inpaktua azpimarratzea lagungarria izango litzateke herri-irudimenak desegiteko eta pertsona horien errealitatearen zati garrantzitsu bat ikustarazteko.

«**Mikroarrazismoak**»<sup>14</sup> lantzeko ideia berreskuratu da, azkenik, hau da, oso erraz barneratzen ditugun estereotipo eta aurreiritzi jarraiki, geure barnean dauzkagun jarrerak kolektiboki errekonozitzeko prozesu gisa, hortik abiatuta geure eguneroko keinu txikiak aldatzen joateko.

Luis Boninoren *mikromatxismoak* kontzeptuarekin gertatzen den bezala, mikroarrazismoen bidez herritar guztiei mezu bat zuzentzen zaie, txikiak izan arren, geure gizartean arrazismoa areagotzen duten jokamoldeak eta jarrerak identifika ditzaten. Jokabide horiek diskurtso xenofoboa legitimatzen eta txertatzen dute gure artean, eta ez digute uzten lehen aipatu ditugun kontakizun eta gezurrei aurre egiten.

## b) Hedabideekin jorratzeko lan-ildoak

Dakigunez, globalizazio teknologikoaren aroan bizi gara eta, horri esker, mundu osoarekin konektatzeko eta era guztietako informazioa jasotzeko aukera daukagu, historian beste inoiz ez bezala. Gaur egun, inoiz baino beharrezkoagoa da hedabideek zabaltzen duten informazioa egiazkoa eta zorrotza izatea eta, horrekin batera, bere gain hartzea iritzi publikoa sentsibilizatzeko eta trebatzeko tresna gisa duten erantzukizuna ere, generoan eta giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi batetik.

Alde horretatik, eta errefuxiatuei buruzko estereotipoak eta aurreiritziak (Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuei buruzkoak bereziki) eraisten laguntzeko, hedabideei gaiari buruzko **prestakuntza eta sentsibilizazioa** ematera bideratu ditugu ikerketa diagnostiko honetako emaitzetatik abiatuta proposatu ditugun esku-hartzeko ildoak. Genero-gaiekin gertatzen den bezala, gai honetan (estereotipoen kasuan) ez posizionatzeak estereotipo horiek betiketzea eta areagotzea eragiten du, hedabideetan diharduten pertsonak ez baitaude estereotipo eta aurreiritzi horietatik salbu. Azterketa honetan frogatu dugunez, gaian espezializatutako pertsonak, hedabideetako profesionalek eta are asiloa eta aterpea ematen duten erakundeetako langileek ere hutsune ugari daukate oraindik gaiaren eta eskualdearen inguruko ezagutzari, Espainiako Estatuan eta EAEn dauden errefuxiatuen kopoluari eta haien jaioterrii dagokienez.

Errefuxiatu kondizioaren definizioa eta ondorioak eta estatus hori dutenen eskubideak zehatz ezagutzen ez diren testuinguru sozial honetan, giza eskubideen esparrua ez da adierazpen- eta iritzi-askatasunerako muga izaten ari. Ildo horretatik, eta albiste faltsuek eta mezu xenofoboei suposatzen duten mehatxua ikusita, hedabideek protagonismoa hartu behar dute **informazio egiaztatua eskaintzeko** garaian, eta aurre egin behar diete informazio itxura izan arren, berez errefuxiatuen aurkako zurrumurruak zabaltzen eta gorrotoa elikatzen duten mezuei.

<sup>14</sup> *Mikroarrazismoak* kontzeptua UNA Gestión y Comunicación-ek sortu du Luis Boninoren *mikromatxismoak* kontzeptutik abiatuta.

Aurreko ataletan esandakoaren ildotik, garrantzitsua da, halaber, errefuxiatuei buruzko kontakizun pobre eta biktimizatzaileak zabaltzeko joerari aurre egitea, eta ikuspegi positibo batetik ematea haien berri, **arreta jabe-kuntzan, duintasunean eta oztupoak gainditzeko egindako ahaleginetan jarriz**, generoaren eta giza eskubideen ikuspegi batetik.

Azkenik, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin jarraituz, kazetaritza positiboa lantzeko apustu horrek pertsonak **duintasunez** irudikatzen dituzten argazkiak laguntzea komeni da. Argazkiok diagnostiko honetan aztertutakoak bezalako estereotipoak gainditu behar dituzte, gaia lantzen duten gainerako eragile sozialekin GEHko estrategia bateratua landuz euskal gizartean harreraren aldeko jarrera irekiagoak eta tolerantetagoak sortzen laguntzeko.

### c) Erakunde publikoekin jorratzeko lan-ildoak

Alor horretako lana ez da erraza erakunde publikoentzat, baina guztiz estrategikoa da, benetako aldaketak lortu nahi baditugu behintzat, bai errefuxiatuei harrera egiteko baldintzetan, bai gizarte zibilak, bere herrian aplikatzen diren politikei jarraiki, errefuxiatuen **eskubideei buruz daukan pertzepzioan**.

Hasteko, eta euskal erakunde publikoek alorrean eskumenik ez badute ere, Espainiako Estatuak errefuxiatuei begira dauzkan politika publikoei (aterpea, kanpo-harremanak edo migrazio-politika) buruz EAEko herritarrek duten iritzia jaso nahi izan dugu. Espainiako Estatuak aplikatutako **migrazio-politikei, nazioarteko lankidetzari eta errefuxiatuentzako laguntzari** buruz euskal herritarrek daukaten iritzia ikertu nahi izan dugu gure landa-lanean, gai horren inguruan zalantzarik gehien pizten eta babesik handiena jasotzen duten politikak zein diren jakinarazteko iritzia publikoari, diagnostiko honen bidez. Ondorioa argi gelditu da aurreko ataletan, baina hemen zera azpimarratu nahiko genuke: euskal herritarrek onarpen-maila handia daukate errefuxiatuek osasuna edo hezkuntza bezalako zerbitzu publikoak erabiltzeko eskubideari dagokionez, baina boto-eskubidea onartzea edo babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzea bezalako neurriek eztabaida pizten dute oraindik.

Dena den, euskal erakunde publikoen (Jaurlaritza, diputazioak eta udalak) ardura ere bada errefuxiatuek politika publikoek baliatzeko dauzkaten **eskubideak aitortzeko** konpromisoa hartzea, botere publikoak eta zuzenbide-estatuaren parte diren aldetik. Iruditzen zaigu, beraz, maila guztiei dagokiela **herritartasun arduratsua** erakitzeke erantzukizun instituzionala, gizarte-kohesioa bultzatzearen, arreta eskubideetan jarriz eta kulturarteko bizikidetzara eraikez.

Ikuspegiren azken Barometroaren arabera<sup>15</sup>, etorkinen arteko zenbait taldek zailtasunak daukate euskal gizartean integratzeko, arabiar jatorrikoek bereziki (herritarren % 62k ez dute onartzen beren auzoan bizilagun magrebtarrik egotea). Argi dago euskal erakunde publikoek neurriak hartu behar dituztela itxuraz lortzen ari ez diren **elkarbizitza eta harmonia soziala** erakitzen laguntzeko. Horretarako, gizartea kulturarteko eredu baten inguruan sentzibilizatzen duten praktika politiko eta instituzionalak behar dira, eta hori administrazio eta erakunde publikoen erantzukizuna da.

Beraz, euskal sistema instituzionalaren eskumeneko politikei dagokienez, inklusioa bultzatzen ari ez diren politika eta praktikak berrikustea gomendatzen dugu, **kulturartekotasunaren** balioa politika publikoetan txertatuz eta errefuxiatuei dagozkien **giza eskubide unibertsalak** aitortuz.

### d) Errefuxiatuei arreta eta ongietorria eskaintzen dieten gizarte-erakundeekin jorratzeko lan-ildoak

Azkenik, estereotipoak eta aurreiritziak eraisteko jorratu litezkeen lan-ildoen atal hau amaitzeko, hirugarren sektoreko gizarte-erakundeen alor zabalarri zuzendutako gomendioak gelditzen zaizkigu.

Diagnostikoa osatzeko prozesuak errefuxiatuen gaiarekin, errefuxiatuen jatorriko eskualdearekin edota EAEn aterpea edo asiloa hartu duten populazioekin lan egiten duten hogeitik gora erakunde eta GGKEren laguntza izan du. Hizpide dugun gaiaren inguruan mobilizazio sozial handia eta ekimen ugari antolatzen direla ikusi dugu

15 IKUSPEGI (2019) Barometroa 2018. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak. Bilbo: IKUSPEGI.

eta interesgarria eta aberasgarria izango litzateke horiek guztiak **sistematizatzea, ikasbideak eta eragin-maila ezagutzeko**.

Era berean, **sareko lana** indartzea, erakundeen artean **aliantzak sortzea** eta informazioa, baliabideak eta estrategiak partekatzea gomendatzen dugu. Beste arlo batzuetan bezala, koordinazio faltak ahaleginak bikoiztea eta baliabideak xahutzea ekar dezake, xede bera partekatzen duten eragileen artean sinergiarik ez badago. Eragile horiekin eta beste batzuekin ezagutzak eta esperientziak partekatzeari esker bildutako jakintza kolektiborik gabe ez genuke diagnostiko hau osatzerik izango.

Ekialde Ertaineko (eta bereziki Palestinako) errefuxiatuei buruzko estereotipoak eta aurreiritziak desegiteko lana zeregin arras konplexu eta asmo handikoa da eta gaiarekin zerikusia duten erakunde guztien arteko koordinazioa eta lankidetzak eskatzen du.

### 2.3. EKINTZARAKO GOMENDIO ZEHATZAK, GENERO-ANALISITIK ETA GIZA ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK

Diagnostiko hau osatzeko egin den lan-prozesu guztian zehar aintzakotzat hartu ditugu bai genero-ikuspegia bai giza eskubideen ikuspegia. Txostenaren atal berezi honetan 2.1. atalean aurkeztutako ondorioak jaso ditugu, gomendio batzuk emateko eragile sozial eta instituzionalek etorkizunera begira hobetu beharreko arloen inguruan.

Ikerketa honetako genero-analisiaren ondorioetako baten arabera, errefuxiatuei ere aplikatzen zaizkie euskal gizartean indarrean dauden genero-rol eta -estereotipoak (emakumeak zaintzaile, gizonak ekoizle). Gaiari buruzko sentsibilizazioa lantzeko aplikatzen diren estrategiek **generoari buruzko pertzepzio estereotipatu** hori borrokatzea komeni da, generoari hainbeste begiratzen ez dion imajinarioa eraikitzen laguntzeko<sup>16</sup>.

Bestalde, eta genero-estereotipoak eraisteko egin beharreko lanarekin jarraituz, emakumeak eta haurrak hartzeko jarrera irekiagoaren aldean jendeak **gizonezko errefuxiatuak hartzeko duen intolerantzia handiagoaren** inguruko kontzientziazio soziala landu beharra dago. Genero-estereotipoek eragindako onarpen-maila desberdinaren ondorioz sentsibilitate eta enpatia gutxiago dago gizonekin, haien egoera, kondizioa eta nortasuna edozein direla ere, eta jarrera hori eraistea komeni da.

Bestalde, beharrezkoa da, eta estrategikoa, **emakume errefuxiatuak biziraule gisa posizionatzea**, baita indarkeria-gaietan ere. Halaber, haiek ez biktimizatzen edo haien irudia ez pobretzen saiatu beharra dago, haien prozesua txalotu eta eredutzat aurkeztearekin batera. **Emakumeen agentzia** baloratu behar dugu, beraz, beren bizitzari buruz erabakitzeko eta beren erabakiak baldintza materialik txarrenetan ere aurrera eramateko daukaten gaitasuna, alegia. Jendea egoera kaltebera batean dagoenean ondoan egoteak eta laguntza emateak ez du justifikatzen emakume horiek erabakimena duten eta hala zailtasunei aurre egiteko nola beren eskubideak exijitzeko gai diren subjektu gisa ez errekonozitzea. Haien boterea eta gaitasunak dira aintzakotzat hartu behar ditugunak, eta ez bizi duten egoerak haiengan duen eragina.

**Palestinako errefuxiatuekin** landu diren zenbait jardunbide egoki jaso ditugu gizarte-erakundeekin eta GKEekin landa-lanean egindako elkarrizketetan. Parte-hartzaileek Palestina gerrarekin eta gatazkarekin lotzen dutela ikusi dugu gure diagnostiko kuantitatiboan, eta pertzepzio horiek aintzat hartuta, GEHren alorrean egiten den lanean sakontzea proposatu nahi dugu, Palestinako emakumeak, gatazka baten biktima gisa beharrean, bake-ranzko eraldaketan esku hartzen duten subjektu gisa aurkezteko. Emakume palestinarrek jasaten duten genero-islamofobia desmuntatzeko ekintzak proposatzea ere komeniko litzateke, menpekoak eta otzanak direlako irudia eraitsi eta beren eskubideen aldeko defentsaren protagonista gisa aurkeztuz.

Azkenik, **genero-arrazoiengan oinarritutako asilo-eskaerak** aipatu behar ditugu. Geure herrialdean bideratzen diren kasu guztien artean halakoak oso gutxi direla uste dute inkestatuak, baina, halere, eskaera horiek dira onar-

<sup>16</sup> ACKER, Joan (2000): «Jerarquías, trabajos y cuerpos: una teoría sobre las organizaciones dotadas de género», in Marysa Navarro eta Catherine Stimpson, Cambios sociales, económicos y culturales, Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica.



pen- eta tolerantzia-mailarik handiena eragiten dutenak, arrazoi beliko eta ideologikoei lotutako jazarpenarekin batera. Euskal gizartean aniztasun sexualaren errespetuarekiko eta genero-indarkeriaren arbuioarekiko sentsibilitatea handiagoa dela erakusten du horrek. Beraz, kasu horiek gehiago erakustea komeni da, eta pisu handiagoa ematea Palestinako errefuxiatuen errealitateari buruzko sentsibilizazio- eta hedapen-estrategiak lantzeko garaian, gizartea gaiarekin sentsibilizatuta dagoela eta interesa daukala aprobetxatuz.

Eskubideetan oinarritutako ikuspegiari dagokionez, nazioarteko itunak sinatzearen ondorioz Estatuak dauzkaten betebeharren inguruko **sentsibilizazioa landu behar da euskal gizartean**. Gorago esan dugunez, errukizko begirada eta elkartasun emozionala ez dira nahikoa errefuxiatuak gure artean hartzeko garaian, eta gogoeta sakon eta kontzientea egin behar dugu errefuxiatuek gure gizartean hartuak izateko eta integratzeko dauzkaten eskubideekin lotutako erantzukizuna abiapuntutzat hartuta. Horren harira, errefuxiatu izateak zer esan nahi duen eta zer ondorio dituen erakutsi eta irakatsi behar zaio euskal gizarteari lehenbailehen. Horretarako, lan pedagogikoa egin beharko litzateke errefuxiatuek zerbitzu sozialak eta instituzio publikoen laguntzak gainontzeko euskal herritarren baldintza berberetan erabiltzeko daukaten eskubideaz ohartarazteko.

**Eragile publikoek** lan horretan inplikatu behar dute, gorago esan dugun moduan, eta, dauzkaten eskumenei jarraiki, errefuxiatuak gure gizartean behar bezala integratzeko hartu beharreko neurri politiko guztiak hartzeko eskatu behar zaie administrazio publikoei. Horrela, bada, gaiarekin zerikusia izanik prozesu honetan gure aliatu izan daitezkeen arlo, sail eta erakunde publikoekin dauzkagun erlazio eta harremanak sendotzea komeni da, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin eta Ikuspegirekin, esate baterako<sup>17</sup>.

Ildo beretik, GEHren alorreko interbentzioen ardatza giza eskubideen sustapena eta lorpena izatea proposatzen du Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziaren (H)Abian<sup>18</sup> - Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategiak. Horretarako, zera proposatzen dute: «eskubide eta betebeharren titularrak zeintzuk diren identifikat[zea] eta bi horien gaitasunak indartzen laguntzea; lehenengo kasuan, eskubideak aldarrikatu ahal izan ditzaten eta, bigarrenean, babesten, sustatzen eta betetzen direla bermatzeko».

Ikerketa honetan bat gatoz gomendio horrekin, eta eragile sozialek Palestinako errefuxiatuekin egindako interbentzioetan landutako proiektu eta ekintzetan txertatu dugu ikuspegi hori, aipatutako estrategian azpimarratutako bi printzipio kontuan hartuta: eskubideen titularren partaidetza aktiboa eta betebeharrak dauzkaten erantzukizuna.

Gainera, garrantzitsua iruditzen zaigu **ikuspegi pedagogiko batetik** abiatuta enpatia sortzen laguntzen duten proiektuak eta ekintzak bultzatzea. Aurreiritziak eta gezurrezko mitoak desegiteko diskurtso arrazionalak sortzeaz gain, joera arrazista eta diskriminatzaileak neutralizatzen laguntzen duten jarrerak eta emozioak landu beharra dago.

Azkenik, **euskal errealitatearen eta hala errefuxiatuen errealitatearen nola ihes egitera bultzatu zituzten testuinguruaren artean dagoen lotura** lantzea gomendatzen da. Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lotura ekonomiko eta soziopolitikoak, bien arteko erantzukizun partekatua, bertakoaren eta nazioartekoaren arteko lotura eta memoria historikoa ere landu beharreko gaiak dira. Iparraren eta Hegoaren arteko erlazioaren eta bertako eta nazioarteko errealitatearen azterketa sakonagoa egingo bagenu, eta gure kontsumo ereduak, adibidez, errealitate geopolitikoarekin lotuko bagenu, nazioarteko dinamiken eta errefuxiatuek dinamika horietan duten egoeraren gaineko ezagutza egokiagoa eta egiturazkoagoa eskuratuko genuke.

17 Informazio gehiago eskuratzeko, ikus <http://www.ikuspegi.eus/eus>.

18 Informazio gehiago eskuratzeko, ikus <http://www.elankidetz.euskadi.eus/x63-homev7/eu/>.

# 3. IKERKETAREN ESPARRU TEORIKOA ETA TESTUINGURUA

## 3.1. LEGE-ESPARRUA

### a) Asilo-eskatzaileen, errefuxiatuen eta aberrigabeen definizioa

Hasteko, gauza bat argitu behar dugu: errefuxiatuez orokorrean eta, zehazki, Palestinako errefuxiatuez hitz egiten dugunean, bi egoera desberdinez ari gara. Palestinako errefuxiatuak nor diren ulertzeko, Nazio Batuen Palestinarako Adiskidetze Batzordeak NBEren Batzar Nagusiaren 194 (III) Ebazpenaren eranskinean emandako definizioa erabil dezakegu:

**1. artikulua.** Errefuxiatutzat jotzen dira (...) arabiar jatorria izanik, 1947ko azaroaren 29aren ondoren egun Israelgo agintarien kontrolpean dauden lurraldeetatik ihes egin zuten pertsonak eta data horretan Palestinako herritarrak zirenak. Errefuxiatutzat jotzen dira, halaber, (...) arabiar jatorriko nazionalitatearik izan gabe, ordura arte bertan bizi eta gero, 1947ko azaroaren 29aren ondoren lehen aipatutako lurraldetik alde egin zuten pertsonak. Artikulu honetako paragrafoetan xedatutakoaren barruan ez dira sartzen beren jatorrizko nazionalitatea berreskuratu duten pertsonak edo populazioaren gehiengoarekin arrazazko loturak dauzkaten herrialde bateko nazionalitatea hartu dutenak. Aipatutako gehiengo hori arabiar gehiengoa ez dela ulertzen da.

**2. artikulua.** 1. artikuluko xedapenak jarraian zehaztutako pertsoneri aplikatuko zaizkie: 1.- 1947ko azaroaren 29an palestinar herritarrak izanik, aipatutako lurraldetik data hori baino lehen eta 1924ko abuztuaren 6a eta gero alde egin zuten arabiar jatorriko pertsoneri. 2.- Aipatutako lurraldetik 1924ko abuztuaren 6a baino lehen alde egin eta, palestinar herritartasuna aukeratuta, 1947ko azaroaren 29ra arte nazionalitate horri eutsi zioten arabiar jatorriko pertsoneri.

**3. artikulua.** Arabiar jatorriko terminoa Palestinako arabiar komunitateko kide diren pertsonak eta beren burua komunitate horretako kideztat dauzkatenak izendatzeko erabiltzen da aurreko artikuluetan» (NBE, 1951b: 1).

**Palestinako errefuxiatuen** kopuruari dagokionez:

«Palestinako errefuxiatuak erbestean denborarik gehien daraman populazio-taldea bihurtu dira: 5,5 milioi pertsona baino gehiago hirurogeita hamar urtetik gora, ezbeharrez eta duintasunez betetako historia batean. Populazio horrek zain jarraitzen du etxera noiz itzuliko, beren historia tragikoa aitortu izateko eta beren egoera zailarentzako irtenbide bidezko eta behin betikoa aurkitzeko» (UNRWA, d/g 2).

Bestalde, **errefuxiatuen** definizioari dagokionez, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioa da –Genevako Konbentzioa izenez ezagutzen dena eta 1951ko uztailaren 28an onartu zena Suitzan, Errefuxiatu eta Abergigabeen Estatutuari buruzko Botereguztidunen Konferentzian– errefuxiatu kondizioari buruzko nazioarteko lehenengo lege-erreferentzia finkatu zuena:

#### 1. artikulua. Errefuxiatu terminoaren definizioa

A. Konbentzio honen ondorioetarako, *errefuxiatu* terminoa jarraian zehaztutako pertsona guztiei aplikatuko zaie:

- 1) 1926ko maiatzaren 12ko eta 1928ko ekainaren 30eko konponbideek, edo 1933ko urriaren 28ko eta 1938ko otsailaren 10eko hitzarmenek, edo 1939ko irailaren 14ko Protokoloak, edo Errefuxiatuen Nazioarteko Erakundearen Konstituzioak halakotzat jotzen dituztenei.

Errefuxiatuen Nazioarteko Erakundeak bere jardunaldian zehar hartutako erabaki ukatzaileek ez dute eragotziko atal honetako 2. paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonen errefuxiatu kondizioa aitortzea.

- 2) 1951ko urtarrilaren 1aren aurretiko gertaeren ondorioz, beren arraza, erlijioa, nazionalitatea, talde soziala edo iritzi politikoak direla-eta jazarriak izateko beldur oinarriak izanik eta beren nazionalitateari dagokion herrialdetik kanpo egonik, hara itzultzerik ez duten edo, beldur horren ondorioz, hara itzuli nahi ez duten pertsonen; edo, nazionalitate horien ondorioz, ohiko bizilekua duten herrialdetik kanpo egonik, hara itzultzerik ez duten edo, beldur horren ondorioz, hara itzuli nahi ez duten pertsonen.

Nazionalitate bat baino gehiago duten pertsonen kasuan, "beren nazionalitateko herrialdea" nazionalitate horietako herrialdeen arteko edozein izango da; eta ez dira beren nazionalitateko herrialdearen babesik gabekotzat joko, beldur oinarri bati lotutako arrazoi sendorik gabe, nazionalitate horietako herrialdeetako baten babesa onartu ez duten pertsonak» (NBE, 1951: 1).

Aurrerago azalduko dugunez, **Errefuxiatuen Estatutuari buruzko** Protokoloak (NBE, 1967) definizio horren zati batzuk aldatu eta jende gehiago sartu zuen kontzeptu horren barruan. 2. artikulua «Protokolo honen ondorioetarako eta artikulua honen 3. paragrafoan aplikatzeari dagokionez izan ezik, *errefuxiatu* terminoak Konbentzioaren 1. artikulua definitzeko sartutako edozein pertsona izendatuko du eta indarrak gabe geldituko dira 1. artikuluko A ataleko 2. paragrafoan ageri diren "1951ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatutako gertaeren ondorioz" eta "gertakari horien ondorioz" hitzak» (NBE, 1967: 1).

Beste planteamendu batzuek aldi berean antzekoak eta desberdinak diren beste bi kategoria gehitzen dituzte lehen definizio horretan: asilodunak eta aberrigabeak. Lehenbizikoei dagokienez, errefuxiatu kategoriarekin nahasten dira askotan, baina funtsezko desberdintasunak daude bien artean. **Asilo kontzeptua** banakako pertsonen erabilten da gehienbat. UNHCR-ren arabera, «arrazoi desberdinak tarteko (oinarriko eskubide baten edo gehiagoren urraketaren ondorioz normalean), beren jaioteritik ihes egin duten pertsonen Estatu batek babesa eta laguntza bermatzen dieneko praktikari egiten dio erreferentzia asiloaren figurak. Normalean arrazoi politikoei lotzen bazaie ere, baliabidea zabalagoa da berez, eta beren arraza, erlijio, nazionalitate, talde sozial edo iritzi politikoengatik jazarpena jasaten dutenak ere babesten ditu. Eskatzailearen jatorriko Estatuak eskaini ezin dituen segurtasun- eta babes-bermeak eskaintzea daukan bigarren edo hirugarren Estatu batean aurkezten da asilo-eskaera. Oro har, eskaera jasotzen duen herrialdeak zehatz-mehatz aztertu, eta, prozesuaren amaieran, aldeko edo aurkako erabakia ematen du. Asilo-eskaeren kopuruak lotura estua dauka, gaur egun, munduan zehar, adibidez Afrikan edo Ekialde Ertainean, dauden krisi humanitarioekin. Zenbait erakunde humanitarioen arabera (tartean UNHCR) iaz bi milioi pertsonak baino gehiagok eskatu zuten asiloa munduan» (UNHCR, d/g 1).

**Aberrigabeei** dagokienez, Aberrigabeen Estatutuari buruzko Konbentzioaren (1954) 1. artikuluan aurkitzen dugu haien definizioa:

### 1. artikulua. *Aberrigabe* terminoaren definizioa.

1. Konbentzio honen ondorioetarako, bere legeriari jarraiki inongo Estatu bere nazionaltzat jotzen ez duen pertsona oro izendatuko du *aberrigabe* terminoak.
2. Konbentzio hau ez zaie aplikatuko:
  - i. Gaur egun Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoa ez den NBEko organoren edo organismoen baten babesa edo laguntza jasotzen duten pertsonen, babes edo laguntza hori jasotzen duten bitartean.

- ii. Bizilekua duten herrialdeko eskumeneko agintariek bertako nazionalitatea edukitzeari dagozkion eskubideak eta betebeharrak aitortzen dizkieten pertsonei.
- iii. Jarraian zehaztutakoak aplikatzeko arrazoi sendoak dauden pertsonen kasuan:
  - a) Bakearen aurkako delitua, gerra-delitua eta gizateriaren aurkako delitua definitzen dituzten nazioarteko tresnen arabera delitu horietakoren bat egin duten pertsonei.
  - b) Bizilekua duten herrialdean onartuak izan arren, herrialde horretatik kanpo izaera politikorik gabeko delitu larria egin duten pertsonei.
  - c) Nazio Batuen xede eta printzipioen aurkako egintzen errudun diren pertsonei». (NBE, 1954: 6)

Aipagarria da, halaber, **babes subsidiarioaren** figura. UNHCRek honela definitzen du: «asiloa lortzeko edo errefuxiatu izateko eskubiderik izan ez, baina bere herrialdera itzuliz gero kalteren bat jasan dezakeela pentsatzeko arrazoiak egonik, babesa behar duen pertsona» (UNHCR, d/g 2).

#### **b) Asilo-eskatzailaren, errefuxiatu edo aberrigabearen eta etorkinen arteko aldea.**

Aurreko atalean zehaztu dugun bezala, asilo-eskatzailak, errefuxiatuek eta aberrigabeek segurtasun-arrazoiengatik beren jaioterritik ihes egin eta beste Estatu baten laguntza eskatzen dute, beren bizia eta askatasuna babesteko.

Hiru estatus horiek migratzaile izatearekin nahasten dira askotan edo, UNHCRek dioenez, hiru kategoria horien artean sartzen dira migratzaileak<sup>19</sup>. Errefuxiatu eta Migratzaileentzako New Yorkeko Adierazpenak (NBE, 2016) haien berezitasunak zehazten ditu, baina baita haien ezaugarri komunak ere:

#### **I. Sarrera**

1. Gizateria antzina-antzinatik dabil hara eta hona. Pertsona batzuk aukera ekonomiko berrien eta beste etorkizun baten bila abiatzen dira beste herrialde batzuetara. Beste batzuek gatazka armatuak, pobrezia, elikagaien segurtasunik eza, jazarpena, terrorismoa eta giza eskubideen urraketa eta abusuak atzean uzteko egiten dute ihes. Badira klima-aldaketaren edo hondamendi naturalen ondorio kaltegarriak (klima-aldaketarekin lotuta egon daitezkeenak) edo beste ingurumen-faktore batzuenatik alde egiten dutenak ere. Aipatutako arrazoi batengatik baino gehiagorengatik joaten dira asko beste herrialde batera. (...)

6. Errefuxiatuen eta migratzaileen tratamendua lege-esparru desberdinek arautzen badute ere, giza eskubide unibertsal eta oinarrizko askatasun berberak daukate biek. Bi taldeek antzeko arazo eta zailtasunak izaten dituzte, baita desplazamendu handien testuinguruan ere. Kontuan izan behar da *desplazamendu handiak* kontzeptuak zenbait alderdi biltzen dituela bere baitan: iristen den jende kopurua, testuinguru ekonomiko, sozial eta geografikoa, harrera egiten duen Estatuak erantzuteko daukan gaitasuna, eta bat-bateko zein luzarorako desplazamenduen ondorioak. Termino horren barruan ez dira sartzen migratzaileek herrialde batetik bestera egin ohi dituzten desplazamendu arruntak, esate baterako. "Desplazamendu handietan" arrazoi desberdinak direla medio antzeko ibilbideak erabiltzen dituzten pertsonen korrante mistoak (errefuxiatu eta migratzaileenak) aurki ditzakegu». (NBE, 2016: 1-2)

<sup>19</sup> <https://www.acnur.org/es-es/asilo-y-migracion.html>.

Horrela, bada, migratzaileek eta errefuxiatuek ezaugarri batzuk partekatzen eta antzeko arazo eta zailtasunak dituzten arren, estatus desberdina dute, bide desberdina jarraitzen du haien estatusaren aitortzaketa desberdinak dira, halaber, Estatuak haien eskubideak aitortzeko eta babesteko dauzkaten betebeharrak. Gogoan izan behar dugu, azkenik, errefuxiatuek nazioarteko babes desberdina daukatela.

### **c) Genevako Nazioarteko Konbentzioa, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioa (1951) izenez ezagutzen dena**

Konbentzio hori izan zen errefuxiatu kondizioa babesteko eta aitortzeko lehen saiakera. Aurreko ataletan aipatu dugu Konbentzio horrek errefuxiatuez emandako definizioa.

Bestalde, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Konbentzioa onartzean adostu zuen moduan, Estatu sinatzaileek arraza, erlijio edo jaioterrigatiko bereizketarik gabe aplikatu behar dituzte Konbentzioko xedapenak (3. art.) eta «atzerritarrak oro har» tratatzen dituzten modu berean tratatu behar dituzte errefuxiatuak (7. art.). Era berean, errefuxiatuek dauzkaten beste eskubide hauek ere errespetatu beharra dagoela dio Konbentzioak: ondasunen jabetza (13. art.), jabetza intelektual eta industrial (14. art.), elkartzeko eskubidea (15. art.) eta justiziara jotzeko eskubidea (16. art.).

Lanerako eskubideari dagokionez, Konbentzioak tratu desberdina finkatzen du errefuxiatuentzat eta migratzaileentzat, 17. artikuluan:

#### **17. artikulua - Lan ordaindua**

1. Lan ordaindua izateko eskubideari dagokionez, egoera berean atzerritarrek jasotzen duten tratu-rik onuragarriena emango diete Estatu sinatzaileek beren lurraldean legalki dauden errefuxiatuei.
2. Nolanahi ere, lan-merkatu nazionala babesteko xedez atzerritarrei edo haiek enplegatzeari ezarritzen zaizkien neurri murriztaileak ez zaizkie aplikatuko Konbentzio hau indarrean sartzen den egunean kasuan kasuko Estatu sinatzailean neurri horietatik dagoeneko salbuetsita dauden errefuxiatuei edo ondorengo baldintza hauetakoren bat betetzen dutenei:
  - a) Hiru urte baino gehiago herrialdean bizitzen.
  - b) Bizi den herrialdeko nazionalitatea daukan ezkontidea izatea. Ezkontidea abandonatuz gero, errefuxiatuak ezin izango ditu xedapen horren onurak aplikatzeko eskatu.
  - c) Bizi den herrialdeko nazionalitatea daukan seme-alaba bat edo gehiago edukitzea.
3. Estatu sinatzaileek borondate onez aztertuko dute, lan ordainduan jarduteari dagokionez, ea errefuxiatu guztien eskubideak bat datozen bertako herritarrek dituztenekin, bereziki Estatuan eskulana kontratatzeke programen edo immigrazio-planen bidez sartu diren errefuxiatuen kasuan» (NBE, 1951: 6).

Hezkuntza eta laguntza publikoak jasotzeko eskubideari dagokionez, errefuxiatuei bertakoen eskubide berberak aitortzeko eskatzen die Konbentzioak Estatuari (22. eta 23. art.).

Errefuxiatuak kanporatzeko eta jatorriko herrialdera itzultzeko debekua dugu, Estatu bakoitzak bere kabuz har ditzakeen erabakiak gorabehera, errefuxiatuak babestuta daudela bermatzeko beste neurri garrantzitsu bat.

#### **33. artikulua. Errefuxiatuak kanporatzeko eta itzultzeko (refoulement) debekua**

1. Hitzarmena sinatu duten Estatuak inola ere ezingo dute errefuxiatu bat lurralde baten mugen barrura bidali (kanporatuz edo itzuliz), bertan haren bizitza edo askatasuna arriskuan baldin badago arrazari, erlijioari, nazionalitateari zein iritzi politikoei lotutako arrazoiengatik edo gizarte-talde jakin batekoa izateagatik» (ibid.: 9).

Hasieran, Konbentzioak bi murrizketa zeuzkan errefuxiatuen eskubideen inguruan: europarrak izatea eta errefuxiatu-egoera eragin zuten gertaerak 1951ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak izatea. Nazio Batuek (1967) urte batzuk geroago onartu zuten **Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Protokoloak** ezabatu egin zituen denborari eta espazioari zegozkien baldintza horiek.

#### d) Nazio Batuen ebazpenak

Lehenetik eta behin, eta gainerako ebazpenentzako esparru orokorra finkatzen duenez gero, **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala** aipatu behar dugu, NBEren Batzar Nagusiak onartua Parisen, 1948ko abenduaren 10ean, 217 A (III) Ebazpenaren bidez (<https://www.un.org/es/universal-declaration-human-rights/>).

Jarraian, errefuxiatuak eta asilo-eskatzailak babesteko nazioartean dauzkagun gainerako tresna garrantzitsuenak aipatuko ditugu. Palestinari buruzkoak multzokatu ditugu hasieran, eta testu orokorragoak, ondoren.

- Batzar Nagusiaren 181 (II) Ebazpena, 1947ko azaroaren 29an bozkatua, Palestina estatu judu baten, arabiar Estatu baten eta nazioarteko erregimen berezia daukan zona baten artean banatzea gomendatzen duena (<https://www.un.org/unispal/es/data-collection/general-assembly/>).
- Batzar Nagusiaren 194 (III) Ebazpena, 1949koa, Nazio Batuen Palestinarako Adiskidetze Batzordea eratu zuena, behin betiko konponbidea bilatzeko asmoz, Palestinako errefuxiatuei etxera itzultzeko eta beren eskubideak berreskuratzeko eskubidea aitortu zielarik ([https://undocs.org/es/A/RES/194%20\(III\)](https://undocs.org/es/A/RES/194%20(III))).
- Batzar Nagusiaren 302 (IV) Ebazpena, Palestinako errefuxiatuen egoerari buruzkoa, New Yorken onartua 1949ko abenduaren 8an. Ebazpenaren bidez, Ekialde Ertaineko Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia sortu zen (UNRWA, ingelesezko sigletan) ([https://undocs.org/es/A/RES/302\(IV\)](https://undocs.org/es/A/RES/302(IV))).
- Segurtasun Kontseiluaren 242 Ebazpena, 1967ko azaroaren 22koa, Ekialde Ertainean bake justu eta iraunkorra lortzeko «Israelgo indar armatuek azken gatazkan okupatutako lurraldeak uzteko eskatzen duena» ([https://undocs.org/es/S/RES/242%20\(1967\)](https://undocs.org/es/S/RES/242%20(1967))).
- Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 3236 (XXIX) Ebazpena, 1974ko azaroaren 22koa, Palestinako herriaren eskubide ukaezinak (autodeterminazioa, independentzia, burujabetza nazionala, errefuxiatuak beren etxera itzultzea) berretsi zituena ([https://undocs.org/es/A/RES/3236%20\(XXIX\)](https://undocs.org/es/A/RES/3236%20(XXIX))).
- Segurtasun Kontseiluaren 1397 Ebazpena, 2002ko martxoaren 12koa, «bi estatu, Israel eta Palestina, elkarren ondoan eta muga seguru eta aitortuen barruan bizitzeko proposamenaren» alde egiten duena (<https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N02/283/62/PDF/N0228362.pdf?OpenElement>).
- Batzar Nagusiaren 67/19 Ebazpena, 2012ko azaroaren 29koa, Palestinari Nazio Batuetako kide ez den Estatu behatzaile estatua ematen diona (<https://undocs.org/A/RES/67/19>).
- Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoaren (UNHCR) Estatutua, Batzar Nagusiak onartua, 1950eko abenduaren 14ko 428 (V) Ebazpenaren bidez (<http://www.solidaritat.ub.edu/observatori/general/docugral/acnur.htm>).
- Errefuxiatu eta Aberrigabeen Estatutuari buruzko NBEko Boteregutidunen Konferentziaren azken akta, Genevan onartua 1951ko uztailaren 28an (<https://www.acnur.org/5b076e3e4.pdf>).
- Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioa. NBEk 1950eko abenduaren 14ko 429 (V) Ebazpenaren bidez deitu zuen Errefuxiatu eta Aberrigabeen Estatutuari buruzko Boteregutidunen Konferentziak onartua, Genevan (Suitza) 1951ko uztailaren 28an (<https://www.acnur.org/5b0766944.pdf>).
- Aberrigabeen Estatutuari buruzko Konbentzioa, Genevan onartua 1954ko irailaren 28an (<https://www.acnur.org/5b43cea54.pdf>).



- Lurralde Asiloari buruzko Adierazpena, Batzarrak onartua, 1967ko abenduaren 14ko 2312 (XXII) Ebazpenaren bidez (<https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2001/0009.pdf>).
- Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Protokoloa, New Yorken sinatua 1967ko urtarrilaren 31n (<https://www.acnur.org/5b076dcd4.pdf>).
- Errefuxiatu eta Migratzaileei buruzko New Yorkeko Adierazpena, Batzar Nagusiak onartua 2016ko urriaren 3an (<https://www.acnur.org/5b4d0eee4.pdf>).

### e) Europar Batasuneko legeria

Europar Batasunak ere zuzentarau eta araudi ugari onartu ditu errefuxiatuei, asilo-eskatzzaileei eta aberrigabeei buruz. Honako hauek dira aipagarrienak, bilduma honen xedeei dagokienez:

- Errefuxiatuekiko erantzukizuna eskualdatzeari buruzko Europako Akordioa, Estrasburgon onartua 1980ko urriaren 16an <http://www.refugeelawreader.org/es/es/espanol/-72/-73/-74/tratados-regionales-b%C3%A1sicos/8703-acuerdo-europeo-sobre-la-transferencia-de-responsabilidad-con-respecto-a-los-refugiados,-de-16-de-octubre-de-1980,-e-t-s-107/file.html>).
- Kontseiluaren 2001/55/EE Zuzentaraua, 2001eko uztailaren 20koa. Desplazatuak etorrera masiboetan behin-behineko babes emateko gutxieneko arauak finkatu zituen, batetik, eta pertsona horiek hartzeko ahalgina EBko estatuen artean modu ekitatiboan banatzeko eta hartzearen ondorioak onartzeko sustapen-neurriak ezarri zituen, bestetik (<http://web.icam.es/bucket/DIRECTIVA%20DESPLAZADOS%2055%202001%20CELEX-32001L0055-ES-TXT.pdf>).
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/95/EB Zuzentaraua, 2011ko abenduaren 13koa, beste herrialde bateko pertsonak edo aberrigabeak nazioarteko babesaren onuradun gisa aitortzeko baldintzak, errefuxiatuentzako edo babes subsidiarioa jasotzeko eskubidea duten pertsonentzako estatutu uniforme eta emandako babesaren edukia arautzen dituen (<http://web.icam.es/bucket/DIRECTIVA%2095%202011%20CALIFICACION%20L00009-00026.pdf>).
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/32/EB Zuzentaraua, 2013ko ekainaren 26koa, nazioarteko babes emateko edo kentzeko prozedura komunei buruzkoa (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A32013L0032>).
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/33/EB Zuzentaraua, 2013ko ekainaren 26koa, nazioarteko babes-eskatzzaileei harrera egiteko arauak onartzen dituen (testu birmoldatua) <http://web.icam.es/bucket/DIRECTIVA%2033%202013%20CONDICIONES%20ACOGIDA%20L00096-00116.pdf>).
- 810 /2009 Erregelamendua (EE), 2009ko uztailaren 13koa, bisei buruzko EBko kodea finkatzen duena (Bisen Kodea) (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?qid=1560512379721&uri=CELEX:32009R0810>).
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 604/2013 Erregelamendua, 2013ko ekainaren 26koa, beste herrialde bateko pertsona batek edo aberrigabe batek EBko estatuen batean aurkeztutako nazioarteko babes-eskabidea aztertzeko ardura duen Estatuak jarraitu beharreko irizpide eta mekanismoak finkatzen dituen (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A32013R0604>).
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/399 Erregelamendua, 2016ko martxoaren 9koa, pertsonen mugak zeharkatzeko bete beharreko arauen kodea ezartzen duena (Schengen Muga Kodea) (<http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/normativa/acuerdos-y-convenios/reglamento-ue-2016/399-de-9-de-marzo>).
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2017/2226 Erregelamendua, Sarrera eta Irteeren Sistema (SIS) ezartzen duena, EBko estatuetako kanpo-mugak zeharkatzen dituzten beste herrialde batzuetako pertsonen sartu-irtenei eta ukatutako sarrerei buruzko datuak erregistratzeko. Era berean, SISEn polizia-xe-

deetarako baldintzak zehazten ditu eta Schengengo Akordioa aplikatzeko Hitzarmena eta (EE) 767/2008 eta (EB) 1077/2011 Erregelamenduak aldatzen ditu (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX:02017R2226-20181009>).

#### **f) Estatu-mailako legeria**

Espainiak aterpea eta asiloa emateari buruz azken urteotan onartutako lege gehienek Nazio Batuetatik eta Europar Batasunetik datozen nazioarteko araudiak arautzea izan dute xedetzat. Erregelamendu horiez gain, araudi zehatz batzuk ere onartu dira, zenbait tresna juridikoren bidez:

- Espainia Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioari (Genevan onartua, 1951ko uztailaren 28an) eta Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Protokoloari (New Yorken onartua 1967ko urtarrilaren 31n) atxikitzeko TRESNA (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1978-26331>).
- Errefuxiatuentzako bisa-salbuespenari buruzko 31. zenbakiko Europako Akordioa (Estrasburgon onartua 1959ko apirilaren 20an) berresteko TRESNA, 1982ko ekainaren 2koa (<http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/normativa/acuerdos-y-convenios/acuerdo-europeo-numero-31-de-20-de-abril-de-1959>).
- 1989ko urtarrilaren 13ko AGINDUA, errefuxiatuak hartzeko zentzoei buruzkoa (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1989-2449>).
- Espainiako Erresuma Schengengo Akordioa aplikatzeko 1990eko ekainaren 19ko Hitzarmenari atxikitzeko 1991ko ekainaren 25eko Akordioa berresteko TRESNA, 1993ko uztailaren 23koa (28-38. art.) <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1994-7586>.
- 203/1995 ERREGE DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, Asilo Eskubidea eta Errefuxiatu Kondizioa arautzen dituen martxoaren 26ko 5/1984 Legea (maiatzaren 19ko 9/1994 Legeak aldatu zuena) aplikatzeko Erregelamendua onartzen duena (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1995-5542>).
- Europako Erkidegoetako estatueta aurkeztutako asilo-eskaerak aztertzeke ardura duen Estatu zehazteko HITZARMENA, Dublinen onartua 1990eko ekainaren 15ean. Espainiaren Berrespen Tresna, 1995eko martxoaren 27koa (BOEren 183. zk., 1997ko abuztuaren 1koa) [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-1997-17386](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-1997-17386)
- 865/2001 ERREGE DEKRETUA, uztailaren 20koa, aberrigabeen estatutua aitortzeko Erregelamendua onartzen duena (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2001-14166>).
- 1325/2003 ERREGE DEKRETUA, urriaren 24koa, desplazatuena etorrera masiboa gertatuz gero aldi baterako babes-erregimenari buruzko Erregelamendua onartzen duena (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2003-19714>).
- 12/2009 LEGEA, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioak arautzen dituena (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2009-17242>).
- 116/2013 ERREGE DEKRETUA, otsailaren 15ekoa, behin-behineko pasaporte eta desplazatzeko baimena ematea arautzen duena (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2013-2033>).

12/2009 Legea da nazioarteko xedapenak biltzen dituena eta asilo-eskubidearen (2. artikulua), errefuxiatu kondizioaren (3. artikulua) eta babes subsidiarioaren (4. artikulua) aitortza arautzen dituena.

#### **g) EAEn aplikatzekoak diren arauak**

Asiloa eta babes emateko eskumenak Estatuarenak dira eta EAEk ez du, beraz, erkidego-, diputazio- edo udal-mailako araudi berezirik.

Hala ere, 2015az gerotik errefuxiatuen harrera- eta bizikidetzeta-prozesuak hobetzeko ahaleginak egin ditu Jaurlaritzak. Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak estrategia bat garatu du «Euskal Autonomia Erkidegoan errefuxiatuak hartzeko gaitasuna areagotu eta gizarteratze-prozesuak hobetzeko proposamen zehatzak» egiteko<sup>20</sup>.

Testuinguru horretan, «Esparru-dokumentua, Eusko Jaurlaritzarena, modu partekatuan bideratzeko errefuxiatuek Mediterraneoan bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailartekoa» (Eusko Jaurlaritzak, 2017) argitaratu zen 2017an. Dokumentu horretan zehazten duenez, «lau lankidetzeta-esparrutan» jardun nahi du Jaurlaritzak: «Espainiako Gobernuarekin eta Europako erakundeekin, foru- eta toki-erakundeekin, Espainiako gobernuren harrera-programak kudeatzen dituzten erakundeekin eta boluntarioekin eta gizarte zibil antolatuarekin» (ibid.: 3).

Horretarako, helburu hauek zehazten dira:

- «Proposamen zehatzen bidez, harrera-gaitasuna eraginkorki areagotzen laguntzea; Euskadin lehenengo, bai- na baita Espainiako Estatuan eta Europar Batasunean ere.
- Proposamen zehatzen bidez, Euskadira iristen diren eta nazioarteko babeska eskatzen duten pertsonen eta errefuxiatuen gizarteratze- eta autonomia-prozesuak hobetzea.
- Arintasunez eta aurrekontu-konpromisoz erantzutea unean uneko premia-egoerei eta deiei, ikuspuntu humanitariotik begiratuta.
- Bake-, justizia- eta berdintasun-premia handiena duten herrialdeetan prebentziozko erantzuna ematen duten lankidetzeta-proiektuak babestea eta garatzea.
- Euskadik ahotsa duen nazioarteko eremuetan eragitea, erantzun eraginkorrek eta partekatuak gauzatzeko konpromisoari laguntze aldera.
- Euskal gizartean, herrialdeko proiektu eta kultura gisa sustatzea giza eskubideak eta elkartasuna bultzatzera bideratzen diren harmonizazio- eta dibulgazio-ekimenak» (ibid.: 15).

Bestalde, autonomia-erkidego, foru-aldundi eta udalen eginkizunari dagokionez, 2018ko otsailaren 9ko ebazpen bat onartu zuen Idazkaritza Tekniko Nagusiak, nazioarteko babesaren eskatzaileak eta onuradunak hartzeko eta integrazteko ezarritako jardueren koordinazioa bermatzeko xedez, Eusko Jaurlaritzak eta Migrazioen Zuzendaritza Nagusiak sinatutako Hitzarmena argitaratzeko (MESS, 2018).

Hitzarmen horren bidez Auzolana proiektua jarri zen abian, «Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eta Espainiako Gobernuko Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Immigrazio eta Emigrazioko Idazkaritza Nagusiaren arteko jarduketan koordinazioa eta lankidetzeta bermatzeko, nazioarteko babeska eskatzen eta jasotzen duten pertsonen harrera eta integraziorako ezarritako prozedurak garatu eta egikaritzean, harrera-gizartean integrazteko prozesuaren alde egiteko helburuarekin» (ibid.: 21746).

## 3.2. ASILO-ESKATZAILEEI, ERREFUXIATUEI ETA ABERRIGABEEI BURUZKO DATUAK

### a) Errefuxiatuen kopurua munduan

Mundu osoan beren bizilekutik indarrez kanporatutako pertsonak 70,8 milioi zirela kalkulatu zuen UNHCRrek 2019an<sup>21</sup>. Horietatik:

- 41,3 milioi barne-desplazatuak dira
- 25,9 milioi errefuxiatuak dira: 20,4 milioi UNHCR-ren mandatupean daude eta 5,5 milioi, UNRWAn mandatupean

20 <https://www.euskadi.eus/errefuxiatuak/web01-s1lehbak/eu>.

21 <https://www.acnur.org/datos-basicos.html> [Azken kontsulta: 2019ko urriaren 23an].

- 3,5 milioi asilo-eskatzailleak dira

Beraz, munduko errefuxiatu guztien ia herena palestinarrek dira (5,5 milioi), eta horietatik 1,4 milioi inguru «Agentziak (UNRWA) Ekialde Ertainean kudeatzen dituen 58 errefuxiatu-kanpamentuetan bizi dira» 2019an, «bost eremutan banatuta: Gazako zerrendan, Zisjordanian –Jerusalem Ekialdea barne– Jordanian, Sirian eta Libanon»<sup>22</sup>.

UNRWAK erregistratutako pertsona guztien datuak aurkeztuko ditugu jarraian (2019: 1).

	Jordania	Libano	Siria	Zisjordania	Gazako Zerrenda	GUZTIRA
<b>Erregistratuta dauden palestinar errefuxiatuak</b>	2.242.579	475.075	560.139	846.465	1.421.282	5.545.540

## b) Errefuxiatu kopurua Espainiako Estatuan, EAEn eta hiru lurralde historikoetan

Azken urteotan, Espainiako Estatuako asilo-eskatzailen eta errefuxiatuen kopurua hogeai aldiz handitu da. CEAREk<sup>23</sup> emandako kopuruaren arabera, 2010ean 2.744 asilo-eskari aurkeztu ziren; 2010ean, berriz, 54.065. Esan beharra dago palestinar komunitatea aspaldidanik bizi dela Espainiako Estatuan, eta komunitate horretako kide askok errefuxiatu-estatusa daukate. Era berean, azken urteotan gora egin du Espainiako Estatuan asiloa eskatu duten palestinarren kopuruak. CEAREN (2019) *Más que cifras* [Zenbakiak baino gehiago] txostenaren arabera, izapidetzeko onartutako inoizko asilo-eskaeren kopururik handiena jaso zuen Espainiako Estatuak 2018an, 54.065; 2017an baino % 73 gehiago. Lautik bat onartu zituzten. Asiloa eskatzen duten kolektiboen artean zazpigarren postuan daude palestinarrek.

Azken urtean, Venezuelako nazionalitatea duten pertsonak izan dira eskaera gehien aurkeztu dituztenak. Siriar jatorriko eskatzailleak % 5 ziren (2.775) eta palestinar jatorrikoak, % 3,67 (1.985).

2017an, «handitu egin zen Espainiako Estatuak onartutako errefuxiatu-estatutuen kopurua, 2016ko 355etik 595ra, eta nagusiki Eritrea, Palestina eta Marokoko herritarrei onartu zitzaizen» (CEAR, 2019: 79).

UNHCR-ren urtekari estatistikoaren arabera (ACNUR, 2017), 2016an 12.989 «errefuxiatu, asilo-eskatzaille, barne-desplazatu, itzulitako errefuxiatu eta desplazatu eta aberrigabe» bizi ziren Espainiako Estatuan (ibid.: 61).

Zaila da haien jatorriari eta autonomia-erkidegoetan duten banaketari buruzko daturik eskuratzea, eta dauden datu bakarrak nahasi samarrak dira. Gizarte zibil antolatutako eta asiloaren eta errefuxiatuen alorrean eskumenak dauzkaten erakundeek datuak urteka sistematizatzen dituzte normalean, guztizko zenbakiak eman beharrean.

Azken urteotan aurkeztu eta onartu diren babes ofizialeko eskaeren kopurua, eta haien barruan palestinarrena, ageri da ondorengo taulan.<sup>24</sup>

Urtea	Aurkeztutako nazioarteko babes-eskaerak	Aldeko ebazpenak	Palestinaren aldeko ebazpenak (estatu behatzailea)
2014	5.952	3.620	90
2015	14.887	3.240	45
2016	16.544	6.855	355
2017	31.740	4.818	267

<sup>22</sup> <https://unrwa.es/mision/campos> [Azken kontsulta: 2019ko urriaren 23an].

<sup>23</sup> Datuok hemendik atera ditugu: CEAR, 2019.

<sup>24</sup> 2017-2018ko datuak Barne Ministerioarenak dira (<http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/oficina-de-asilo-y-refugio/datos-e-informacion-estadistica#informaci%C3%B3n%20estad%C3%ADstica%20en%20formato%20reutilizable>) eta 2014-2016koak, ACCEMenak (<https://www.accem.es>).

2018	55.668	3.173	209
------	--------	-------	-----

EAEn dauden errefuxiatuen kopuruari dagokionez, oso zaila da datuok lortzea. Errefuxiatuak Estatu barruan mugitu ohi direnez, eta datuak babesteko estrategia dela eta, ez dago jakiterik lurralde bakoitzean dauden migratzaileen artean zein diren errefuxiatuak edo asilo-eskatzaileak. Barne Ministerioak argitaratutako *Asilo en cifras*<sup>25</sup> [Asiloari buruzko kopuruak] argitalpenak bildutako datuak eskuragarri ditugu, ordea. Aztertutako serie historikoko zenbait urtetako datuak xehekatuta ageri dira bertan.

Urtea	EAEn aurkeztutako nazioarteko babes-eskaerak	Palestina (estatu behatzailea)
2014	99	1
2015	163	4
2016	500	10
2017	970	Ezezaguna

### c) Espainiako Estatuan, EAEn eta hiru lurralde historikoetan dauden palestinar jatorriko edo Ekialde Ertaineko errefuxiatuen kopurua. Bilakaera eta profila

EAEn dauden palestinar jatorriko errefuxiatuen kopurua zein den jakiteko bide egokiena hau da: EAEn aurkeztu diren nazioarteko babes-eskaeren kopurua aztertzea, jatorriaren arabera, goiko taulan ikusten den moduan. Ezinezkoa da pertsona horiei buruzko datu zehatzagorik lortzea edo EAEn bizi diren palestinarren kopuru zehatza jakitea (nahiz eta errefuxiatuak edo asilo-eskatzaileak ez izan), bi arrazoi direla eta: palestinarrek ez direlako EAEn bizi diren kanpotarren arteko talderik handienetakoa eta, horrekin batera, ez daudelako herrialde gisa aitortuta Euskal Estatistika Institutuak (Eustat) erabilitako kode eta izendapenetan. Horrela, bada, gaur egun ezinezkoa da jakitea palestinar jatorriko zenbat pertsona bizi diren EAEn, errefuxiatu-estatusa izan ala ez.

### d) EAEn errefuxiatuekin jardueraren bat garatzen duten eragileak

Errefuxiatuak hartzeko egitasmoetan diharduten erakunde, eragile eta programen zerrenda laburra aurkezten dugu jarraian, ikerketa honetarako berriaz osatua<sup>26</sup>.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia, programa eta jarduera desberdinen bidez, hala nola:

Sendotze Sistema Osagarria.

- Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Mahaia, Eusko Jaurlaritzako sail desberdinetako ordezkariak, hiru foru-aldundiek, EAeko hiru hiriburuek, EUDELeK eta errefuxiatuen harreraz eta integrazioaz arduratzen diren erakunde sozialek osatua.
- Auzolana I: EAEko zazpi udalerrirekin (Amurrio, Galdakao, Getxo, Laudio, Portugalete, Tolosa eta Zarautz) koordinatzeko programa, ohiko harrera-sistema indartzeko. Behetik gorako erantzuna egituratzen saiatzen da, oinarriko erakundeek hasiera-hasieratik parte hartzen dutela bermatzeko.
- Auzolana II: babes komunitarioa. Herritarren, GKE-en eta interesa duten beste talde batzuen (talde erlijiosoak eta udal-agintariak, esaterako) esku-hartzea eta auto-antolakuntza. Ostaturia, lana eta babes emozionala

<sup>25</sup> <http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/oficina-de-asilo-y-refugio/datos-e-informacion-estadistica#%C3%BAltimo%20datos>.

<sup>26</sup> Azterketa diagnostiko honetan lagundu duen aholkulari-taldeak berriaz osatutako konpilazioa duzue, baina baliteke eragile eta erakunde gehiago egotea jarduera-esparru honetan lanean.

ematen zaie errefuxiatuei, bertan errotzen laguntzeko. Lehen esperientzia pilotua UNHCR-ren, Cáritasen eta Euskadiko Jesuiten Plataformarekin lankidetzan egin da.

- Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL). Errefuxiatuak hartzeko beharrezkoak diren ekintzak modu bateratuan jorratzeko koordinazio-batzorde operatiboko kidea da, Eusko Jaurlaritzarekin eta foru-aldundiekin batera. Errefuxiatuen harreraz arduratzen diren gizarte-erakundeekin erakundearteko ekintza koordinatzen duen Gizarte Batzordean ere parte hartzen du<sup>27</sup>.
- Foru-aldundiek eta udalek, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan edo beste zenbait modalitatetan, migratzaileak hartzeko jarduerak garatzen dituzte haiei zerbitzuak eskaintzeko.
- CEAR Euskadi. Errefuxiatuen harreraz arduratzen da, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren «Nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunak hartzeko eta integratzeko sistemaren» barruan.
- Gurutze Gorria. Nazioarteko babes-eskatzaile eta -onuradunen harrera eta integrazioan aritzen da eta lana bilatzen laguntzen die.
- Bakearen Aldeko Mugimendua. Aholkularitza juridikoa eta harrera eskaintzen ditu.
- UNHCR. Harrera eta laguntza eskaintzen ditu eta zenbait programatan parte hartzen du Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, Auzolana II programan, adibidez.
- Cáritas. Informazioa eta orientazioa ematen ditu; laguntza eta prestakuntza eskaintzen ditu harrera-gizarteko trebetasun sozialak garatzeko; bertakoekin elkartzeko espazioak sortzen ditu; ingurunea eta eskuragarri dauden baliabideak ezagutarazten ditu; etxebizitzak aurkitzen, egokitzen eta hornitzen laguntzen du, Eguzkilore Fundazioarekin lankidetzan. Zenbait programatan parte hartzen du Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, Auzolana II programan, adibidez.
- Euskadiko Jesuiten Plataforma. Zenbait programatan parte hartzen du Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, Auzolana II programan, adibidez.
- Emaus Gizarte Fundazioa. Besarkadak proiektua garatzen du, Gipuzkoako migratzaile eta errefuxiatuei integratzen laguntzeko, trebetasunak eta ezagutzak trukatzeko prozesuen bidez.

### 3.3. EUSKAL HERRITARREK ERREFUXIATU ETA MIGRATZAILEEI BURUZ DAUZKATEN PERTZEPZIO, ESTEREOTIPO ETA JARRERAK

#### a) Aurreiritzien, estereotipoen eta diskriminazioaren arteko aldea

Tarteka nahasten badira ere, *aurreiritzia*, *estereotipoa* eta *diskriminazioa* kontzeptu desberdinak dira. Beatriz Montes Berges-ek ematen duen azalpena aipatuko dugu hemen, luzea izan arren oso argigarria delako.

«Talde sozial batekiko edo talde horretako kideztat jotzen den pertsona batekiko jarrera negatiboa da **aurreiritzia** (...). Beste jarrera batzuek bezala, aurreiritziek hiru osagai dituzte: **osagai kognitiboa (sinesmenak)**, **afektiboa (emozioak)** eta **jokamoldeari dagokiona (portaera)**. Hiruek ere elkarren artean nolabaiteko erlazioa duten arren, independente samarrak dira eta neurri desberdinak eskatzen dituzte, beraz.

**Estereotipoak** aurreiritzien osagai kognitiboaren ordezkari gisa kontzeptualizatzen dira askotan (...). Gaertner-ek (...) **talde jakin batek dauzkan ezaugarriei buruz adostutako sinesmen-multzo** gisa definitu zituen estereotipoak. Talde etnikoetz ari zela, Bringham-ek honela definitu zituen

<sup>27</sup> <http://www.eudel.eu/destacados/refugiados/?lang=eu>.



estereotipoak: "talde etniko bati buruz egiten den orokortzea da, behatzaile batek bidegabetzat daukan ezaugarri bat egozten zaiolarik talde horri".

**Diskriminazioak**, berriz, aurreiritziari lotutako jokamoldearekin du zerikusia, haren kanpo-adierazpena da, beraz (...). **Aurreiritziaren ondorioz pertsona edo talde bati ematen zaion tratu kaltegarri gisa kontzeptualizatu izan dute diskriminazioa soziologoek**. Beste autore batzuek diskriminazioaren garrantzia azpimarratzen dute, eta esaten dute aurreiritziak diskriminazioa eragiten dutenean soilik direla garrantzitsuak (...).

Aldagai askok eragiten dute diskriminazioaren agerpenean eta aldagai horien arabera handiagoa edo txikiagoa izango da jokamolde diskriminatzailea. Halakorik gertatzea eragin dezaketen aldagaien artean lehia edo gatazka daudeneko egoerak nabarmendu behar ditugu, eta, bereziki, parte hartzen duten taldeak estatus aldetik egoera desberdinean daudeneko kasuak. Testuinguru horretan, boterearen auziaren konponbide gisa agertzen da diskriminazioa» (Bontes Berges, 2008: 1-2).

Aurreiritziek, beraz, hiru osagai dituzte: kognitiboa (estereotipoen bidez gauzatzen dena askotan), afektiboa (talde estereotipatuarekiko emozio negatiboen bidez gauzatzen dena maiz) eta portaerari dagokiona (talde estereotipatuaren diskriminazioaren bidez adierazten dena).

Pierre-André Taguieff-ek dioenez, talde sozial jakin batzuen gainean eraikitako iritzi, sinesmen, aurreiritzi eta estereotipoak gizarte jakin batean eta testuinguru historiko jakin batean eraginik izango badute, beharrezkoa da ideia horiek bultzatzen dituzten doktrina edo teoria gisa aurkezten diren «eraikuntza ideologikoen sare» bat egotea (Taguieff: 1998: 28). Teoria horiek «jokabide eta praktika sozial eta funtzionamendu instituzional baztertzailerak (besteak alboratzea, diskriminatzea, isolatzea, jazartzea, etab.)» justifikatzen dituzte, azkenerako. Pertzepzio, ideia eta aurreiritzien sare hori gabe arrazakeriak, egun ezagutzen dugun moduan, ez du indarririk. Kolektibo bati buruz dauden aurreiritziak eta ideia horietatik eratorritako praktika diskriminatzaileak desegiteko sareak errealitate sozialaren ertz ugariak aintzakotzat hartu beharko dituela esan nahi du horrek.

## b) Estereotipoaren eraikuntza

Estereotipoen jatorriari buruzko teoria hiru ikuspuntutatik landu daiteke:

- a) Psikoanalitikotik
- b) Soziokulturaletik
- c) Soziokognitibotik

Ikuspuntu **psikoanalitikoaren** arabera, pertsonak inkontzienteki dauzkaten mekanismoentzako erantzunak eskaintzen dituzte estereotipoek, talde jakin batzuei buruzko aurreiritziak justifikatzeko. Horrela, bada, babes kontzientearen «behar inkontzienteak desplazatzeko eta asebetetzeko» babes-hesi gisa funtzionatzen dute (González Gabaldón, 1999: 80).

Ikuspuntu **soziokulturalak**, berriz, gizarte jakin baten eraikuntza historikoan kokatzen du estereotipoen sorrera, eta, aldi berean, arau sozial jakin batzuk egokitzea eta sortzea ahalbidetzen du. Gizartea zenbait taldetan estratifikatuta egoteak areagotu egiten ditu besteari buruz dauzkagun aurreiritziak eta desberdintasunak. Ondorioz, «beste talde» bat egoteak arriskuan jartzen du gure taldearen biziraupena, ezagutzen dizkiogun ezaugarriekin. Horri jarraiki, estereotipoek gauza bihurtzen dituzte taldetik kanpo daudenak nolabait ere, eta ezaugarri uniformeak egozten dizkie.

Azkenik, ikuspuntu **soziokognitiboarentzat**, errealitatea hautemateko modu bat da estereotipoa. «Gizaki-talde bati buruz dauzkagun ezagutza, sinesmen eta itxaropenak biltzen dituen egitura kognitiboa» da. Informazio-prozesamenduan oinarrituta aztertzen ditu estereotipoak, arreta jartzeko, kodifikatzeko, buruan gordetzeko eta berreskuratzeko prozesuei erreparatuz, eta berezko mugen ondorioz informazio-prozesamenduan zehar gertatu

ohi diren isuriak azpimarratuz. Beraz, talde jakin batzuei tasun jakin batzuk egoztearen ondorioz sortzen dira estereotipoak. Gizaki-talde jakin batzuei buruz dauzkagun sinesmenak eta itxaropenak biltzen dituzten egitura kognitiboak dira (Suría, 2010: 5-6).

Estereotipoek eginkizun sozial bat betetzen dute, beraz, hala **maila indibidualean nola kolektiboan**. Maila indibidualean «balio funtzional eta egokitzaila dute, mundua modu sinplifikatu, ordenatu eta koherentean ulertzen laguntzen baitute, eta etorkizuneko gertakariak modu jakin batean iragartzeko datuak ere eskaintzen dituzte» (González Gabaldón, 1999: 80).

Baina badute rol kolektibo bat ere: fenomeno konplexuak, jokabide diskriminatzaileak eta are norberaren taldekoak ez diren pertsonen aurkako ekintza bortitzak ere ulertzen laguntzen digute. Era berean, errealitatearen dimentsiorik garrantzitsuenetan norberaren taldearen ezaugarriei balio handiegia ematea eta beste taldeari gizarteak gutxiago balioesten dituen balioak egozteak dakar. Azken hori oso garbi ikusten da genero-estereotipoetan. Estereotipo horien arabera, gizonak gaitasun handiagoa omen dute jarduera produktiboetarako eta emakumeek, berriz, erreproduzio-jardueretarako.

Azkenik, estereotipo horiek sozializazio-esparruen bidez barneratzen dira. Familia dugu lehen sozializazio-esparrua, zalantzarik gabe, baina hezkuntza formal nahiz informaleko espazioek ere garrantzi handia daukate. Heda-bideek ere, eta azkenaldian sare sozialek, berebiziko garrantzia daukate, halaber.

### **c) Migratzaileei buruzko estereotipo arruntenak**

Ikuspegik (Immigrazioaren Euskal Behatokia) EAEn immigrazioari buruz daukagun pertzepzioaren inguruko barometroa argitaratzen du urtero. 2018an argitaratutako txostenaren arabera (Ikuspegi, 2019), hauek dira migratzaileei buruz dauzkagun estereotipo/zurrumurru nagusiak (maiztasun handienetik txikienera):

1. Gizarte-babeseko sistemaz baliatzen dira
2. Gehiegi aprobetxatzen dira DSBEz, eta laguntza gehienak haientzat dira
3. Gizarte-laguntzetatik bizi dira
4. Matxismoa areagotzen dute
5. Langabezia areagotzen dute
6. Segurtasunik eza eta delinkuentzia dakartzate
7. Jasotzen dutena baino zerga gutxiago ordaintzen dituzte
8. Osasun-sistemaz abusatzen dute
9. Ez dute integratu nahi
10. Soldatak jaitzarazten dituzte
11. Babes ofizialeko etxebizitzak haientzat dira
12. Lana kentzen digute
13. Ikasgeletako hezkuntza-maila jaisten dute
14. Haien praktika erlijiosoek arriskuan jartzen dute gure bizimodua
15. Ez dituzte arauak ezagutzen eta ez dute gizabiderik
16. Espazio publikoak okupatzen dituzte

### **d) Bereziki errefuxiatuekin lotuta dauden estereotipo eta aurreiritziak**

Nahiz eta askotan migratzaileen eta errefuxiatuen inguruko estereotipoak eta aurreiritziak berdinak izan, zenbait berezitasun aurki ditzakegu batzuen eta besteen artean (UNHCR, 2018)<sup>28</sup>. Jendeak errefuxiatuei buruz dauzkan aurreiritziak aipatzen dira UNHCR-ren txosten horretan. Dena den, zaila da jakitea aurreiritzia errefuxiatu kondizioarekin edo etorkin izatearekin erlazionatuta ote dagoen. Hona hemen aurreiritzien zerrenda:

- 1. Gaixotasunak ekartzen dituzte:** Europan gaixotasun infekziosoek izandako gorakada etorkinen presentzia handiagoari zor zaiola esaten da. Osasunaren Mundu Erakundeak publikoki ukatu zituen iritzi horiek 2015ean.
- 2. Krimen-kopurua areagotzen dute:** aurreiritzi hori bera ageri zen Ikuspegik immigrazioari buruz aurkeztutako zerrendan ere.
- 3. Terrorista infiltratuak dira:** aurreiritzi hori erlijio musulmaneko errefuxiatuei zuzentzen zaie. Babes bila da-biltzan pertsonen artean eraso terroristak egiteko asmoa daukatenak infiltratzen direla esaten dute zenbaitek. «Nahiz eta, fenomeno horixe izan, hain zuzen, Ekialde Hurbileko errefuxiatu asko, gehienak musulmanak, beren herritik alde egitera bultzatu zituena. AEBko Terrorismoaren aurkako Zentro Nazionalaren arabera, mundu osoko terrorismoaren biktimen % 82 eta % 97 artean musulmanak dira» (idem).
- 4. Estatuaren diru-laguntza gehiago jasotzen dituzte:** aurreiritzi hori bera ageri zen Ikuspegik immigrazioari buruz aurkeztutako zerrendan ere. Baieztapen horrek errealitatean inolako oinarririk ez duela frogatu den arren, horixe da desagerrarazten zailena.
- 5. Europaren islamizazioa:** erlijio musulmaneko errefuxiatuen etorrerarekin dago lotuta, eta Europan soilik erlijio musulmaneko herritarrentzako hiriak sortzen ari zirelako zurrumurrua zabaltzea eragin zuen<sup>29</sup>.

#### e) Estereotipoak eta aurreiritziak diskriminazio bihurtzen direnean

Gorago esan dugunez, jokamolde edo portaera bat dakarren aurreiritzia da diskriminazioa. Kanpotik datozenei zenbait eskubide ukatzen zaizkienean (hala zuzenean nola zeharka) bertakoak eta kanpotarrak (etorkinak zein errefuxiatuak) bereizteko sistema eratzen da. Diskriminazio horrek areagotu egiten du bazterketa; ondorioz, sakondu egiten dira desberdintasunak eta estereotipo eta zurrumurruen zirkulua elikatzen da.

Michel Wieviorka-k (1994) «bazterketaren arrazismoaz» hitz egiten du (ibid.: 42). Wieviorkaren esanetan, hiru bazterketa motaren bidez azaleratzen da arrazismoa: soziala, politikoa eta kulturala. Arrazismoak bultzatzen duen bazterketa sozialak «biktimak harreman sozialetatik kanporatzea» dakar (idem); bazterketa politikoa, berriz, «talde diskriminatuei herritar bihurtzea galaraziz» gauzatzen da (ibid. 43.); diskriminazio kulturalak, azkenik, «muzin egiten dio etniaren, erlijioaren edo memoriaren arabera definitutako gutxiengo-talde presentziak dakarren kulturantzatasunari edo, alderantziz, haien identitate espezifikoan ixten dituzte [kanpotarrak], kultura nagusian parte-hartzea galaraziz» (idem.). Estereotipoak bazterketaren azken modalitate horretan islatzen dira, nagusiki: talde diskriminatuaren zenbait ezaugarri berrestea eskatzen du eta berrespen horrek talde nagusiarekin bateraezina izatea bultzatzen du, nolabait ere.

Ondorioz, «bere biktimak bizitza kolektibotik baztertzeko joera duen logika bati lotuta egon ohi da arrazismoa. Aldi berean gutxieneko inklusio bat eskaintzen die, haiek erabili ahal izateko moduan berdintasunik gabeko moldeetan» (ibid.: 45).

Wieviorkari jarraiki zera esan dezakegu: etorkinek, oro har, eta errefuxiatuek, bereziki, nolabaiteko inklusioa lortzen dute harrera-gizarteetan, baina, aldi berean, bere horretan irauten dute kultura hegemonikoarekiko mendetasunezko harremana indartzen eta betikotzen duten joera batzuek.

Diskriminazioari dagokionez, migratzaileek eta errefuxiatuek pairatzen dituzten diskriminazio motak aipatzen ditu CEAREk 2016an argitaratu zuen Espainiako etorkin eta errefuxiatuen diskriminazioari buruzko txostenak:

28 <https://eacnur.org/blog/prejuicios-sociales-falsos-sobre-los-refugiados/>.

29 <https://www.bloomberg.com/news/articles/2015-01-14/debunking-the-muslim-nogo-zone-myth>.

**Diskriminazio zuzena**

Pertsona bat, "bere arraza edo etnia dela eta, beste pertsona bat antzeko egoeran tratatu ohi dutena, tratatu izan dutena edo tratatuko dutena baino okerrago tratatzen duten kasuetan" gertatzen da.

**Zeharkako diskriminazioa**

Pertsona guztiei modu neutroan planteatu eta aplikatzen zaien xedapen, irizpide edo praktika batek talde etniko bat, bere egoera edo ezaugarri bereziengatik, desabantailan jartzen duenean gertatzen da.

**Jazarpen diskriminatzailea**

Diskriminaziorako edozein arrazoi oinarritzat hartuta, pertsona baten edo haren taldearen duintasunaren kontra egiteko eta ingurune larderiatsua, erasotzailea, laidogarria, umiliagarri edo iraingarria sortzeko helburua edo ondorioa daukaten portaerak dira halakoak.

**Asoziaziozko diskriminazioa**

Pertsona batek diskriminazioa eragiten duten arrazoiak jasaten dituen norbaitekin daukan loturaren-gatik tratatu diskriminatzailea jasaten duenean gertatzen da.

**Akatsezko diskriminazioa**

Diskriminazioa jasaten duen pertsonaren ezaugarriei buruzko okerreko balorazioak eragiten duena da.

**Diskriminazioa anizkoitza**

Diskriminazio-arrazoi batek baino gehiagok bat egiten duenean gertatzen da, diskriminazio mota zehatz hau» (CEAR, 2016: 4-5).

Txosten berean, errefuxiatu eta etorkinen diskriminazio-arloak zehazten dira:

- **Lan egiteko aukera:** etorkin eta errefuxiatu gehienek ezkutuko ekonomian egiten dute lan, edo aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratuekin. Haien langabezia-tasa bertakoena baino handiagoa da, emakumeen kasuan bereziki, asko etxeko langile aritzen baitira, oso baldintza prekarioetan.
- **Etxebizitza eskuratzea:** «Etorkin gehienak alokairuan bizi dira Espainian. Jabetza mota hori bat dator herrialde osoko etxebizitza-merkatuarekin, nolabait ere. Espainiako Estatuak etxebizitza-eskubidea zenbateraino bermatzen duen eta horrek etorkinen eta errefuxiatuen artean daukan eragina baloratu gabe, hipoteka-krisiak gehien jotako taldeetako bat etorkinak izan zirela azaleratu zuen Human Rights Watch-en txosten batek. Hipotekak Kaltetutakoen Plataformaren kalkuluetan ere pisu handia daukate etorkinek, eta herenak hipoteka-betearazpena jasan omen du» (ibid.: 11).
- **Hezkuntzarako eskubidea:** migratzaile eta errefuxiatuei ez zaie haurrak hezkuntza-sisteman kulturalki integratzen laguntzeko tresnarik eskaintzen. Bestalde, atzerritar jatorriko haurrak eskola publikoetan pilatzen dira nagusiki: eskola pribatuetan halako hiru daude publikoetan. CEAREN txosten beraren arabera (13. or.), Haur Hezkuntzako eskola publikoko ikasleen % 11,74 atzerritarrak dira, baina eskola pribatuetan kopuru hori % 4,32ra murrizten da. Era berean, Batxilergora iristean nabarmen murrizten da ikasle atzerritarren kopurua. Bigarren Hezkuntzan (hezkuntza publikoaz ari gara) ikasle atzerritarrak % 11,89 dira, baina Batxilergoan % 8 besterik ez.
- **Osasunerako eskubidea:** migratzaileek osasun-sistema erabiltzeko duten eskubideari dagokionez 2012an egindako aldaketek eragin handia izan dute haien ongizatean. Era berean, osasun-sistema sendoa edukitzea ezinbestekoa da errefuxiatuen behar berezietan erantzuteko, haietako askok beren ongizatean eta osasunean eragin larria duten bizipenak eta ibilbideak izan baitituzte. OMEk eta UNHCREk gida bat argitaratu zuten 2015ean<sup>30</sup>. Bertan, alor psikosozialeko eta osasun mentalaren eremuko behar eta baliabideen ebaluazioa

30 [https://acnur.org/5b50c86b4#\\_ga=2.55134446.438324485.1561539085-1684610206.1559206578](https://acnur.org/5b50c86b4#_ga=2.55134446.438324485.1561539085-1684610206.1559206578).

egin eta testuinguru humanitarioetarako tresnak zehaztu zituzten, larrialdi humanitarioko egoeran dauden pertsonen osasun-laguntza egokia emateko.

#### f) Zurrumurruen aurkako estrategia

Estereotipoei eta aurreiritziei sarean aurre egiteko tresnarik hedatuenetako bat dugu *zurrumurruen aurkako estrategia* delakoa. Zurrumurruren teoria Allport-ek eta Postman-ek (1945) garatu zuten, zurrumurruen eraikuntzaren eta hedapenaren inguruan gizarte-psikologiako esperimentu batzuk egin eta gero. Zurrumurruren hedapenarekin zerikusia duten hiru prozesu identifikatu zituzten:

- a) Berdintzea: zurrumurrua ahoz aho zabaldu ahala, sinplifikatuz joaten da eta jatorrizko mezuaren xehetasunak eta konplexutasuna galtzen ditu bidean.
- b) Zorroztea: prozesu berean zurrumurruren zenbait ezaugarri zorrozten dira, eta beste batzuk ezabatzen.
- c) Barneratzea: zurrumurrua jasotakoan, itxuraldatu egiten da hartzaileen aurreiritzi eta interesekin bateragarri egiteko moduan.

Zurrumurruren mezua sinpletuz doa pixkanaka, eta zabaltzen duten taldeen aurreiritzien galbahetik igaro ahala gero eta esajeratuagoa bihurtzen da. Allporten eta Postmanen esanetan (1945), egiazkoa izateko inolako frogarik gabe ahoz aho zabaldu ohi den sinesmen espezifiko bat da zurrumurrua. Zurrumurrua zabaltzen dutenak, baina, sinetsita daude zabaltzen ari diren horretan badagoela egia puska bat, behintzat.

Zurrumurruen aurkako estrategiak ustezko egia horiek desegitean oinarritzen dira: zurrumurruek errealitateko datuekin alderatzen dituzte, baieztapen horiek okerrak direla ikusarazteko eta hedapen-katea errotik mozteko helburuz.

Ugariak dira Estatuko lurralde askotan eta Europa osoan aplikatzen diren zurrumurruen aurkako estrategiak. *Manual antirrumorres 2018* [Zurrumurruen aurkako Eskuliburua] (De Torres Baradel, 2018) lanean jasotako estrategiari egingo diogu erreferentzia hemen. Eskuliburu horren arabera, *zurrumurruen aurkako estrategia* «gizarte-aldaketako prozesu bat da, epe luzekoa». Diskriminazioa saihestea, elkarbizitza hobetzea eta aniztasunaren potentziala aprobetxatzea dira strategiaren helburuak, eta gizarte osoak eta interes bereziko taldeek dauzkaten pertzepzio, jarrera eta portaeren aldaketa bultzatzen da, horretarako» (ibid.: 7).

Zurrumurruen aurkako ekintzak bi fasetan aplikatzea proposatzen du De Torresek:

- Abian jartzeko fasea
- Aplikatzeko fasea: zurrumurruen aurkako ekintzak

Abian jartzeko fasean ekintza hauek lantzen dira:

- Prestaketa-ekintzak
- Zurrumurruen diagnostikoa
- Funtsezko eragile konprometituek inplikatzeko: horiek osatuko dute zurrumurruen aurkako etorkizuneko sarea
- Zurrumurruen aurkako eragileak prestatzea

Ikusten denez, egin beharreko lana ez da datuak ematera mugatzen; eragileak eta prozesuak sustatzeko estrategia parte-hartzailea garatu beharra dago, zurrumurruek zapuzteko.

Estrategia aplikatzeko faseak alderdi hauek biltzen ditu:

- Komunikazio- eta hedapen-estrategia

- Aliatu berriak erakartzea: sarea handitzea
- Ezagutza eta pentsamendu kritikoa
- Parte-hartzean oinarritutako sentsibilizazioa eta ahalduntze-ekintzak
- Elkarrekintza positiboa sustatzea
- Aurreiritziei eta zurrumurruei aurre egitea
- Zurrumurruen aurkako sormen-laboreak
- Zurrumurrurik gabeko espazioak
- Eragin-maila berrietara iristea
- Lankidetzeta eta trukea beste hiri batzuekin eta proiektu globalarekin

Eskuliburua udal-gobernuztat prestatu zen bereziki, eta hirietako eragile ugariak inplikatzen duen estrategia proposatzen du: «udalak ezin du berak bakarrik arduratu aurreiritzien aurka borrokatzeko eta zurrumurruek desegiteko zeregin konplexuaz. Estrategia eraginkorra eta iraunkorra izango bada, era guztietako aliatu sozialak eta pertsona konprometituek inplikatzen behar dituzte, pertsonak estigmatizatzen dituzten eta haien oinarritzko eskubiak arriskuan jartzen dituzten aurreiritziak murriztu eta zurrumurru faltsuen katea hautsi ahal izateko» (ibid.: 18).

EAEko zenbait ekimen sozial eta instituzional 2011. urtean hasi ziren «zurrumurrurik ez» tankerako jarduerak eta programak lantzen<sup>31</sup>. Eusko Jaurlaritzak, adibidez, Zurrumurrua Gelditu ekintza jarri zuen abian 2011n, eta orduz geroztik egindako lan etengabeari esker, EAEn zurrumurruen aurka diharduten ekimen ugariak lotu ahal izan dira. Bai eragile instituzionalek bai eragile sozialek aurreiritziei, estereotipoei eta zurrumurru faltsuei aurre egiteko proiektuak bultzatu dituzte EAEko hainbat esparru eta lekutan. Estatu-mailako eta nazioarteko antzeko ekimenekin ere loturak eta lanerako esparruak garatu dira, eta halakoek Europako Kontseiluaren eta Europako Integrazio Funtzaren laguntza handia jaso dute.<sup>32</sup>

31 Adibide batzuk: Tolosaldea Garatzen Garapen Agentziaren ekimenak eta programak; Aduna, Alegia, Alkiza, Anoeta, Asteasu, Arrasate, Basauri, Bilbo, Donostia, Eibar, Errenteria, Getxo, Hernani, Ibarra, Larraul, Ordizia, Pasaia, Portugalete, Tolosa, Zarautz, Billabona eta Gasteizko udalenak; Accem, Movilitik Kultur Berrikuntzarako Elkartea, Cear Euskadi, Cáritas Bizkaia, Entretanto Entretante Bitartean Jolasean, Ellacuría Fundazioa, Sos Arrazakeria Gipuzkoa, Matiz Elkartea, Amekadi, Harresiak Apurtuz, Fundación Educación y Cooperación - EDUCO, Munduko Medikuek eta Getxoko Etorikinen Plataforma Federazioa elkarrekin bultzatutakoak.

32 Informazio gehiago eskuratzeko, ikus <http://zurrumurrurikez.eus/>.

## 4. DIAGNOSTIKO-PROZESUAREN DESKRIBAPENA

### 4.1. METODOLOGIA

Euskal herritarrek Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuei buruz duten pertzepzioaren diagnostikoa osatzeko ikerketan hiru teknika desberdin uztartu ditugu, informazio kuantitatiboa nahiz kualitatiboa esku-ratzeko. Honako metodologia hauek erabili ditugu: web-panela (807 inkesta), elkarrizketak gaian adituak diren edo mota horretako populazioekin harremana duten pertsoneri (hogei elkarrizketa) eta eztabaida-talde fokalak (hiru talde fokal).

Ikerketako landa-lanean erabilitako teknikei buruzko xehetasunak aurkeztuko ditugu jarraian.

#### 4.1.1. Metodologia kuantitatiboaren diseinua

*Euskal herritarrek Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuei buruz duten pertzepzioaren diagnostikoa, generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik* izenburuko ikerketa hau egiteko, web-galdeketa teknikan oinarritutako diseinu metodologiko kuantitatiboa erabili dugu.

#### a) Web-galdeketa: aukeratzeko arrazoiak

EAEn bizi diren hamasei urtetik gorako pertsonen unibertso osoa hartuta, besteak beste haien maila sozioekonomiko, adin-tarte, jatorri, bizileku, erlijio eta ideologia ordezkatzen dituen lagina da panel bat.

Ohiko ikerketa soziologikoetan leku batean bizi diren pertsonak ausaz aukeratu ohi dituzte (normalean telefonoz), baina panelaren bidezko metodologiaren kasuan, aukeratutako populazio-talde zabalak aldeztatik adierazi du ikerketan parte hartzeko interesa eta konpromisoa. Horri esker bermatuta dago emaitza kuantitatiboa, alegia, gure lagina horrelako ikerketetan eta azterketetan parte hartzeko prest dauden pertsonen osatuta dagoela. Pertsonen direktorio hori kudeatzeari deritzo *panela* eta parte-hartzaileei, berriz, *panelistak*.

Gure ikerketaren helburuei ongien erantzuten dion teknika web-galdeketa da, jarraian azaltzen diren arrazoiak direla eta:

- i. Lehenik eta behin, ikerketa honen helburuen eta aztergaiaren ezaugarriengatik. Jarrerak, aurreiritziak eta estereotipoak aztertu behar direnez, inkestatuek testu batzuk patxadaz irakurri eta gogoeta egin ondoren erantzun beharko dituzte.
- ii. Ildo horretatik, telefono bidezko galdeketa ez da egokia jendeak patxadaz erantzuteko, eta ez da oso eraginkorra adin-tarte eta belaunaldi desberdinetako taldeetara iristeko. Gainera, ezinbestekoa da inkestatuei patxadaz erantzuteko moduko testuingurua eskainiko dien teknika bat erabiltzea, gutxieneko gogoeta eskatzen duten iritziak emateko egokiagoa.
- iii. Testuinguruari buruzko arrazoi horiez gain, web-galdeketek beste aukera hauek ematen dituzte:



- a) ... aurrez aurreko eta telefono bidezko inkestetan baino galdera-sorta luzeagoak presta daitezke.
- b) ... inkestak gogoeta eta arrazoimena erabil ditzakete erantzuteko garaian, kontuan izanik jarrera, aurreiritzi eta estereotipoen inguruan ematen dituzten erantzunetan sakontzea dela ikerketa honen xedea.
- c) ... erantzunen kopururik eta kalitaterik handiena eskaintzen duen teknika da eta egindako galderei ganoraz eta behar besteko interes eta patxadarekin erantzuteko aukera ematen du.
- d) ... web-galdekaketako parte-hartzaileak dira erantzuteko behar duten denbora kontrolatzen dutenak. Web-galdeketak nork bere erritmoan osatzen ditu; teknika kuantitatiboek (telefonoz nahiz aurrez aurre), ordea, ez dute halako autonomiarik ematen. Horri zor zaio, hain zuzen, off-line tekniken artean gehien erabiltzen diren bi teknika horiek daukaten gaitzespen-maila handia.

Adimen Investigación arduratu da ikerketaren alde kuantitatiboaz. Egitasmoko web-galdeketak egiteko beharrezkoak diren bi elementuak dauzka Adimenek: web-panel bat eta inkesta-prozesua programatzeko eta jarraipena egiteko lan-talde bat.

Hauek dira **web-galdetegiaren programazioaren** ezaugarri nagusiak:

- Azterketan parte hartzeko aukeratutako panelistei mezu bat bidaltzen zaie **e-posta pertsonalera**: bertan azterketaren aurkezpen txostre bat jasotzen dute, eta gure zerbitzarian dagoen galdera-sortarako esteka zuzena.
- Galdetegiaren ingurunea modu pertsonalizatuan diseinatzen da, bezeroaren **irudi korporatiboa txertatuz (kustomizazioa)**.
- Galdetegia **ingurune atsegin, bisual eta intuitiboan** programatzen da, gainera:
  - a) Galdera-sortako galderak pantaila banatan agertzen dira. Pantaila galderaren neurrira egokitzen da, eduki guztia ikusteko gora eta behera ibili behar ez izateko moduan.
  - b) Galdetegia osatu ahala, inkestak atzera eta aurrera joatea daukate, erantzunen bat aldatu nahiko balute ere.
  - c) Aurrera egiteko beharrezkoa da derrigorrezkotzat markatutako eremuak betetzea.
- Era guztietako **estimulu bisualak** (irudia, bideoa...) sartzeko aukera dago.
- Lehenetsuna ematen zaio panelistak **bere denbora** kudeatzeko autonomiarik:
  - a) Galdetegia zenbait saiotan osatzeko aukera ematen da, galdera guztiei aldi bakar batean erantzun behar izan gabe.
  - b) Erabilitako aplikazioak saio batetik bestera gordetzen du sartutako informazioa eta inkestak ez du aurreko saioetan betetako eremuetara itzuli behar, beraz.
- Landa-lanaren aurrerapenak (inkesta osatuak, osatu gabeak, kuoten kontrola...) **denbora errealean monitorizatzeko** (Dashboard) aukera.
  - a) Aginte-taularen bidez **herrialde bakoitzean kuotak (adin-taldeak, generoa...)** zenbateraino bete diren jakitea dago, eta bukatuta daudenak itxi egin daitezke.
  - b) Jarraipen horri esker, galdetegi osagabeak osatzeko eska dakioke jendeari (barneko e-mail bat bidaliz), kuotak itxi beharra egonez gero, esate baterako.



## b) Galdetegiaren edukiaren diseinua

Ikerketa-prozesuan parte hartu duten bi aholkularitza-enpresek (UNA Gestión eta ADIMEN) eta UNRWA Euskadiko langileek jardun zuten galdetegiko galderak prestatzen. Galdetegiaren behin betiko edukiaren kalitatea eta egokitasuna baliozkotzat jo aurretik, «**aurretest**» **bat egin genion laginaren % 3ri**, eta oso emaitza ona lortu genuen.

Galdetegiaren edukia diseinatzeko eta osatzeko, honako lau irizpide edo jardunbide egokiak aplikatu genituen:

1. Azterketaren aurretiko jardueretan bildutako ezagutzak aprobetxatzea: analisi kualitatiboa eta bigarren mailako iturrien analisia.
2. UNRWA Euskadiren ezagutza eta esperientzia aprobetxatzea, azken galdetegiaren diseinuan parte hartzera gonbidatuz.
3. Aholkularitza-taldeak ikerketa honen xedearen antzeko beste galdetegi batzuk diseinatzen zeuzkan ezagutza eta esperientziak aprobetxatzea.
4. Azkenik, web-galdetegiak eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzea, galdera-erantzun landuagoak, luzeagoak eta ñabardura gehiagokoak prestatzeko aukera ematen duten aldetik.

**2. eranskinean** ikusten denez, galdetegiaren edukia honela antolatu genuen, oro har:

- Identifikazio soziodemografikoari buruzko galdera-multzoa.
- Posizionamendu ideologiko-politikoari buruzko galdera-multzoa.
- Aktibismo sozial, politiko eta asoziatiboari buruzko galdera-multzoa.
- Euskal gizarteak Ekialde Ertaineko (bereziki Palestinako) errefuxiatuei buruz daukan hasierako ezagutza (bat-bateko nabaritasuna) identifikatzera zuzendutako galdera-multzoa.
- Ezagutza hori iradokizunen bidez identifikatzeko beste galdera-multzo bat (nabaritasun iradokia).
- Beste galdera-multzo bat, Ekialde Ertaineko (bereziki Palestinako) errefuxiatuei buruz euskal imajinario sozialean dauden aurreiritzi eta estereotipoen egoerak, arrazoiak, beharrak, euskarriak eta hedapen-bideak sakonago jorratzeko, horien guztien ezagutzan oinarritutako iritzien bidez.
- Azkenik, estereotipoak desaktibatzen lagungarri edo oztopo izan daitezkeen faktoreak identifikatzera zuzendutako galdera-multzoa.

## c) Parte-hartzaileen lagina eta profila

Diagnostikoaren zati kuantitatiboan, 807 galdeketa egin ditugu EAE osoan: horrek % 95eko konfiantza-maila estatistikoa ematen digu eta, kasurik txarretan ( $p=q=0,5$ ), +/-% 3,52 gehienezko lagin-errorea, lagin osorako.

EAEen bizi diren 16 urtetik gorako pertsonen parte hartu dute inkesta-prozesu honetan, adinaren, jatorriaren, bizilekuaren... arabera bereizita.

Ikerketan parte hartu duten pertsonak aukeratzeko garaian, EAEren errealitate soziodemografikoa ahalik ongien islatzen saiatu gara, adinari, generoari eta lurralde historikoari dagokienez. Ikasketa-maila eta habitataren tamaina ere aintzakotzat hartu ditugu.

**1. taulan** ikerketan parte hartu duten pertsonen banaketa ikusten dugu, termino absolutuetan eta ehunekoetan. Emakumeek gizonek baino pisu handiagoa dutela nabarmentzen da, EAEko errealitatearen zertxobait gainetik.

**1. taula. Parte-hartzaileen banaketa generoaren arabera. Ehunekoak.**

Sexua	Unibertsoa		Eredua	
	Guztira	%	Guztira	%
Emakumea	0	52,2	439	54,3
Gizona	0	47,8	370	45,7
<b>Guztira</b>	0	100	100	100

**2. taulan** azterketako parte-hartzaileen banaketa ikusten dugu, adinaren eta generoaren arabera. EAEko gizartearen adierazgarria izan zedin, adin-talde bakoitzaren ehunekoak laginean islatzen saiatu gara, ahal izan dugun neurrian, 16-18 adin-tartearen kasuan izan ezik, ikerketaren bultzatzaileak talde horri pisu handiago emateko eskatu baitzigun. Norbere burua ez gizontzat ez emakumetzat ez sailkatzeko aukera eman dugu galdetegian, baina inork ez du aukera hori baliatu.

**2. taula. Parte-hartzaileen banaketa adinaren arabera. Ehunekoak.**

Adina	Unibertsoa			Eredua		
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona
<b>16 - 18 urte bitartean</b>	3,6	3,9	3,3	9,1	8,9	9,5
<b>19 - 29 urte bitartean</b>	11,0	10,4	11,7	18,2	20,7	15,1
<b>30 - 40 urte bitartean</b>	15,8	15,1	16,6	22,1	22,8	21,4
<b>41 - 50 urte bitartean</b>	19,0	17,9	20,1	24,1	24,4	23,8
<b>51 - 60 urte bitartean</b>	17,7	17,3	18,1	18,7	17,3	20,3
<b>61 urte baino gehiago</b>	32,9	35,5	30,1	7,8	5,9	10,0

Bizilekuari dagokionez, bi aldagai soziodemografiko erabili ditugu: lurralde historikoa eta habitataren tamaina. Adinarekin eta generoarekin egin den bezala, lurralde historikoaren araberako banaketa portzentualaren kasuan ere (**3. taula**) EAEn daukagun banaketa bera errepikatzen saiatu gara. Kasu honetan, Bizkaiaren pisua handixeagoa da, Gipuzkoaren kaltetan, eta Arabarena berez duenaren oso antzekoa.

**3. taula. Parte-hartzaileen banaketa lurralde historikoaren eta generoaren arabera. Ehunekoak.**

Lurralde historikoa	Unibertsoa			Eredua		
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona
<b>Bizkaia</b>	58,0	56,3	60,0	53,0	52,5	53,4
<b>Gipuzkoa</b>	28,3	27,3	29,5	32,3	32,6	32,1
<b>Araba</b>	13,7	16,4	10,5	14,7	15,0	14,4

**4. taulan** parte-hartzaileak bizi diren habitaten tamainaren araberako banaketa portzentuala ikusten dugu. Datu hori oso esanguratsua izaten da askotan fenomeno sozialak aztertzeko garaian. Banaketa horrek erakusten digunez, laginaren erdia baino zertxobait gehiago hiri handietan bizi dira, eta laginaren % 9, hamar mila biztanletik beherago habitatetan edo landa-ingurunean.

**4. taula. Parte-hartzaileen banaketa habitataren tamainaren eta generoaren arabera. Ehunekoak.**

Habitataren tamaina	Guztira	Emakumea	Gizona
---------------------	---------	----------	--------

<b>Hiri bat</b>	52,7	50,8	54,9
<b>50.000 baino gehiago</b>	13,8	13,2	14,6
<b>10.000 - 50.000 bitartean</b>	24,5	24,6	24,3
<b>5.000 - 10.000 bitartean</b>	4,7	5,9	3,2
<b>5.000 baino gutxiago edo landatarra</b>	4,3	5,5	3,0

Azkenik, eta atal honekin amaitzeko, parte-hartzaileen banaketa portzentuala ageri da **5. taulan**, ikasketa-mailaren arabera. Ikusten denez, parte-hartzaileen erdiek baino gehiagok (% 53,7) amaituak dauzkate unibertsitate-ikasketak.

**5. taula. Parte-hartzaileen banaketa ikasketa-mailaren eta generoaren arabera. Ehunekoak.**

<b>Ikasketa-maila</b>	<b>Guztira</b>	<b>Emakumea</b>	<b>Gizona</b>
<b>Ikasketarik gabe edo lehen hezkuntzako ikasketak bugatu gabe</b>	1,5	0,7	2,5
<b>Lehen hezkuntzako ikasketak</b>	10,6	10,1	11,2
<b>Bigarren hezkuntzako ikasketak</b>	34,2	31,4	37,6
<b>Unibertsitate-ikasketak</b>	53,7	57,8	48,8

**4.1.2. Ikerketaren metodologia kualitatiboaren diseinua**

Diagnostiko-prozesua euskal herritarrek (beren aniztasun guztian) Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen inguruan dauzkaten informazio, ezagutza, jarrera, pertzepzio eta jokamoldeak jasotzera bideratu dugu. Alderdi kualitatiboak dira zati honen ardatza eta, irismen mugatua izan arren, emaitzak EAEko biztanleria osoaren isla izatea espero dugu.

Lan kualitatiboa egiteko landa-lanean bi teknika erabili ditugu:

**1. teknika: elkarrizketa erdi-egituratu sakonak**

Proposatutako interes-taldeak jarraian zehazten ditugun eremu batekoak edo gehiagokoak ziren:

- 1. Esparru akademikoa:** funtzio sozial eta hezitzaile garrantzitsuko esparru horrek imaginario sozial eta herri-koia sortzen laguntzen du eta ezagutza eta oinarri teorikoa eskaintzen dizkio gizarteari.
- 2. GGKEak eta gizarte-mugimenduak:** gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren alde egiten duten lanak, nolabait ere, euskal gizarteak Ekialde Ertaineko errefuxiatuei buruz, oro har, eta bereziki palestinarrei buruz daukan pertzepzioa baldintzatzen du.
- 3. Hedabideen ekosistema:** iritzi publikoa taxutzen laguntzen dute hedabideek, eta eragin berezia daukate digitalek.
- 4. Administrazio publikoan eta elkarteetan lan egiten duten giza eskubideen, kulturaren, bakearen eta bizikidetzaren alorreko espezialistak.** Administrazioek eta elkarteek Ekialde Ertaineko errefuxiatuen inguruan bultzatzen dituzten programak eta ekimenak ezagutu nahi ditugu atal honetan, eta, bereziki, zein ikuspuntu lantzen duten.

Gure ikerketarako ekarpen teoriko eta praktikoak eskuratzeko beharrera egokitu genuen aukeratutako profila, beraz. Gaiarekin zeukaten lotura zela eta, informazioa eskuratu nahi genuen iturri pribilegiatu horietatik. Bildutako ezagutza eta esperientziekin gure diagnostikoa elikatu genuen, instituzioetako eta gizarteko eragileek dagoeneko badauzkaten esperientziak eta gaitasunak aprobetxatuz.

Eragileen eta interes-taldeen lagina UNRWA Euskadiren laguntzarekin eta koordinazioarekin osatu genuen, eragile horiek eskain ziezaguketen informazioak guretzat zeukan interesagatik eta diagnostiko honen ikerketaren esparruan egiten duten lanagatik. Diagnostikoko aztergaien inguruan gizarteak daukan sentsibilitateari buruzko pertzepzioa jasotzea ere garrantzitsua izan da, gai horiekin eta aztergai ditugun populazioekin nolabaiteko lotura (batzuetan zuzenean, besteetan zeharka) duten eragileok betetzen duten funtzio sozialetik eta roletik abiatuta.

Interes-talde horiek aukeratzeko beste irizpide bat zera izan da: UNRWA Euskadirekin eta errefuxiatuei zuzendutako ekintzak egiten dituzten bestelako eragile eta erakundeekin aliantzak sortzeko gai dira, diagnostiko honen ondorioei jarraiki hartuko diren neurriak artikulatzeari dagokionez.

Landa-lanaren fase honetan analisi-kategoria eta -gako batzuk finkatu ditugu berariaz, UNRWA Euskadik eman-dako jarraibide eta eskaeretatik abiatuta. Diagnostikoaren oinarritzat hartuko genituen **analisi-kategoriak** zehaztea izan da lehen urratsa eta, ondoren, kategoria horietako bakoitza **analisi-gako** desberdinetan aletu dugu. Gako horietatik abiatuta, elkarrizketetan eta lan-taldeetan erabiliko ditugun gidoiak osatzeko **galdera kritikoak** xedatu ditugu.

Kategoria horiek zedarritutakoan, galdera kritikoak xedatzeko erreferentzia izango diren **analisi-gakoak** zehaztu ditugu. Horrela, bada, diagnostikorako azterketaren ikergaia zein den kontuan hartuta, honako analisi-dimentsioak finkatu ditugu:

- a) Estereotipo kulturalak
- b) Genero-estereotipoak eta aurreiritziak
- c) Genero-rolak
- d) Berdintasun-eza
- e) Hizkera inklusiboa versus hizkera sexista
- f) Imajinario kolektiboa
- g) Identitatea
- h) Kulturantzatasuna
- i) Kulturartekotasuna
- j) Giza mugikortasuna, migrazioa eta harrera
- k) Komunitate imajinarioa eta harrera-gizartea
- l) Arrazakeria eta xenofobia
- m) Hedabideek palestinar errefuxiatuei buruz zabaldutako irudia
- n) Jardunbide egokiak

Kategoriak eta analisi-dimentsio edo -gakoak gurutzatuz, informazio-taula hau osatu dugu:

#### Giza eskubideen kategoria

Giza mugikortasuna, migrazioa eta harrera
Arrazakeria eta xenofobia
Hedabideek zabalduko irudiak
Hedabideen diskurtsoa eta <i>fake news</i> direlakoak
Eskubideen ikuspegitik egokiak diren jardunbideak

<b>Genero-parekidetasunaren kategoria</b>
Estereotipoak eta genero-rolak
Berdintasun-eza, interseksionala eta generoen artekoa
Hizkera inklusiboa
Jabekuntzaren ikuspegitik egokiak diren jardunbideak

<b>Kulturaniztasunaren kategoria</b>
Estereotipo kulturalak
Imajinario kolektiboa
Identitatea
Kulturaniztasuna vs kulturartekotasuna
Segurtasuna
Komunitate imajinarioa eta harrera-gizartea

Sailkapen horretatik abiatuta, tailer eta elkarrizketen gidioak prestatu genituen eta lortutako informazioa multzoka antolatu eta analisi-gako desberdinen baitan bildu genuen, geroago prozesatu ahal izateko.

Guztira hogeit hamar elkarrizketa egin genituen, 2018ko abenduan eta 2019ko urtarril eta otsailean.

Landa-lanean erabilitako elkarrizketen gidioak ageri dira jarraian. Proposatutako eragile eta interes-taldeen laginetik abiatuta, lau galdera-multzo diseinatu ziren, goian zehaztutako kategoria eta analisi-gakoak oinarritzat hartuta. Era berean, beren diziplina anitzeko profiletatik proposatutako pertsona batzuek multzo bateko edo besteko galderak erantzun zituzten.

### 1. multzoa: esparru akademikoa.

1. Nola transmititzen da ikasgelan Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen egoera?
2. Zein planteamendutatik ikasten da?
3. Hizkera inklusiboa erabiltzen al duzue?
4. Zer-nolako sentsibilitatea hautematen da ikasgelan Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen inguruan?
5. Ba al da beste errealitate kulturalik ikasgelan? Nola erlazionatzen dira?
6. Ikasleek zer dakite Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen errealitateaz?

7. Batxilergoko hezkuntza-programazioak lantzen al du kultur aniztasunaren gaia? Ematen al du beste kultura batzuen esperientzia eta bizipenen berri? Lantzen al da beste errealitate horiekiko enpatia? Hezkidetzako jarduerarik antolatzen al da ikuspegi inklusibo batetik?
8. Zein dira Nazioarteko Harremanen Saileko kideak? Zein da kideen perfil akademiko eta profesionala?
9. Zein eduki lantzen da gradu-programetan eta masterretan?
10. Programa akademikoek nola lantzen dute (zer ikuspegitatik) errefuxiatuen errealitatea?
11. Landa-lana egiten al da? Bestelako esperientziarik (hitzaldiak) ikasgelan?
12. Elkarrizketa-fororik egiten al da? Zer profiletako jendea gonbidatzen da? Zein gai eztabaidatzen dira?
13. Zein irudi erabiltzen dira?
14. Zein datu, iturri eta erreferentzia bibliografikoa erabiltzen dira?

## 2. multzoa: EAEko errefuxiatuei harrera eta laguntza ematen dieten GGKEak eta interbentzio sozialeko erakundeak.

1. Gizarte-eraldaketarako proiektuetan nola islatzen da Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen errealitatea?
2. Zein planteamendutatik?
3. Hizkera inklusiboa erabiltzen al duzue?
4. Zer-nolako sentsibilitatea dago ikasgelan Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen inguruan?
5. Kultur errealitate desberdinak al daude erakundean? Nola erlazionatzen dira?
6. Ba al dago GGKE desberdinak lankidetzan aritzeko sarerik? Ekintza bateraturik egiten al da Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen errealitatea ikusarazteko?
7. Nola ematen zaie ahotsa emakume errefuxiatuei? Zein kanalen bidez? Nori zuzentzen zaizkio ahots horiek? Zein espaziotan?
8. Zer ondorio atera daiteke aztergai dugun publikoari buruzko ebaluazioetatik?
9. Finantza-erakundeekiko harremanetan, zer-nolako sentsibilitatea hautematen da haien aldetik?
10. Aztergai dugun publikoaren kasuan, zer-nolako sentsibilitatea hautematen da? Zein gai lantzen dira eta zein formatutan?
11. Aldaketarik ikusi al duzue herritarrek Ekialde Ertaineko errefuxiatuez duen pertzepzioan?
12. Zer dakite langileek (zuzendaritzakoak barne) Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen errealitateaz?
13. Zein dira batzordeetako eta zuzendaritza-batzordeko kideak? Zein da kideen profil akademiko eta profesionala? Zer dakite errefuxiatuen historia, testuinguru eta errealitateaz? Izan al dira haien jaioterrian?
14. Elkarrizketa-fororik egiten al da? Zein profiletako jendea gonbidatzen da? Zein gai eztabaidatzen dira? Zein planteamendutatik?



15. Zein irudi erabiltzen dira?
16. Zein datu, iturri eta erreferentzia bibliografiko erabiltzen dira?

### 3. multzoa: hedabideen ekosistema.

1. Zein artxibo dokumentalekin lan egiten du hedabideak? Zein iturri eta berri-emaile erabiltzen ditu? Zer ekarpen egiten du iturri bakoitzak?
2. Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen errealitatea aintzakotzat hartzen al da hedabidearen produkzioaren plangintzan? Aintzakotzat hartzen bada, zein da gai nagusia? Adibidez: gai nagusia izan daiteke siriarrak emakumeak seme-alabak zaintzen edo unibertsitatea utzi behar izan duten emakumezko ikasleak.
3. Nola transmititzen du hedabideak errefuxiatuen errealitatea?
4. Informazioa dagokion testuinguruan txertatzen al da? Jatorrian sakontzen al da?
5. Gerra-kontakizuna erabiltzen al da?
6. Hizkera inklusiboa erabiltzen al da?
7. Erredakzio-taldeak zer daki Ekialde Ertaineko errefuxiatuen errealitateaz?
8. Ezagutzen al dituzte haien historia eta ohiturak?
9. Zein ataletan ematen da errefuxiatuei buruzko informazioa?
10. Zein dira atal bakoitzeko (nazioartea, herritarrak, gertakariak, gizartea...) erredakzio-taldeko kideak?
11. Ezagutzen al dute errefuxiatuen jaioterria (Ekialde Ertaina)?
12. Hedabideak eskaintzen al die lekuri beste kultura batzuei? Nondik begiratuta? Zein albiste?
13. Zein irudi erabiltzen dira? (argazkilariak elkarriketatu litezke)
14. Noiz transmititzen da informazioa?
15. Nola erabakitzen da informazioa nola transmititu?
16. Informazio berria gehitzen al da orotariko estalduraren barruan?
17. Zein espaziotan erabakitzen da informazioa transmititzea?
18. Nork erabakitzen du informazioa transmititzea? Nondik begiratuta?

### 4. multzoa: administrazio publikoan eta elkarteetan lan egiten duten giza eskubideen, kulturaren, bakearen eta bizikidetzaren alorreko espezialistak.

1. Zer-nolako lotura dute Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen errealitatearekin?
2. Nola lantzen duzue giza duintasunaren eta giza eskubideen arteko binomioa? Eta enpatia-elkartasuna binomioa?
3. Elkartasuna betebeharrak morala dela uste al duzu?

4. Ezagutzen al duzue testuingurua? Ezagutzen al duzue errefuxiatuen jaioterria?
5. Zuen elkarte edo sailak jarduera-ildotzat al dauka Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen errealitatea ikusaraztea? Gobernu-estrategiaren barruan al dago?
6. Zein planteamendutatik egiten duzue lan? Programa eta jardueretan txertatuta al zaudete?
7. Zein publikori zuzentzen da zuen lana?
8. Zein erantzun (soziala, politikoa edo erakundeartekoa) ari zarete ematen errefuxiatuen krisi humanitarioari? Nola ematen duzue horren berri?
9. Zein tresna diseinatu dira krisia konpontzeko? Adibidea: Babes Komunitarioa<sup>33</sup>.
10. Bestelako zein eragile sozialekin lan egiten duzue errefuxiatuen harreran? Zein funtzio betetzen dituzue?
11. Nola eta zein baliabide eta tresnarekin bideratzen duzue gizarte zibilaren parte-hartzea?
12. Zuen instituzio/erakunde/elkartearen ustez, herritarrek zer-nolako iritzia daukate Ekialde Ertaineko errefuxiatuez? Zein izan da iritzi horren bilakaera? Eta horren inguruan dagoen joera?
13. Zer baliabide edo bitarteko material eta giza baliabide daukazue esku-hartze hori gauzatzeko?
14. Zuen elkarteak zein tresna dauzka herritarrak sentsibilizatzeko?
15. Zein eztabaida-eremu eskaintzen dituzue?
16. Zein da eztabaida-foroetan parte hartzen duten pertsonen profila?
17. Eta lan-saioetan parte hartzen dutenen profil profesionala?
18. Espazio horietako (foroak eta saioak) edukia zabaltzen al da gero?
19. Hizkera inklusiboa erabiltzen al duzue?

Azkenik, elkarrizketen emaitzak UNRWA Euskadik hasieran onartu zituen kategoria berberen arabera egituratu ditugu:

- a) Errefuxiatuekiko pertzepzioak
- b) Errefuxiatuen inguruko estereotipo eta jarrerak
- c) Estereotipoak sortzeko kanal eta euskarriak
- d) Politika publikoak eta jardunbide egokiak

**2. teknika: eztabaida-talde fokalak** EAEko hiru lurralde historikoetan. Parte-hartzean oinarritutako tailer horiek, euskal gizartea ordezkatzen zuten mikro-taldeekin egindako elkarrizketetako emaitzetatik abiatuta, informazioa eskuratzeko diagnostiko-prozesuko tresna gisa pentsatu ziren. Eztabaida-talde fokalen gidoia eta erabilitako galderak aurretiaz egindako elkarrizketa sakonetatik ateratako ondorioetan oinarritu ziren. Talde arduradunak ariketa eta dinamika batzuk prestatu zituen, tailerreko parte-hartzaileek Ekialde Hurbileko eta Palestinako errefuxiatuei buruz zeuzkaten pertzepzio, jokabide eta jarrerak azaleratzeko eztabaida-galdera batzuen bidez.

<sup>33</sup> Babes Komunitarioko programen bidez, jende arruntak konpromiso zuzena hartu dezake errefuxiatuei gure artean moldatzen laguntzeko. Pertsona horiek babes ekonomiko eta psikologikoa emateko eta finkatzen laguntzeko konpromisoa hartzen dute, errefuxiatu iritsi berriek gure herriko bizitzan integartzeko aukera izan dezaten. Informazio gehiago eskuratzeko, ikus: <http://www.refugeesponsorship.org/es/patrocinio-comunitario>.

Eztabaida-talde fokalak EAeko hiru lurralde historikoetan antolatu ziren. Elkarrizketak egin zituzten interes-taldeen ordezkariak eta taldeekin batere loturarik ez zeukaten pertsonak elkartu ziren, Ekialde Hurbileko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen inguruan zeuzkaten iritzi eta jarrerak naturaltasunez azaleratzeko. Horretarako, otsailean zehar, era askotako kolektibo sozialetako eta enpresetako pertsonak identifikatu, haiekin harremanetan jarri eta aukeraketa egin genuen.

Hautemandako pertzepzio eta estereotipo orokorrak talde horiekin alderatzea zen helburua eta, gainera, jendeak adierazitako argudio eta aurreiritziak modu kritikoan aztertzea. Era berean, *a priori* gaiarekin sentsibilizazio handiagoa daukaten pertsonen argudioek eta sentsibilizazio-estrategiek arrakastarik ba ote zeukaten ikusi nahi genuen.

Egiaztatu genuen bi motatako diskurtso eta pertzepzioak daudela aurrez aurre: gaiari buruzko sentsibilizazioa, informazioa eta analisirako tresnak zeuzkaten pertsonenak, batetik, eta gaia aldeztatik ez landu ez aztertu ez duen jendearenak. Azken horiek hitz egiten dutenean, gizartean gehien hedatutako estereotipo eta aurreiritzi-tatik abiatuta egiten dute.

Lurralde bakoitzean lan-talde bana eratu genuen. Lan-taldeok jarraian zehazten dugun moduan osatu ziren, kideek gaian aldeztatik zeuzkaten ibilbidearen arabera:

- % 20-30 artean, GGKE-etako kideak
- % 10-20 artean, errefuxiatuekin zuzenean lan egiten duten gizarte-erakundeetako kideak
- % 20-30 artean, sektore desberdinetako enpresetako kideak
- % 20-30 artean, Administrazio publikoetako langileak
- Gaian espezializatutako akademikoren bat
- % 10-20 artean, Bigarren Hezkuntzako institutueta irakasleak

Generoaren aldagaia ere aintzat hartu genuen, emakumeak eta gizonak % 50ean ordezkaturik egon zitezela. Azkenik, adinaren aldagaia hartu genuen kontutan, garrantzitsua baitzen diagnostikorako. Adin-tarte hauek ordezkaturik egotea bermatu genuen: 20-30, 30-40, 40-50 eta 50 urtetik gorakoak.

Lurralde historiko bakoitzeko taldeek osatura berezia izan zuten, ahalik eta diskurtsorik gehien biltzeko moduan:

- Gaiari buruzko ezagutzarik ez zeukatenak bazeukatenak baino gehiago ziren talde bat (Donostia)
- Gaiari buruzko ezagutzarik ez zeukatenak bazeukatenak baino gutxiago ziren talde bat (Bilbo)
- Gaiarekin eta lankidetzaren eta harreraren munduarekin lotura zeukatenek bakarrik osatutako talde bat (Gasteiz)

Lurralde historiko bakoitzeko tailerrak noiz egin ziren eta zenbat pertsonak parte hartu zuten zehazten da ondorengo taulan:

Lekua	Data	Parte-hartzaileen kopurua
La Bolsa auzo-etxea, Bilbo	Otsailaren 26an	Hamar lagun (sei emakume eta lau gizon)
Okendo kultur etxea, Donostia	Martxoaren 13an	Hamaika lagun (sei emakume eta bost gizon)
Simone de Beauvoir Emakumeen Etxea, Gasteiz	Martxoaren 20an	Zortzi lagun (lau emakume eta lau gizon)

Eztabaida-taldeetan banatu ziren parte-hartzaileak zati diskurtsibo eta arrazionalago bat eta beste zati emozional inkontzienteago bat lantzeko, 90 minutuz, dinamika eta eztabaiden bidez. Taldeak dinamizatzeko garaian, aintzakotzat hartu zen espazioaren eta hitzaren erabilera: dinamizazio-metodologia parekideak erabili ziren, parte-hartzaileek hitz egiteko denbora bera eta espazio bera erabiltzeko aukera izan zezaten. Aholkularitza-enpresak erabilitako metodologiari esker, diagnostikoan parte hartu zuen populazio berbera izan zen prozesuaren protagonista. Kanpo-aholkularitzak jendeari hausnartzen lagundu, bidean gidatu eta, ondoren, informazioa eta gako nagusiak helburuen arabera antolatuz zituen, baina prozesuko parte-hartzaileak izan ziren funtsezko ideia eta pertzepzioak mahaigaineratu zituztenak.

Tailer horiekin helburu nagusi bat lortu nahi zen: eraikuntza kolektiborako espazio bat sortzea Paulo Freireren pedagogiarri jarraiki, espazioa ezagutza horizontaltasunetik sortzeko leku gisa egituratzeko eta ondorioak parte-katzeko garaian parekidetasuna bermatzen duten tresnak erabiltzeko.

## 4.2. LAN-PLANA

---

Hamar hilabete eman ditugu euskal herritarrek Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuei buruz duten pertzepzioaren diagnostiko hau egiten. Prozesua 2018ko irailean hasi eta 2019ko uztailean amaitu zen, esku artean duzun dokumentuarekin. Azken emaitza gisa diagnostiko hau utzi digun lan-prozesuak hainbat urrats osatutako ibilbidea burutu du:

### a) Ikerketarako proposamen metodologikoa prestatzea

Hasteko, UNA gestión y comunicación aholkularitzak, azterketaren arduradun gisa, ikerketa egiteko proposamen metodologiko bat aurkeztu zuen. Bertan aurretiazko kategoria eta analisi-gako batzuk eta diagnostikoa egiteko garaian ikuspegi kuantitatiboa eta kualitatiboa jorratzeko proposamen bat zehaztu zituen. Era berean, gaiari buruz argitaratutako azterketa eta ikerketak bilatu genituen, esparru teorikoa osatzeko.

### b) Landa-lanetarako lagina aukeratzea

Landa-lan kuantitatibo nahiz kualitatiboan erabilitako lagin zehatza mugatu zuten UNA gestión y comunicación-ek eta Adimen Investigación-ek, UNRWA Euskadiko lan-taldearekin koordinatuta, hasiera batean finkatutako erreferentziako baldintzak eta honako hautaketa-irizpideak aintzat hartuta:

- Emakumeen eta gizonen proportzio orekatua (60/40ko gehienezko ratioa ez gainditzea)
- Parte hartzen duen populazioaren adin-tarte desberdinak ordezkatuta egotea (16 urtetik gorako guztiak, baita 65 urtetik gorakoak ere)
- Hiru lurralde historikoetako populazioa ordezkatuta egotea
- Palestinako herriarekiko elkartasuna edo lankidetzeta eta asiloa lantzen duten EAEko elkarte eta erakundeetako kideak ordezkatuta egotea
- Asiloan eta aterpean, migrazioetan eta diagnostikoaren aztergaiarekin zerikusia daukaten alderdi teorikoetan adituak diren pertsonen parte hartzea
- Adin-tarte, egoera sozioekonomiko, hezkuntza-maila, genero eta bizileku (landa-ingurunea eta hiriak) desberdinak ordezkatuta egotea
- DBHko eta Batxilergoko ikasle eta irakasleak ordezkatuta egotea

- Nazioarteko errealitatea aztertzen duten fakultate edo graduekin lotura duten unibertsitate-irakasleak ordezkaturata egotea
- Mugimendu feministako eta emakumeen elkarteetako ordezkariak
- EAEko hedabideetako ordezkariak

### **c) Analisi-kategoriak definitzea**

Lagina zedarritu ondoren, diagnostikoaren ardatz bihurtuko ziren analisi-kategoriak zehaztea zen hurrengo urratsa, hortik abiatuta, kategoria horiek analisi-gako desberdinetan aletzeko. Gako horiek hartu ziren oinarritzat bai galdera-sorta osatuko zuten galdera kritikoak definitzeko (lagin kuantitatiboan), bai elkarrizketen eta lan-taldeen gidioiak prestatzeko (ikuspegi kualitatiboan).

### **d) Tresnak prestatzea eta informazioa biltzea**

Informazioa biltzeko tresna desberdinak erabiltzea erabaki genuen, diagnostikoaren aztergaiari ahalik eta ertz gehienetik eta desberdinenetatik heltzeko asmoz. Horrela, bada, hiru teknika metodologiko aukeratu genituen analisirako:

- Web-panelaren bidezko galdeketa
- Elkarrizketa sakonak diagnostikoaren aztergaiarekin zerikusia duten edo alor horretan adituak diren pertsonekin
- Eztabaida-talde fokalak, talde aukeratuekin

### **e) Datuak aztertu eta interpretatzea**

Elkarrizketa-faseari heldu genion aurrena eta hortik finkatu genituen hurrengo faseak. Fase honetan eztabaida-talde fokalak deitu eta dinamizatu genituen hiru lurralde historikoetan. Bitartean EAEko zortziehun lagun baino gehiago Internet bidezko galdeketa egiten ari ziren. Landa-laneko hiru faseak amaitutakoan, bildutako informazioa sistematizatu genuen, ideiak multzokatu eta interpretazioak egin ahal izateko.

### **f) Diagnostikoaren txostena prestatzea**

Prozesuaren amaieran, interpretatutako informazioa txosten diagnostiko honetan sistematizatu, triangulatu eta bildu genuen, eta zenbait ondorio eta gomendio aurkeztu genituen, alor honetan aurrerantzean egin beharreko lana bideratzeko.

## **4.3. EXEKUZIO-KRONOGRAMA**

---

Lan-prozesuaren fase guztien exekuzio-egutegia ageri da jarraian, zehatz-mehatz, prozesua abian jarri zenetik diagnostikoaren dokumentua itxi zen arte.

DIAGNOSTIKO-PROZESUAREN FASEAK	18-ira.	18-urr.
<b>1. FASEA – MARTXAN JARTZEA</b>		
Hasierako bilera: lan-egitasmoa entregatzea.		
<b>2. FASEA – IKERKETAREN METODOLOGIA</b>		
Proposamenari ekarpenak egitea.		
Metodologia diseinatzea.		
Lagina aukeratzea.		
Aukeratutako lagina mugatzea, UNRWArekin koordinatuta.		
Adierazleak eta analisiaren kategoriak diseinatzea.		
Informazioa biltzeko tresnak diseinatzea.		
Kontraste-bilera UNRWArekin.		
IKERKETAREN METODOLOGIA ixtea UNAre, ADIMENen eta UNRWAre artean.		
<b>3. FASEA – 1. LANDA-LANA: ELKARRIZKETAK</b>		
Askotariko biztanle-segmentuetako 15 edo 20 lagun identifikatzea.		
Elkarrizketatzeko proposatutako pertsonak kontrastatzea UNRWArekin.		
Aukeratutako pertsonekin elkarrizketak lotzea.		
Elkarrizketak egitea.		
Informazioaren sistematizazioa.		
Koordinazio-bilera UNAre eta UNRWAre artean.		
Koordinazio-bilera UNAre eta ADIMENen artean.		
<b>4. FASEA – 2. LANDA-LANA: LANTEGI FOKALAK</b>		
Lantegien egutegia egin eta aretoak erreserbatzea.		
3 lantegi fokaletan parte hartuko duten pertsonak identifikatzea.		
3 lantegietan parte hartuko duten pertsonak kontaktatu eta horien parte-hartzea baieztatzea.		
Bizkaiko lantegi fokala.		
Gipuzkoako lantegi fokala.		
Arabako lantegi fokala.		
Informazioaren sistematizazioa.		
1. eta 2. landa-lanen txostena.		
Koordinazio-bilera UNAre eta UNRWAre artean.		
Koordinazio-bilera UNAre eta ADIMENen artean.		
<b>5. FASEA. 3. LANDA-LANA: WEB-PANELA</b>		
Web-galdetegiaren edukia diseinatzea.		
Web-galdetegiaren edukia UNRWArekin kontrastatzea.		
Galdetegia ixtea, UNRWAK onartuta.		
Proba pilotua biztanleen % 3ko segmentuan.		
Web-galdetegiaren programazioa eta balidazioa (testaren aurretik).		
Inkestak egiteko prozesua.		
Web-galdetegia plazaratu eta datuak biltzea.		
Inkesta-lanaren emaitzen txostena UNAr ematea.		
Koordinazio-bilera UNAre eta UNRWAre artean.		
<b>6. FASEA – DIAGNOSTIKO-TXOSTENA EGITEA</b>		
Informazioaren sistematizazioa.		
Emaitzen triangulazioa.		
Interpretazioa eta ondorioak ateratzea.		
Txostenaren zirriborra talde arduradunari aurkeztea.		
Behin betiko diagnostiko-txostena ematea.		





# 5. ANALISIAREN EMAITZAK

## 5.1. EAE-KO POPULAZIOARI BURUZKO ANALISI Kuantitatiboa

### 5.1.1. Errefuxiatuei buruz jendeak orokorrean dauzkan iritzi eta jarrerak


Lehen atal honetan ikerketaren lan kuantitatiboaren bidez lortutako emaitzak aurkezten dira, txosten honen 4. atalean deskribatutako moduan. Hasieran planteatutako helburuekin bat datozen lau multzo tematiko handitan banatu dira emaitzak.

#### A. Euskal gizarteak errefuxiatuei buruz dauzkan pertzepzioak

Gizarteko fenomeno bat arazotzat jotzea izaten da jendea mobilizatzaera edo gizartea aldatzaera bultzatzen duen mekanismo garrantzitsuenetako bat. Gizarte jakin batean gertakari bat arazotzat jotzen denean jendea hari aurre egiten hasten da. «Errefuxiatuen krisiaren» inguruan benetan kezkarik ba ote dagoen aztertzeko eta jakiteko, inkestatuei EAEk gaur egun dauzkan arazo nagusiak zein diren galdetu zaie zuzenean, beste ikerketa batzuen antzera<sup>34</sup>.

Inkestatuek **EAEko arazo nagusitzat jotzen dituztenak** ageri dira **1. grafikoan**. Arazo nagusia langabezia da, alde handiz, eta atzetik datoz etxebizitza eta pentsioak. «Errefuxiatuen krisia» azken-aurreko posizioan ageri da (erantzun guztien % 7,5). Ikusten dugunez, gai hori ez da orain arte arazotzat hartu. Gainera, esan daiteke «iradokitako» kategorietan agertzeak baldintzatzen duela haren balorazioa eta seguruenik txikiagoa izango zela «bat-bateko» erantzun gisa jaso izan balitz. Aipatzekoa da, bestalde, ez dagoela desberdintasun nabarmenik generoaren arabera.

#### 1. grafikoa. EAEko arazo nagusiak. Ehunekoak. Generoaren arabera.



#### a.1. Terminoaren ezagutza


Testuinguru egokia kokatu eta gero, errefuxiatuei eta haien errealitatei buruzko pertzepzioak identifikatu dira lehen atalean. Horretarako, eta funtsezkoenetik abiatuta, galdera hauek egin zitzaizkien inkestatuei: Ezagutzen al duzu **errefuxiatu** terminoaren benetako esanahia? Zein dira **errefuxiatu**rik gehien hartzen dituzten

34 Immigrazioaren Euskal Behatokiaren urteko barometroan (Ikuspegi, 2018) ere galdera horixe ageri zen, baina ADIMEN Investigación-ek zertxobait aldatu eta gure aztergaira egokitu zuen, azterketa honetarako.

**herrialdeak? Zenbat errefuxiatu** daude eta egon beharko lirateke European, Espainian eta EAEn? Zein dira beren herria uzteko eta gurean onartuak izateko arrazoi nagusiak?

**2. grafikoan** ikusten dugunez, oso gutxi dira *errefuxiatu* hitzaren esanahiaren arrastorik ere ez daukatena, baina parte-hartzaileen erdiek diote zalantzak daukatela esanahiaren inguruan (% 48,9). Badirudi, beraz, ia jende guztiak dakiela terminoa identifikatzen eta kokatzen, baina erdiek bakarrik uste dutela uneoro badakitela haren esanahia zein den (% 49,9).

**2. grafikoa. Errefuxiatu terminoaren ezagutzari buruzko autoebaluazioa. Ehunekoak. Generoaren arabera.**




**a.2. Lurraldearen pertzepzioa**

Errefuxiatuez hitz egiten denean jendeak zertaz ari garen jakitea garrantzitsua den bezala, funtsezkoa da, halaber, haien errealitatea zein den jakitea. Hala, errefuxiatuak gehien hartzen duten herrialdeez galdetu diegu inkestaei. Hipotesi nagusia argia zen: ikuspegi eurozentrikoari jarraiki, jendeak uste du Europa dela errefuxiatu gehien hartzen dituen lurraldea, baina errealitatea oso bestelakoa da.

**3. grafikoko** emaitzak berrikusten baditugu, ikusiko dugu lautik hiruk uste dutela Europa dela errefuxiatuak gehien hartzen duen lurraldea. Ildo berean, % 15ek bakarrik aipatu dute Ekialde Ertaina (Turkia barne) errefuxiatuak gehien hartzen dituen lurralde gisa.

**3. grafikoa. Errefuxiatu gehien hartzen dituzten lurraldeei buruzko pertzepzioa. Ehunekoak. Generoaren arabera.**




**a.3. Gurera iristen diren errefuxiatuen kopuruaren pertzepzioa**

Giza mugikortasuneko prozesu guztietan (arrazoiak edozein direla ere: ekonomikoak, gerra, erlijiosoak...) garrantzi handia dauka zenbat pertsona diren batetik bestera mugitzen direnak. Kopuru horren gaineko ikuspegia izugarri

subjektiboa eta erlatiboa da, datu zehatzak badaude ere. Hemen, euskal herritarrek errefuxiatuen kopuruari buruz duten pertzepzioa da interesatzen zaiguna. Pertzepzio hori zertan den jakiteko, euskal herritarrek Europara, Espainiara eta EAera iristen diren errefuxiatuen kopuruari buruz egindako balorazioa jaso dugu atal honetan.


**4. grafikoaren** arabera, eta lehen begiratuan, populazioaren erdiak baino gehiagok uste du errefuxiatu «gehiegi» edo «askotxo» iristen dela Europara eta Espainiara (% 54,5 eta % 56,2, hurrenez hurren), eta «gutxi» datozela edo «gehiago» etorri beharko luketela uste dutenak % 25 inguru dira. EAeri dagokionez, antzeko joera aurkitzen dugu. EAera iristen diren errefuxiatuak «gehiegi» edo «askotxo» direla uste dute % 47,8k. Oro har, emakumeek gizonek baino errefuxiatu gehiago dagoela uste dute.

**4. grafikoa. Europara, Espainiara eta EAera iristen diren errefuxiatuen kopuruaren pertzepzioa, generoaren arabera. Ehunekoak.**



**5. grafikoan** ikusten dugun belaunaldien arabera irakurketa ere interesgarria da. Gazteen (16-18 urte) % 44k uste dute «gutxi» direla edo «gehiago» izan beharko liratekeela gure artean dauden errefuxiatuak. 61 urtetik gorakoen kasuan, berriz, kopuru hori % 22an kokatzen da. Joerak erakusten digunez, adinean gora egin ahala handitu egiten da EAera iristen diren errefuxiatuak «gehiegi» edo «askotxo» direla pentsatzen duten pertsonen kopurua.

**5. grafikoa. Europara, Espainiara eta EAera iristen diren errefuxiatuen kopuruaren pertzepzioa, adinaren arabera. Ehunekoak. Adinaren arabera.**




#### a.4. Gurean hartzen ditugun errefuxiatuen kopuruaren pertzepzioa

Euskal herritarrek gurera iristen diren errefuxiatuen kopuruari buruz daukaten pertzepzioa aztertu ondoren, gure artean hartu beharko genituzkeen errefuxiatuen kopuruari buruz duten iritzia identifikatu dugu.

**6. grafikoak** erakusten digunez, eta Europari, Espainiari eta EAeri buruz ari garela, gure artean hartutako errefuxiatuen kopurua murriztu beharko litzatekeela uste du populazioaren % 45ek. Bestalde, biztanleen % 35ek inguruk erantzun dute errefuxiatu gehiago hartu beharko genituzkeela gure herrian.

Berriro ere, ikaragarriko aldea ikusten dugu parte-hartzailen adinaren arabera: 61 urtetik gorako hamar parte-hartzaitetik seik uste dute errefuxiatuen kopurua murriztea dela aukerarik onena, eta gazteen artean, berriz, hamarretik hiruk baino ez dute erantzun hori hobesten.


#### 6. grafikoa. Europara, Espainiara eta Euskal Herrira iritsi behar duten errefuxiatuen kopuruaren pertzepzioa, generoaren arabera. Ehunekoak. Generoaren arabera.



#### a.5. Ihes egiteko arrazoiei buruzko usteak

Errefuxiatuak ihes egitera bultzatu zituzten arrazoi nagusiak zein diren galdetu diegu inkestatuei. Horixe izan da gure analisi kuantitatiboaren hurrengo aztergaia. **7. grafikoko** emaitzak oso argiak dira: hamar inkestatutik ia bederatzik (% 87,9) uste dute gerra dela arrazoi nagusia. Atzetik datoz arrazoi ekonomikoak (% 36,2) eta jazarpen politiko eta ideologikoa (% 35,5). Errefuxiatuak beste herrialde batera joateko arrazoiaren artean gutxien aipatzen direnak arrazoi erlijiosoak (% 11,5), sexu- eta genero-identitatea (% 5,2) eta ingurumen-arazoak (% 2,1) dira.

#### 7. grafikoa. Errefuxiatuak beren herritik alde egitera bultzatu zituzten arrazoi nagusiak, EAEko herritarren iritziz. Ehunekoak. Generoaren arabera.




### a.6. Ihes egiteko eta gure artean hartzeko arrazoiak

Errefuxiatuak beren herritik alde egitera bultzatu zituzten ustezko arrazoiak eta haiek Estatuan hartzea justifikatzen duten arrazoiak alderatu ditugu jarraian. **8. grafikoan** ageri den emaitza oso interesgarria da. Errefuxiatuak beren herrialdeetatik ihes egitera bultzatzen dituzten kausa nagusiak gerra, arrazoi ekonomikoak eta jazarpen politiko edo ideologikoa dira, euskal herritarren iritziz. Bestetik, herrialde batek errefuxiatuak hartzeko arrazoi artean gerrak, jazarpen ideologiko eta politikoa eta terrorismoa aipatzen dituzte inkestatuek. Emaitza horiek agerian uzten dute, goian aipatu dugun moduan, jendeak ez dakiela *errefuxiatu* hitzak benetan zer esan nahi duen, eta jendea bere herritik ihes egitera bultzatzen duen arrazoi nagusia ekonomikoa dela pentsatzen jarraitzen dute, arrazoi ekonomikoek asiloa eskuratzeko eskubiderik ematen ez duten arren.

Bestalde, errefuxiatuak onartzeko eskubideen artean gero eta indar handiagoa daukate jazarpen ideologikoak, sexu- edo genero-identitateari lotutako jazarpenak eta ingurumen-arazoak, arrazoi ekonomikoek kaltetan.

### 8. grafikoa. Euskal herritarren iritziz, errefuxiatuak beren herritik alde egitera bultzatzen dituzten eta gure artean hartzea justifikatzen duten arrazoi nagusien arteko alderaketa.



### a.7. Herritartasun-eskubidea eta eskubide sozialak

Beren herritik asilo bila ihes egiten duten pertsonak hartzea garrantzitsua da, bai, baina pertsona horiek hartuko dituen gizartean izango dituzten bizi-baldintzak ere garrantzitsuak dira. Azken multzo honetan, errefuxiatuei herritartasun-eskubidea eta eskubide sozialak zenbateraino onartu behar zaizkien galdetuta inkestatuek erantzun zutena jaso dugu.


Aldagai hori neurtzeko, antzeko ikerlanetan eskubide eta zerbitzu desberdinei buruz egindako galderak erabili ditugu: Ikuspegiren barometrokoak (Ikuspegi, 2019) eta CISek etorkinekiko jarrerari buruz egindako ikerlanekoak (CIS, 2017), esate baterako.<sup>35</sup>

Euskal herritarren artean onarpenik handiena duten eskubide eta zerbitzuak hauek dira: **hezkuntza publikoa, osasun-laguntza eta laguntza juridikoa (9. irudia)**. Kasu horietan, oso gutxi dira errefuxiatuei eskubide horiek ukatzen dizkietenak (% 4,2 eta % 7,8 artean). Dena den, eskola publikora joateko baldintza batzuk bete behar

35 Bi ikerketa horiek gaiari buruz galdetu dute, item desberdinen bidez.


lituzketela uste dute inkestatuen % 25,8k, osasunaren kasuan % 30,9k, eta laguntza juridikoaren kasuan % 37,9k. Nolanahi ere, «baiezko borobilak» gehiengo nabarmena dauka kasu guztietan.

**9. grafikoa. Eskubide eta zerbitzuak eskuratzea (1). Ehunekoa. Generoaren arabera.**



Adostasunik eta onarpenik handiena duten aukerak ikusi ondoren, desadostasunik handiena pizten dutenak eta «baiezko borobilak» nagusi izateari uzten diotenak jaso ditugu **10. grafikoa**n. Onarpen handienetik txikienera dauzkagu **familia ekartzea, laguntza sozialak, babes ofizialeko etxebizitzak** eskuratzea eta, azkenik, **boto-eskubidea** edo sufragio aktiboa. Aurkako jarrera handiena pizten duena sufragio aktiboa da, zalantzarik gabe, inkestatuen % 35,6 guztiz aurka baitaude. Gainerakoetan, «Bai, baina baldintzekin» da erantzun nagusia.

**10. grafikoa. Eskubide eta zerbitzuak eskuratzea (2). Ehunekoa. Generoaren arabera.**



Azkenik, esan beharra daukagu generoaren arabera ez dagoela alde handirik, baina, berriro ere, alde handia dagoela adinaren arabera: adinekoek traba gehiago jartzen dizkiote errefuxiatuei eskubide eta zerbitzuak onartzeari.

## B. Errefuxiatuekiko estereotipo eta jarrerak

Gero eta aniztasun handiagoa daukagu gure gizarteetan eta bizikidetzan gure bizitza sozialaren ardatz bihurtzen da. Egoera horretan, diskriminazioa dakarten estereotipo eta jarrerak jendea baztertzeko eta gatazka sozialak pizteko mekanismoak bihur daitezke azkar batean. Euskal herritarrek errefuxiatuei buruz duten pertzepzioa gizartearen geruza guztietan aurkitzen ditugun estereotipoen bidez sortzen da, hein handi batean.

Zabalduen dauden estereotipo eta jarrerak zein diren jakiteko, eta hasieran zehaztutako helburuak oinarritzat hartuta, bi analisi-maila txertatu ditugu gure azterketan, antzeko azterketen esperientziei jarraiki (Ikuspegi, 2019; CIS, 2017): batetik, maila erlazionalagoa (sinpatia-mailan eta erlazio-espazio hipotetikoekiko jarreran oinarritua) eta, bestetik, errefuxiatuek harrera-gizartean izan dezaketen inpaktuari buruzkoa (estereotipoak aztertzen dira hemen).


### b.1. Sinpatia-maila

Euskal herritarrek errefuxiatuenganako duten sinpatia-maila aztertzen da atal honetan, haien nazionalitatearen, erreferentziako eremu geografikoaren edo estatus juridiko-administratiboaren arabera. Alderdi hori argitu ondoren, beste galdera bat egin dugu erlazio-espazio desberdinetan jendeak errefuxiatuekin elkarrekintzarik izanez gero zer jarrera izango lituzkeen identifikatzeko.


11. grafikoan ikusten denez, kulturalki, politikoki edo sozialki gertuen dauden nazionalitateak dira sinpatia-mailarik handiena eragiten dutenak. Horrela, bada, eta 0-10 arteko eskala batean, sinpatia-mailarik handiena eragiten dutenak Europar Batasuneko herrialdeetakoak dira (7,19), eta EBtik kanpoko europarrak ondoren (6,72). Beste muturrean daude magrebtarrak (4,85) eta Ekialde Ertaineko herritarrek (5,52). Gainerako jatorriak tartean kokatzen dira: Latinoamerika (6,09) eta Saharaz azpiko Afrika (5,88). Palestinarren kasuan, Ekialde Ertaineko eremu geografikoaren barruan egon arren, azken talde horretako jendeak baino sinpatia-maila handiagoa pizten dute palestinarrek (5,93).

Berriro ere, parte-hartzaileen generoaren aldetik ez dago alde nabarmenik gaiari dagokionez. Baina **12. grafikoan** ikusten dugunez, jarreraren artean alde handia dago inkestatuen adinaren arabera, berriro ere. Gazteek ez dute nazionalitatearen arabera diskriminatzeke joerarik, eta 1,02 puntuko aldea besterik ez dago gehien eta gutxien baloratzen dituzten atzerritarren artean. Adinean gora egin ahala, ordea, nazionalitate batzuekiko edo besteekiko sinpatia-mailen artean dagoen aldea handiagoa da. 61 urtetik gorakoen artean, adibidez, 2,7 puntuko bariazioa dago.

### 11. grafikoa. Enpatia-maila nazionalitatearen arabera. 0-10 batez bestekoak. Generoaren arabera.






**12. grafikoa. Enpatia-maila nazionalitatearen arabera. 0-10 batez bestekoak. Adinaren arabera.**


Pertsonen egoera juridiko-administratiboari dagokionez (**13. grafikoa**), alde nabarmenak daude. «Espainiar nazionalitateko etorkina» da sinpatiarik gehien pizten duen estatus juridiko-administratiboa (6,58); «errefuxiatuak» dauzkagu ondoren (6,55), eta «bertan bizitzeko baimendun etorkina», azkenik (6,23). «Egoera irregularrean dagoen etorkina» da gutxien baloratzen den kategoria. Horiekiko sinpatia-maila 4,97ra jaisten da 0-10 arteko eskala batean.

Kasu honetan, adinaren araberako aldea «egoera irregularrean dagoen etorkina» kategorian aurkitzen dugu soilik, belaunaldi zaharrek dutelarik pertsona horiekiko errezelarik handiena. Gainerako kategorietan ez dago desberdintasun aipagarririk.

**13. grafikoa. Sinpatia-maila estatus juridikoaren arabera. 0-10 batez bestekoak. Generoaren arabera.****b.2. Errefuxiatuekiko elkarrekintza sozial hipotetiko batekiko jarrera**


**14. grafikoko** emaitzak anbiguo samarrak dira: parte-hartzaileen erdiek arazorik gabe onartuko lituzkete etorkinak beren auzoan, baina beste erdiak errezeloak dauzka bere gertuko ingurunean errefuxiatuak onartzeko.

**14. grafikoa. Errefuxiatuek gertuko ingurunean duten presentziarekiko tolerantzia. Ehunekoak. Generoaren arabera.**



Ikerketa osoan zehar ikusi dugun belaunaldien arteko aldea bereziki deigarria da hemen. 16-29 urte bitartekoek % 75ek inguruk ez dute arazorik errefuxiatuek beren auzoetan duten presentziarekin, baina 51 urtetik gorakoek artean, % 30 baino gutxiago daude haiek beren auzoan onartzearen alde.

**15. grafikoa. Errefuxiatuek gertuko ingurunean duten presentziarekiko tolerantzia. Ehunekoak. Adinaren arabera.**



**b.3. Euskal herritarren gaineko ondorioak**


Euskal herritarren iritziz errefuxiatuen etorrerak euskal gizartean eragiten omen dituen ondorioen berri eman nahi izan dugu analisiaren bigarren mailan (CIS, 2017; Ikuspegi 2019). Horretarako, eta hala Estatuko nola EAEko beste ikerketa batzuekin bat etorri<sup>36</sup>, errefuxiatuen etorrerak euskal gizartean izan ditzakeen ondorio positibo/negatiboak buruzko galdera espezifiko bat sartu dugu gure galdera-sortan.

**16. grafikoa** ikusten denez, euskal herritarren % 45ek (hamarretik seiko puntuazioa) uste dute errefuxiatuen etorrerak alderdi positiboak dauzkala gizartearentzat. % 31,1ek posizio neutral edo aseptikoa daukate ondorio horiei dagokienez. Gainerakoek, parte-hartzaileen ia % 25ek, kaltegarritzat daukate errefuxiatuen etorrera edo ez dute uste eragin positiborik izango duenik. Ia % 25eko kopuru hori aldatu egiten da adin-tartean arabera. Gazteen artean, % 8,1ek dute iritzi hori; adinekoen artean, berriz, % 34,0k.

36 Atal hau prestatzeko CISen eta Ikuspegiaren (ibid.) azterketak hartu ditugu oinarritzat.

Jarraian ageri den grafikoaren emaitzen analisian sakonduz, datu kezkarria bat aurkitzen dugu: inkestatuena erdiek baino gehiagok (% 57,4) uste dute errefuxiatuen etorrerak arriskuan jartzen duela gure gizarte-ongizateko sistema, eta hamarretik seik baino gehiagok uste dute (% 63,4) errefuxiatuek beren ohiturek alde batera utzi eta harrera-gizarteko ohituretara egokitu beharko luketela.

**16. grafikoa. Errefuxiatuen etorrerak harrera-gizartean eragindako ondorio orokorreari buruzko pertzepzioa. Ehunekoak. Generoaren arabera.**




**b.4. Euskal herritarrek errefuxiatuei buruz dauzkaten estereotipoak**

Errefuxiatuen inguruan populazioan gehien zabalduko estereotipoak indarrean ote dauden aztertu nahi izan dugu atal honetan. Horretarako, errefuxiatuen etorrerak eragindako ondorioekin (benetakoak nahiz imajinatuak) zerkusia daukaten zurrumurruen aurrean posizionatzeko eskatu genien inkestatuak.

**17. grafikoan** jasotako emaitzak ageri dira, desadostasun-mailarik handienetik txikienera antolatuta. Lehen hiru adierazpenetan, baieztapen horien alde ez daudenak dira nagusi, hau da, ez dutenak uste errefuxiatuen etorrerak eraso terroristen arriskua areagotzen duenik (% 62,3), genero-berdintasuna eta matxismoaren aurkako borroka arriskuan jartzen dituenik (% 59,8) edo errefuxiatu gehiago erakarriko dituenik (% 50,9). Dena den, ikusten dugunez, ez dira gutxi baieztapen horiekin bat datozen pertsonak. Ia % 40k diote litekeena dela eraso terroristen arriskua handitzea eta arriskuan jartzen dituztela genero-berdintasuna eta matxismoaren aurkako borroka. Errefuxiatu gehiago erakartzeari dagokionez, ia erdiek uste dute baietz, hori gertatzen dela.

**17. grafikoa. Sei estereotipo ohikoekiko posizionamendua. Ehunekoak. Generoaren arabera.**



### C. Eztabaida publikoaren kanal eta euskarri nagusiak


Komunikazio-kanal eta -euskarriek zeharo egituratzen dituzte fenomeno sozialak, eztabaida publikora iristeko ezinbestekoak diren aldetik.

Horregatik, EAEko kanal eta euskarri nagusiak zein diren, zer presentzia duten eta nolakoak diren jakiteko galde-  
ra batzuk egin ditugu.

#### c.1. Presentzia eztabaidan publikoan (1). Edukia.

Nabarmendu beharreko bi errealitate desberdin aurkezten dizkigu **18. grafikoak**. Alde batetik, % 36,3k diote azken asteetan ez dutela inolako erreferentziarik jaso errefuxiatuei buruz. Gainerakoek (% 63,7) erantzun dute baietz, azken asteetan entzun, irakurri edo ikusi dutela errefuxiatuei buruzko komentariorik. Kontuan izan behar da hamarretik biren kasuan iruzkinak negatiboak zirela; % 5ek, berriz, entzundako edo irakurritako iruzkinak positiboak zirela erantzun zuten.

**18. grafikoa. «Errefuxiatuak» gaiaren presentzia eztabaida publikoan. Ehunekoak. Generoaren arabera.**




#### c.2. Presentzia eztabaidan publikoan (2). Kanalak eta euskarriak

Gaiak aktualitatean duen presentzia-maila identifikatu ondoren, errefuxiatuei buruzko informazio, hausnarketa eta diskurtsoak eztabaida publikorako zein kanalen bidez zabaltzen diren jakin beharra dago. Errefuxiatuei lotutako erreferentzia gehienak telebistaren bidez jasotzen dira (% 53,2); atzetik datoz Interneteko hedabideak (% 23,7) eta sare sozialak (% 22,5). Gainerako kanalek ere pisu nabarmena daukate, irratia delarik eraginik txikiena daukana (% 10,4).

Herritarrek informazioa eskuratzeko erabilitako baliabideetan adinari lotutako eten digitala dagoela ikusi dugu. Hauek dira inkestatu gazteenek gehien erabilitako kanalak: telebista (% 59,3), sare sozialak (% 44,4) eta Internet (% 37). Adinekoen kasuan, ordea, prentsa (% 32) da informazio-iturri nagusia, telebistaren ondoren (% 40).

**19. grafikoa. Eztabaidarako nagusiki erabiltzen diren kanal eta euskarriak. Ehunekoak. Generoaren arabera.**




### c.3. Presentzia eztabaidan publikoan (3). Albisteen kontsumoa

Bukatzeko, **20. grafikoarekin** zerikusia duten emaitzak ikus ditzakegu. Biztanleen % 25ek baino gehixeagok albisteak erregulartasunez jarraitzen dituzte eta aktualitatean gertatzen denaren berri daukate, beraz. % 15,9k, berriz, ez dute gaiari buruzko berririk kontsumitzen. Gainontzekoak (% 57,7) tarteko posizioan kokatzen dira, eta tarteka-marteka kontsumitzen dituzte albisteak.

Nabarmentzekoa da askoz gehiago direla gaiari buruzko albisterik kontsumitzen ez dutela dioten emakumeak gizonak baino, **gizonak halako bi baitira ia albisterik kontsumitzen ez duten emakumeak, gizonezkoen % 10,8ren aldean**. Kasu horretan, lotura zuzena ikusten dugu albisteen ohiko kontsumoaren eta adinaren artean, **jendea zenbat eta zaharragoa izan orduan eta handiagoa baita albisteen ohiko kontsumoa**.

#### 20. grafikoa. Errefuxiatuei eta haien aktualitateari buruzko albisteen kontsumoa. Ehunekoak. Generoaren arabera.



## D. Politika publikoak, estrategiak eta jardunbide egokiak


Bukatzeko, jendeak politika publikoen, estrategien eta jardunbide onen aurrean dauzkan jarrerak aztertu ditugu azken atal honetan. Lehen zatian, harrera- eta immigrazio-politikekin zerikusia duten gaiak jorratu dira; bigarrean, errefuxiatuei laguntzeko ekimenen inguruko ezagutza-maila. EAEn errefuxiatuen alde dagoen mobilizazio-maila da aztertu dugun azken alderdia.

### d.1. Harrera- eta immigrazio-politika dela eta. Jarrerak

Herritarrek immigrazio- eta harrera-politiken aurrean daukaten jarrera funtsezkoa izaten da mugikortasun-egoeran dagoen populazioari buruzko jarrera eta estereotipoak ikertzen dituzten lanetan. Posizionamendu hori zertan den jakiteko, erakunde publikoek errefuxiatuak hartzeko bultzatu beharko litzatekeen politikez galdetu diegu inkestatuei eta, ondoren, migrazio-politikaren eta garapenerako lankidetzaren alorreko ekintza zehatzekin ados dauden ala ez.


Jendeak errefuxiatuak hartzeko politikaz daukan jarrerari buruzko emaitzak jaso ditugu **21. grafikoan**. Datuek agerian uzten dutenez, **herritar gehienak (% 66,4) errefuxiatuak hartzearen alde daude**. Halere, esan beharra dago oso jarrera desberdinak aurkitzen ditugula multzo horren barruan. Errefuxiatuak hartzeko inolako murrizketarik jarri behar ez dela uste dute % 17,6k. Beste batzuen iritziz (% 48,8), berriz, beren jaioterrian jazartzen dituztela frogatuz gero baino ez zaie harrera egin behar. Errefuxiatuak inola ere hartu beharko ez liratekeela uste duen talde txikia kenduta (% 4,4), gainerako herritarrek diote urtean kopuru mugatu bat baino ez litzatekeela onartu beharko (% 29,2).

**21. grafikoa. Errefuxiatuak hartzeko politikei buruzko posizionamendua. Ehunekoak. Generoaren arabera.**



Adin-tarteen arteko aldeari dagokionez (**22. grafikoa**), **gazteak** dira errefuxiatuak inolako murrizketarik gabe hartzearen aldeko jarrera irekiena dutenak (% 32,4).

**22. grafikoa. Errefuxiatuak hartzeko politikei buruzko posizionamendua. Ehunekoak. Adinaren arabera.**




Beste muturrean daude, aldiz, 51 urtetik gorakoak: % 10ek bakarrik partekatzen dute iritzia hori. Adin horretatik gora aurkitzen ditugu jarrerarik kontserbadoreenak (gehiengoak dio errefuxiatuen jazarpena frogatu beharra dagoela), baina horrek ez du esan nahi batez bestekoak baino jarrera itxiagoa dutenik.

**Immigrazioaren, nazioarteko lankidetzaren eta etorkinen laguntzaren alorreko politika espezifikoak** aurkezten dizkigu **23. grafikoa**, eta bertan hiru maila bereiz ditzakegu euskal herritarren adostasun-mailaren arabera. Zera daukagu lehen mailan: «errefuxiatuen jatorrizko herrialdeetan interbentzio militarra egitea, egoera kontrolatzeko» aukera da inkestaturen artean babesik txikiena daukan neurria, eta hamarretik sei horren aurka daude. Bigarrenik, egoera kaskarrenean dauden pertsonentzako asilo-eskubidea murriztearekin eta bereziki errefuxiatu musulmanen etorrera kontrolatzearekin zerikusia daukaten neurriak dira iritzi-desberdintasunik handiena eragiten dutenak. Azken kasu horietan, herritarren ia erdiak ados edo oso ados daude neurri horiekin. Azkenik, euskal herritarren artean babesik handiena duten jardunbideak hauek dira: neurriak sustatzea eta baliabideak bideratzea errefuxiatuen herrietara (% 85,5), emakumeen eta haurren harrera lehenestea (% 71,2) eta mugen kontrola zorroztea (% 65).

Horrenbestez, eta orain arte esandakoa laburbilduz, 23. grafikoko emaitzak ikusita esan dezakegu jendeak errefuxiatuen jaioterrietara baliabideak bidaltzea hobesten duela edozein motatako interbentzio militarren gainetik. Gainera, emakume eta haurren etorrera lehenesten den bezala, mesfidantza handia dago (biztanleriaren % 50,30) errefuxiatu musulmanei dagokienez. Azkenik, biztanleen % 60k uste dute mugen kontrola zorrotzu beharra dagoela, eta erdiek baino zertxobait gehiagok ez dute uste gurera etortzeko aukera soilik egoera larrienean daudenei mugatu beharko litzaiekeenik.

**23. grafikoa. Immigrazioko eta nazioarteko lankidetzako politiketikiko posizionamendua. Ehunekoak. Generoaren arabera. Handienetik txikienera antolatuta.**




**d.2. Errefuxiatuei laguntzeko ekimenei buruzko ezagutza**

EAEen errefuxiatuei laguntzeko antolatzen diren ekimenen presentzia ezagutzea da azken atal honen helburua.

**24. grafikoa** erakusten digunez, EAEko herritarren % 83,7k ezagutzen dute Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforma. Haren atzetik datoz Eusko Jaurlaritzaren Auzolana ekimena eta Ados plataforma: % 28k eta % 21ek ezagutzen dituzte, hurrenez hurren. Aipatutako ekimen horiez gain, EAEen lan egiten duten edo bertan sortuak diren beste ekimen batzuk aipatu dituzte inkestatuek, hala nola UNRWA, Zaporeak, CEAR, Alboan eta UNHCR. Bestalde, populazioaren % 7k ez dute errefuxiatuei laguntzeko batere ekimen edo plataformarik ezagutzen.


**24. grafikoa. Errefuxiatuak babesteko eta laguntzeko ekimenen gaineko ezagutza. Ehunekoak. Generoaren arabera.**



### d.3. Euskal herritarren aktibismoa eta mobilizazio-maila

Euskal herritarren artean, errefuxiatuen aldeko mobilizazio-maila eta aktibismoa gaur egun apal samarra dela esan dezakegu. Hamar pertsonatik batek parte hartzen du errefuxiatuei laguntzen dieten dinamika eta elkarteetan, erregulariki edo tarteka-marteka, eta % 16,4k mobilizazioetan parte hartzen dute noizean behin.

#### 25. grafikoa. Errefuxiatuei laguntzeko mobilizazio-maila eta aktibismoa. Ehunekoak. Generoaren arabera.



Irakurketa **adinaren** arabera eginda ikusten dugunez, helduek baino mobilizazio-maila edo aktibismo handixeagoa daukate gazteek, eta **gizonen eta emakumeen** artean ez da alde nabarmenik ikusten.

#### 5.1.2. Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuei buruzko iritzi eta jarrerak

Jatorria zehaztu gabe, herritarrek errefuxiatuen inguruan dauzkaten pertzepzioei eta jarrerai buruzko emaitzak aztertu ondoren, Ekialde Ertaina eta Palestina kategoriak gehituta lortutako emaitzak ikusiko ditugu jarraian.

Euskal herritarrek Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, errefuxiatuen inguruan dauzkaten pertzepzio eta jarrerai buruzko informazio zehatza lortzea zen ikerketa honen helburu garrantzitsuenetako bat. Horregatik sartu dugu hurrengo atala azterketa honetan, orokorra denetik partikularra denera joateko prozesu logikoari jarraituz.

Gaiari heldu aurretik, egokia iruditu zaigu errefuxiatuen jatorrizko unibertsoa aurkeztea, hauxe baita gure ikerketaren hasierako hipotesietako bat: ez dagoela alde handirik euskal herritarrek hiru analisi-mailetan (errefuxiatuak orokorrean, Ekialde Ertainekoak eta Palestinakoak) daukaten pertzepzioan.

Aurreko atalekiko koherentziari eustearren, lortutako informazioa orain arte jarraitutako eskema berarekin aurkeztu dugu.

### A. Errefuxiatuei buruzko pertzepzioak

#### a.1. Politikari eta aktualitateari buruzko interesa


Euskal herritarrek Ekialde Ertainari eta Palestinari buruz (ustez) dakitena argitzen saiatu baino lehen, errealitate horri lotutako interes-maila eta gaiaren aktualitatea neurtu beharra dago.

Euskal herritarrek Ekialde Ertaineko eta Palestinako aktualitateari buruz duten interes-maila islatzen du **26. grafikoak**. Ikusten dugunez, emaitzak oso antzekoak dira elkarren artean. Bi kasuetan ere, hamar elkarrizketatutik hiruk besterik ez dute adierazi gaiari buruzko interes handia.



Dena den, bi emaitzak alderatuz gero, Palestinako albisteen kasuan erabat interesatuta dagoela diotenen kopuruak gora egiten duela ikusten dugu (% 3,1etik % 6,1era). Interes gutxi edo batere ez dutela diotenen kopuruak ere gora egiten du (% 29,6tik % 33,6ra igotzen da). Horrela, bada, Palestinako aktualitateari buruzko **interes-maila bi norabideetan polarizatzen dela ikusten dugu.**

**26. grafikoa. Gaur egun Ekialde Ertainari eta Palestinari buruz dagoen interes-maila, generoaren arabera. Ehunekoak.**




**a.2. Bat-bateko nabaritasuna eta nabaritasun iradokia**

*Ekialde Ertaina* eta *Palestina* hitzak lehenbiziko aldiz entzun, irakurri edo entzutean jendeak dauzkan lehen inpresioak identifikatzeko, bi galdera gehitu ditugu galdera-sortan: nabaritasun iradokiari buruzkoa bata (gaiarekin zerikusia duten zenbait termino proposatzen dira) eta bat-bateko nabaritasunari buruzkoa bestea (parte-hartzaileak berak aukeratzen ditu bere terminoak).

**27. grafikoko** datuek ez dute zalantzarako tarterik uzten. Bi kasuetan ere, laginaren % 60ren kasuan **gerra** hitza da Ekialde Ertainean eta Palestinan pentsatzean jendeari burura datorkion termino nagusia. Bigarren mailan, eta ildo berean, **terrorismo** terminoa aipatu dute inkestatuen % 30ek inguruk. Hortik aurrera, errealitatea desberdina da bi analisi-mailei dagokienez. Hauek dira Ekialde Ertainarekin lotzen diren kategoriak: «arabiarra» (% 21,1), «musulmana» (% 19,8) eta «emakumeen aurkako indarkeria» (% 18,0). Palestina, berriz, beste termino hauekin identifikatzen da: injustizia (% 48,5), errefuxiatua (% 26,2) eta elkartasuna (% 6,9).


**27.a. grafikoa. Nabaritasun iradokia Ekialde Ertaina eta Palestina terminoak entzutean. Ehunekoak.**




Emaitzak generoaren eta adinaren arabera berezita aurkeztuko ditugu jarraian, informazio gehiago eskaintzearren. Analisiak erakusten digunez, emakumeek joera handiagoa daukate **Ekialde Ertaineko** eskualdea **injustiziarekin** eta **emakumeen aurkako indarkeriarekin** lotzeko, azken gai horrekin sentsibilizazio handiagoa dutelako, seguruenik. Adinaren aldagaiak eskaintzen digu beste datu interesgarri bat: **hirurogei urtetik gorakoak** dira Ekialde Ertaina errefuxiatuekin gehien lotzen dutenak, aktualitateari buruzko albisteak kontsumitzeko joeraren eta Siriako errefuxiatuek hedabideetan izandako oihartzunaren eraginez, beharbada.

*Palestina* hitzaren nabaritasun iradokiari dagokionez, analisi xehakatuan ikusten dugunez, emakumeek gehien aipatutako hitza *injustizia* da kasu horretan ere, baina emakumeen aurkako indarkeria izugarri jaisten da aurreko puntuaren aldean (% 22tik % 7ra). Gizonen kasuan ere deigarria da Palestinaren eta injustizia-sentimenduaren arteko lotura zenbat handitzen den (30 puntu, injustiziaren eta Ekialde Ertainaren arteko erlazioarekin alderatuta). Adinaren analisiari dagokionez, datu bera aurkitzen dugu hirurogei urtetik gorako artean, horiek baitira Palestina emakumeen aurkako indarkeriarekin gutxien lotzen dutenak.

**27.b. grafikoa. Nabaritasun iradokia EKIALDE ERTAINA terminoa entzutean, generoaren eta adinaren arabera. Ehunekoak**



**27.c. grafikoa. Nabaritasun iradokia PALESTINA terminoa entzutean, generoaren eta adinaren arabera. Ehunekoak**



*Palestinar errefuxiatua* entzutean jendeak gehien aipatzen dituen terminoak ageri dira **28. grafikoan** (etiketa-hodeiak). Kasu horretan, eta era askotako terminoak aipatzen badira ere, hauek dira ohikoena: Israel, laguntza, ihesa, pena, pobrea, terrorismoa, tristura, asiloa, herria, jazarria, Gaza... Ikusten dugunez, errukiari lotutako sentimenduak dira nagusi, eta gerrarekin eta Israelekin zerikusia duten terminoak datoz jarraian.

**28. grafikoa. Bat-bateko nabaritasuna «palestinar errefuxiatua» entzutean. Etiketa-hodeia.**




**a.3. Beren herrialdetik ihes egiteko arrazoiak**

Analisi-maila desberdinei buruzko nozio, ezagutza edo pertzepzio diferentzialik ba ote duten jakiteko asmoz, Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuak beren herrialdetik ihes egiteko arrazoi nagusiez galdetu zaie euskal herritarrei.

**29. grafikoan** ihes egiteko arrazoiaren arteko desberdintasunak ageri dira, aipatutako hiru mailetan. Egia da antzeko joera ikusten dugula lehen analisi-mailari dagokionez (errefuxiatuen kasua), baina ehunekoan banaketa zertxobait aldatzen da Palestinari buruzko bi parametrotan.

Horrela, bada, zenbait pertsonak alde egiteko arrazoi desberdinak identifikatzen dituzte errealitate baterako eta besterako. Kausa gisa gerra aipatzen denean ikusten da alderik handiena (6,6 puntu gutxiago Palestinaren kasuan), eta arrazoi erlijiosoaren kasuan (Palestinaren kasuan 8,5 puntu handiagoa, multzo orokorraren aldean).

**29. grafikoa. Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuek beren herrialdetik alde egiteko arrazoi nagusiak, euskal herritarren iritziz. Ehunekoak.**




## B. Errefuxiatuekiko estereotipo eta jarrerak

### b.1. Sinpatia-maila

Jendeak talde jakin batzuei buruz dauzkan pertzepzioa eta jarrera eta jokamolde diskriminatzaileak neurtzeko tresna sinple eta eraginkorra izaten da sinpatia-maila. Sinpatia-tasarik altuena pizten duten taldeak integrazio-tasa altuena dutenak izaten dira maiz. Hori dela eta, sinpatia-mailaren analisia aintzat hartzea oso interesgarria da.

**30. grafikoan** populazioak jatorri eta estatus juridiko desberdinekin daukan sinpatia-maila ikus dezakegu. Sinpatia-mailarik handiena daukaten Europar Batasuneko herritarren (7,19) eta sinpatia-mailarik txikiena duten magrebtarren (4,85) artean era askotako errealitateak aurki ditzakegu. Datuak ikusita, errefuxiatu estatusak sinpatia-maila handi samarra pizten du (6,55), baina ez dago alde nabarmenik jatorriari dagokionez. Palestinarren kasuan, oro har, haiekiko sinpatia-maila (5,93) altuxeagoa da Ekialde Ertaineko pertsonen pizten dutena baino (5,52).


#### 30.a. grafikoa. Estatus juridiko edo jatorri desberdinekiko sinpatia. Batez bestekoa.



Hurrengo grafikoan ageri den **generoaren eta adinaren** araberako analisi xehakatuari jarraiki, gizonen emakumeek baino sinpatia handixeagoa diete palestinarekiko, oro har, bai eta errefuxiatu estatusa duen jendearekiko ere. Hain zuzen, deigarria da inkestaturako emakumeek sinpatia-maila handiagoa sentitzea Saharaz azpiko Afrikako biztanleekin palestinarekin (ez-errefuxiatuak) baino.

**Adinaren aldagaiaren** kasuan, lehenago ere aipatu dugun eredua errepikatzen da: jendea zenbat eta zaharragoa, orduan eta sinpatia txikiagoa, oro har, populazio-talde guztiekiko. Dena den, adin-talde guztietan sinpatia-maila handiagoa ikusi dugu palestinarekin errefuxiatuekin, errefuxiatuak ez diren palestinarekin baino (% 10eko alde).


#### 30.b. grafikoa. Estatus juridiko eta jatorri desberdinekiko sinpatia-maila, generoaren eta adinaren arabera. Batez bestekoa.




**b.2. Errefuxiatuekiko elkarrekintza sozial hipotetiko baten inguruko jarrera**

**31. grafikoak** erakusten duenez, ez da alde nabarmenik aurkitu aztertutako maila desberdinetan. Ez du ematen lotura zuzenik dagoenik errefuxiatuen jatorriaren, herritarrek haiekin hartu-eman gertukoak izatearen eta haienganako jarreraren artean.


**31. grafikoa. Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuak hartzeari eta haiekiko elkarrekintza hipotetiko bati buruzko posizionamendua. Ehunekoak.**



**31. grafikoa. Ekialde Ertaineko errefuxiatuak hartzeari eta haiekiko elkarrekintza hipotetiko bati buruzko posizionamendua, generoaren eta adinaren arabera. Ehunekoak.**



**31. grafikoa. Palestinako errefuxiatuak hartzeari eta haiekiko elkarrekintza hipotetiko bati buruzko posizionamendua, generoaren eta adinaren arabera. Ehunekoak.**




## C. Eztabaida publikoaren kanal eta euskarri nagusiak

Eztabaida publikoan erabiltzen diren kanal eta euskarri nagusiak eta haien ezaugarriak identifikatu nahi izan ditugu atal honetan. Gaiak eztabaida publikoan duen presentzia (eta izaera) analizatu nahi dugu, aurrena, eta, ondoren, gaiari buruzko albisteen kontsumoa.

### c.1. Presentzia eztabaidan publikoan (1). Edukia

Oro har, eta **32. grafikoan** eskainitako alderaketak erakusten digunez, palestinarrekin zerikusia duten gaiak askoz presentzia gutxiago daukate errefuxiatuen gaiak baino (% 10 gutxiago). Hortaz, zera ondoriozta dezakegu: errefuxiatuen gaiak presentzia txikiagoa daukala eztabaida publikoan, beste gai batzuek baino.

#### **32. grafikoa. Gaiak (errefuxiatuak oro har, Ekialde Ertainekoak eta Palestinakoak) eztabaida publikoan daukan presentzia. Ehunekoa.**




### c.2. Presentzia eztabaidan publikoan (2). Albisteen kontsumoa

Euskal herritarrek analisi-mailaren batekin beste mailekin baino interes handiagoa daukaten identifikatu nahi izan dugu 32. grafikoaren bidez.

Emaitzak ez du nobedade handirik eskaintzen: Palestinako errealitateari buruzko albisteen kontsumoa txikixea da errefuxiatuei buruzko albisteena baino.

#### **33. grafikoa. Errefuxiatuei, oro har, eta Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuei buruzko albisteen kontsumoa. Ehunekoa.**



## D. Politika publikoak eta harrera-politikak


Azkenik, Palestinari buruzko pertzepzioan desberdintasunik ba ote dagoen argitu nahi izan dugu atal honetan, eta jendeak politika publikoei eta harrera-politikei buruz dauzkan pertzepzioa eta jarrerak aztertu ditugu horretarako. Emaitzen atal orokorrean erabilitako eskema bera erabili dugu hemen ere: immigrazio- eta harrera-politikekin zerikusia duten gaiak jorratu dira lehenik eta behin, eta, ondoren, gertuko erlazio-espazioetan elkarrekin-tza hipotetiko baten aurrean jendeak erakutsitako posizionamendua aztertu dugu, hurrengo epigrafean.

### d.1. Harrera- eta immigrazio-politika. Posizionamenduak


Jendeak errefuxiatuen jaioterriaren arabera dauzkan posizionamenduak identifikatzen dira **34. grafikoan**. Errealitateak erakusten du ez dagoela alde handirik maila desberdinen artean, eta, beraz, emaitzen lehen atalean ikusi genituen joera berak aurkitzen ditugu Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuen kasuan.

Adinaren eta generoaren arabera banatutako datuak ere jaso ditugu, ezagutzan sakontzeko asmoz, baina ez dute aldaketarik ekarri goian aipatutako ondorioei dagokienez.


#### 34.a. grafikoa. Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuak hartzeko politikari buruzko posizionamendua. Ehunekoa.



#### 34.b. grafikoa. Ekialde Ertaineko errefuxiatuak hartzeko politikari buruzko posizionamendua, generoaren eta adinaren arabera. Ehunekoa.



### 34.c. grafikoa. Ekialde Ertaineko errefuxiatuak hartzeko politikari buruzko posizionamendua, generoaren eta adinaren arabera. Ehunekoa.



## 5.2. ANALISI KUALITATIBOA ADITUEN ELKARRIZKETETATIK ABIATUTA

Gaian espezializatutako hainbat pertsona (esparru akademikokoak, erakunde publikoetakoak, hedabideetakoak nahiz gizarte-erakundeetakoak) elkarrizketatuz egindako landa-lanetik ateratako ondorioak jaso ditugu hurrengo atalean, eta azterketak proposatutako lau analisi-multzoetan antolatu ditugu.

### a) Errefuxiatuekiko, oro har, eta bereziki Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuekiko estereotipo eta jarrerak

Euskal gizarteak errefuxiatuak nola ikusten dituen jakiteko egindako elkarrizketetan ikusi dugunez, jendeak ez daki **terminoak zer esan nahi duen eta errefuxiatua izateak zer ondorio dauzkan**. Gaian espezializatuta dauden zenbait pertsonak azpimarratzen dutenez, herritarrek ez dakite etorkina edo errefuxiatua izatea zer den, eta ez dituzte bi figurak bereizten. Goian aurkeztutako analisi kuantitatiboan agerian gelditu da kontsultatutako pertsona gehien-gehienak bazekitela *errefuxiatu* terminoa identifikatzen eta kokatzen, baina erdiek bakarrik zekiten terminoak uneoro definitzen.

Edonola ere, ezezagutza hori egon badagoen arren, **etorkinekin alderatuta errefuxiatuek balorazio desberdina eta hobea eta onarpen-maila altuagoa jasotzen dute** euskal herritarren imajinarioan. Alde horretatik, zera zioen lekuko batek:

Etorkinak, pobreak izanik, beren herrialdetik bizimodu hobe baten bila abiatu zirela pentsatzen du jendeak, baina ez dute uste erbestera joateko erabaki hori erabaki behartua denik, askea baizik.

Unibertsitate-alorreko elkarrizketatu batek hausnarketa horretan sakontzen zuen:

Beti izan ditugu errefuxiatuak gure artean, baina azken urteotan aldaketak izan dira Europa hegoaldearen eta Magreben arteko migrazio-fluxuen intentsitatean eta ezaugarrietan, eta etsaitasunezko eta arbuiozko erreakzio sozialak agertu dira. Errefuxiatuen kasuan erantzun hori ez da hain nabarmena eta ez du hainbesteko onarpen sozialik.



Ekialde Ertaineko errefuxiatuei dagokienez, bereziki, eskualde osoa espazio homoginoa dela uste du jendeak, eta ez dakite arabiar mundua zeharo heterogeneoa dela, konposizio sozial, erlijioso, politiko eta ekonomiko aldetik. Lekuko batek horixe azpimarratzen zuen:

Euskal herritarrek, oro har, ez dakite errefuxiatu bat zer den, kanpoko ikusten dute soilik; euskal gizarteak, oro har, **kolektibo homogeen**o gisa ikusten ditu arabiar jatorriko pertsona guztiak. Jendeak ez daki Ekialde Ertaina zer den edo non dagoen, eskualde horretako herrialde guztiak arabiar herrialdeak dira jendearentzat.

Horrela, bada, errefuxiatu estatusak etorkinek daukatena baino onarpen-maila handiagoa badakar ere, euskal herritarrek **arabiar aurpegiarako pertsoneri buruz dauzkaten estereotipoek** pisu handiagoa daukate asilo-eskatzaile izateari lotutako egoera juridikoak baino.

Kontuan hartu behar da, bestalde, jendeak errefuxiatu izatea zer den eta zer ondorio dauzkan ez jakiteaz gain, eta haien egoera eta baldintzen inguruko interesik ez edukitzeaz gain, badela arabiarrekiko estereotipo eta aureiritziak areagotzen dituen hirugarren faktore bat:

**Ezjakintasun handia dago gizarte musulmani buruz**, alde eta urruntasun handia dago euskaldunen eta magrebtarren artean, besteak beste erlijioak eragin handia daukalako esparru publikoan.

Gaian espezializatutako pertsoneri egindako elkarrizketetatik ateratako beste ondorio batek zera erakusten digu: euskal imajinario kolektiboan **errefuxiatuek gizon aurpegia dutela**. Zergatik? 1970eko hamarkadan Latinoamerikan (Argentinan, Txilen, Brasilen, Uruguain, etab.) izandako diktadurari lotuta garatu zelako *errefuxiatu* kontzeptua, haietako askok beren herrialdeetatik ihes egin eta Espainiako Estatuan asilo politikoa eskatu eta gero. Errefuxiatu politikoen profil horrek (garai hartan gizonetzkoak ziren gehienak) baldintzatzen du gaur, euskal testuinguruan, errefuxiatuez dugun ideia. Baina, horrez gain, asilo-eskatzaileak gizonak direla pentsatzeko beste arrazoi interesatuago bat aipatu du pertsonaren batek: «Errefuxiatuen estereotipoak gizon aurpegia dauka (errefuxiatu gehienak emakumeak izan arren), jendeari errazagoa zaiolako gizon bat arbuatzea, emakume edo haur bat arbuatzea baino. Hori inkontzienteki egiten da, «ukitu ez zaitzan». Kolektiboari buruzko **begirada ez-emozional eta hotza** eraikitzen da horrela, populazio horiei buruzko aureiritzi eta estereotipoen mekanismo inkontzienteak abian jartzera garamatzana. Hurrengo atalean azalduko dugu hori xeheago.

Ildo berean, beste pertsona batek zera azpimarratu du: «Euskaldunok herri enpatikoa gara, baina beroaldiak izateko joera daukagu, enpatikoak izateko oldarra izan dezakegu, baina gero ahaztu egiten zaigu. Gogoia gutxitzen zaigu. Larrialdietan jendea buru-belarri murgiltzen da eta litekeena da erlijio katolikoak eragindako elkartasun-edo karitate-bulkadaren ondorioa izatea hori. Jendeak errazago enpatizatzen du ume baten edo emakume baten minarekin, gizon batenarekin baino: indartsuago ikusten dituzte, aurrera egiteko ahalmen handiagoa daukatela iruditzen zaie».

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren haritik, baina beste ñabardura garrantzitsu bat gehituta, «errefuxiatuen egoerari buruzko **ikuspegi androzentrikoa** salatu dute zenbait elkarrizketatuk, historikoki soilik *errefuxiatu politiko* deiturikoak (gizonak) errekonozitu izan direlako, diktaduratik ihesi zihoazenak, alegia. Horrek erraztu egiten du asilo-eskubidea, arrazoi ekonomikoak bakarrik hartzen baitira aintzakotzat, eta ez, ordea, ekonomikoak, sozialak, sexualak, kulturalak, ingurumenari dagozkionak... Ikuspegi patriarkal batetik begiratzen da fenomeno guztia. Aspaldi ari gara ikuspegi horretatik aztertzen generoari lotutako jazarpena, matxismoari lotutakoa (homofobia, transfobia, lesbofobia, emakumeen salerosketa...), Espainia ez baita halakoak babesten ari. Eta arrazoi politikoez gain, nazioarteko babesik ez daukaten beste arrazoi batzuk ere (eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketa, multinazionalen aldetik) asilo-eskubidearen barruan sartuak izan daitezten saiatzen ari gara gu».

Zenbait eragilek elkarrizketetan salatu dutenez, **gizarteak lehen eta bigarren mailako errefuxiatuen arteko bereizketa egiten du**, haien jatorriaren eta ihes egiteko arrazoiaren arabera:

Errefuxiatuen artean desberdintasunak daude, haien jatorriaren arabera. Nazionalitate batzuek – Siriak eta Palestinak, esaterako – sinpatia handiagoa eragiten dute beste batzuek baino. Beste kasu

batzuetan ezaxola da nagusi (Kongoren kasuan, adibidez). Zergatik? Haiei buruz informazio asko daukagunez, legitimotzat hartzen delako lehen multzokoak errefuxiatuak izatea eta, ezezagutzaren barruan, ezagunagoak zaizkigun errealitate haietatik ihes egitea.

Gizartearen jarrera desberdin horiek ulertzeko, EAEn azken aldian izandako aldaketa demografikoa aipatu dute, halaber, eta errefuxiatuei buruzko imajinario estereotipatua:

Joan deneko hamar urtean gora egin du arabiar populazioak gure artean. Lehen, borroka politikoen-gatik zetozen; orain, arrazoi ekonomikoengatik, eta hori ez zaigu hainbeste gustatzen, ez dago horre-kiko ulermen eta elkartasunik. Errefuxiatuaren figurak zeukan ospea apaldu egin da.

Dena den, Ekialde Ertaineko testuinguruaren kasuan, **Siriako gerrak** eragindako krisi humanitarioak eta erre-fuxiatuen ihesaldiak aldatu egin omen dute euskal herritarrek **errefuxiatuei buruz eta haiek hartzeari buruz zeukaten jarrera**:

Siriarekin gauzak aldatu egin dira, jendea hango egoerarekin identifikatu egin da eta sentsibilitatea eta elkartasuna piztu zaie hango krisi humanitarioa dela eta.

Dena den, jokaeretan eta imajinario kolektiboan izandako aldaketa hori populazio-talde horretara mugatzen da eta ez da errefuxiatu guztiakin gertatzen. Hala azaltzen digu elkarrizketatu batek:

...biztanle-profil horrekiko pertzepzioa ez dugu aurkitzen Melillako hesiaren gainetik jauzi egiten duten Saharaz azpiko gizon beltzen kasuan. Jendeak ez du lotura emozionalki sentitzen haiekin.

Era berean, beste pertsona batek zera zioen:

Arrazismoa dago afrikar beltzekin, «beste» gisa ikusten baititu jendeak. Haiekin ez dugu siriarren ka-suan aurkitzen dugun sentimendu bera ikusten. Jendeak ez du lotura emozionalki sentitzen.

Siriako errefuxiatuen krisiaren kasua paradigmaticoa izan da, gainera, arabiar biztanleei buruzko estereotipo ohi-koenak ez baitzaizkie aplikatu, oro har. Kasu zehatz horretan estereotipo eta aurreiritziak zergatik blokeatu diren aztertzea interesgarria litzateke.

Bestalde, errefuxiatuekiko jarrerak (eta gure kasuan, palestinarrei buruzkoak bereziki) nola eraikitzen diren azal-tzen digun beste ertz interesgarri bat aipatu behar dugu. Hain emozionala ez, baizik eta ideologikoagoa eta po-litikoagoa den zerbaitez ari gara. Gaiari buruzko adituekin egin ditugun elkarrizketek erakutsi digutenez, euskal herritarrek **sinpatia politiko handiagoa diete jatorri jakin bateko errefuxiatuei**. Elkarrizketatutako zenbait lagunek aipatu dute hori.

Euskal herritarrek sinpatia politiko handiagoa diete errefuxiatuei, oro har, etorkinei baino, eta Palesti-nako edo Siriako biztanleei bereziki, gainerako nazionalitatea dutenen aurretik.

Euskal gizartearen zati bat palestinarren eta sahararren kausarekin identifikatzen da eta elkartasuna sentitzen du haiekin, bai politikoki bat datorrelako, bai euskal abertzaletasunak palestinarren kausarekin duen parekotasuna-rengatik. Palestinarrekiko elkartasunak, ordea, gorabeherak izaten ditu hedabideek hango errealitatearen berri ematen duten arabera. Elkarrizketatuek diotenez, «Gaza bonbardatzen badute, jendeak berehala erantzuten du».

Diagnostiko honen protagonista den populazioari dagokionez, euskal herritarrek palestinarrei buruz duten pertzepzioaz galdetuta, elkarrizketatutako zenbait lagunek adierazi dute Palestinak gerra dakarrela gogora. Eta zenbait kasutan, bakea lortzeko ezintasuna edo asperdura ere sentitzen duela jendeak. Lekuko batek honela zioen:

Bakea eraiki ezin deneko leku gisa ikusten ditu jendeak Palestina eta Ekialde Ertaina, oro har, baina ez dute aztertzen gatazka zeri zor zaion edo norentzat den mesedegarria («Palestinak ez du konponbiderik»). Pentsatzen dute jihadismoa eta terrorismoa ekarriko dizkigutela politikaren eta erlijioaren bidez, eta mezu hau zabaltzen dute: «ea nor datorren, denak ez baitira jende zintzoa».

Historikoki, euskal herritarrek sinpatia politikoa sentitu dute estaturik gabeko herriekin (Sahararekin, kurduekin, Palestinarekin), hala identitateari nola nazioari lotutako arazoak zirela eta. Azken urteotan, baina, zera gertatzen ari da, zenbait elkarrizketaturen esanetan:

Euskal gizartea nazioarteko elkartasunetik urruntzen ari da, mugimendu sozialak beste borroka batzuetan baitabilta. Militantzia feministak gora egin du, nabarmen, eta garrantzi handiagoa ematen zaio emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari edo klima-aldaketari, adibidez. Era berean, identitate kolektiboen zatiketa gertatu da eta identitatearen auzia bigarren maila batera igaro da.

Azkenik, euskal herritarrek errefuxiatuez duten pertzepzioari buruzko atal honetarako elkarrizketatu ditugun pertsona batzuek **bektore garrantzitsu bat** aipatu dute: **adina**. Landa-lan kuantitatiboaren arabera errefuxiatuak hartzeko jarrera irekiena daukatenak gazteak (16-30 urte artean) badira ere, errealitate horren inguruko sensibilizazioa zabaltzeko erakundeetan parte hartzen duten pertsonen egindako elkarrizketetan nolabaiteko ezkortasuna ikusi dugu belaunaldi gazteen inguruan:

Zaila da gazteenengana iristea eta nazioarteko elkartasunera ekartzea. Gure gizartea gero eta indibidualistagoa da, gizartea ez da kolektibo gisa ulertzen. Identitateen arabera banaketa gero eta hedatuagoa dago eta gizarteak gero eta gutxiago parte hartzen du ekimen kolektiboetan. Sentimendu eta emozio indibidualak sortzen dira orduan. Errefuxiatuen kanpalekuak direla-eta sentitzen dugun sinpatia benetakoa da, baina soilik urruntetik sentitzen dugu. Kolektiboan oinarritutako loturarik ez dugunez, ez dugu konponbide kolektiborik bilatzen.

## **b) Errefuxiatuekiko, oro har, eta bereziki Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuekiko estereotipo eta jarrerak**

Elkarrizketatutako pertsona gehienek iritziz, **euskal gizartea herri solidarioa** da, ondo hartzen ditu beren herraldetik kanpo joandako populazioak, eta errefuxiatuak, zehazki. Elkarrizketatu horietako batek haxe dio palestinar herriari buruz:

Elkartasun erabatekoa dago palestinar auziarekin eta haiek beren herrialde aliatu eta solidariotzat gauzkate.

Etorrinen etorrerari eta lehen ongietorriari dagokienez, euskal gizartea oso maila altuan dago.

Ikerketa honen bidez atzemandako zenbait ondoriok (arabiar munduarekiko aurreiritziak, eskubideei lotutako ikuspegiak ez egotea) auzitan jartzen dute herri ireki eta solidarioa garelako ideia hori, ordea. Hala ere, etorkinak gure artean ondo hartzeko joera «euskal gizarteak daukan elkartasunean oinarritutako **osagai humanista kristauari**» zor zaio zenbaiten ustez. Emigratu dutenen (euskal diasporaren) oroimen historikoarekin zerikusia duten gaiak ere aipatu ditu baten batek, errefuxiatuak gure artean hartzea «justizia historikoaren pertzepzioaren» eskaerari lotuta dagoela esanez.

Zenbaiten ustez, krisi ekonomikoak «hemen ez gaitu beste komunitate batzuetan bezain gogor astindu», eta ezaugarri horrek, beharbada, eragin garrantzitsua izango du euskal gizartearen elkartasunean.

Horrela, bada, elkarrizketetan ikusi dugunez, **euskal herritar gehienek lotura emozionala sentitzen dute errefuxiatuekin**, baina soilik arrazoi humanitarioengatik, errukiagatik edo penagatik.

Euskal herritar gehienek gertutasun emozionala sentitzen dute errefuxiatuen egoerarekin eta kondizioarekin. Elkarrizketatuek gaiaren inguruan egindako lanetik abiatuta ateratako ondorioetako bat da hori:

Asilo-eskatzailleen egoeraren berri daukatenean, erakundeek eta jendeak errukiz erantzun ohi du: lagundu egin nahi dute, baliabideak eskaini, arreta, haien beharrak asetzen saiatzea dira haien esku-bidea dela aitortuz, ongizate-estaturako sarbidea erraztuz...

Gaian espezializatuta dagoen elkarrizketatu batek honako gogoeta hau egin zuen, horren harira:

Harrera-gizartean bi integrazio-maila aurkitzen ditugu: hasiera batean, barne-barnean daramagun ikuspegi paternalistatik integratzen ditugu [etorkinak]. Euskal gizarteak elkartasuna adierazten die ahulei, ahula dena babesteko pultsio emozionala sentitzen du, baina oso azalekoa da eta ez du besterik ezagutzeko aukerarik ematen. Ez du arazoa konpontzeko edo gurera datozenak integratzeko balio. Bigarren urrats batean, integrazioa daukagu eta hori, bai, landu egin beharra daukagu.

Horrela, bada, elkarrizketetan agerian gelditu denez, errefuxiatuen dramaren aurrean jendeak lehen erantzun gisa erakusten duen enpatia emozional horrek guztiak ez du gero pertsona haien **errealitatea ezagutzeko**, haien prozesuaren arazoietan eta baldintzetan sakontzeko **interesik** pizten.

Ez dira ikusten errefuxiatuak asiloa bilatzera bultzatu zituzten arazoiak, ez dira aintzakotzat hartzen haien ihesaldiaren kontakizunak edo gure arteko desberdintasun kulturalak...

Zergatik? Bada, elkarrizketatuen iritziz, **jendeak ez duelako errealitatea giza eskubideen ikuspegitik eta deon erantzukizun, eskubide eta betebeharrakiko begirada autokritikotik aztertzen:**

Ez da gogoetarik egiten Espainiako Estatuak errefuxiatuei buruzko itunak sinatzearen ondorioz bere gain hartu dituen betebeharren inguruan. Jendeak ez daki errefuxiatua izatea zer den eta erakunde publikoek zer konpromiso hartu dituzten.

Errefuxiatuak hartzeko prozesuan **erakunde publikoekin** egunero lan egiten duen elkarrizketatu batek honela azaltzen digu hori:

Ez dago eskubideen inguruko planteamendurik, errefuxiatuak ez dira eskubidedun subjektu gisa onartzen eta, gainera, erakundeek ez dute haiekin hitz egiten zuzenean, niregana jotzen dute beti, ni bainaiz legitimazioa daukan ahotsa.

Gizarteak kontzientziarik zergatik ez duen eta arreta eskubideetan zergatik jartzen ez duen galdetuta, aditu gehienek **hedabideak** aipatu dituzte:

Hedabideek estereotipo bat zabaldu dute errefuxiatuei buruz –baldintza negargarrietan bizi diren pertsona kalteberak direla eta larrialdiko laguntza behar dutela–, eskubideak daukaten subjektu gisa aurkeztu beharrean.

Lehen aipatutako konexio emozionala elikatzen du horrek, baina **erreakzio hori sakonerarik gabeko erantzun emozionala bihurtzen da, berehalako erantzuna da eta ez dauka inolako hausnarketa politiko eraldatzailerik atzean.**

Beraz, jendea oso gertakari emozionalekin ateratzen da kalera, baina halakoak ez dira batere estrukturalak, eta jendeak deitzen dizu siriar umeak adoptatzeko eskainiz edo ama erditu berri batek siriar ume bati bularra emateko eskainiz... baina jarraitzen dugu entzuten Afrikako beltzek «inbaditu egiten gaituztela», eta beste kolektibo batzuek estereotipoak eta arrazismoa jasaten jarraitzen dute.

Ildo horretatik, telebistako eta hedabideetako irudiek pizten dituzten emozionaltasuna eta enpatia iheskorrak direla salatzen dute, ez dutela konpromisorik edo erantzukizunik sortzen epe ertainean.

Momentuan bizi gara, unean unekoan, berehalakotasunean.

Beste lekuko batek honela azaltzen du hori bera:

«Malko errazen» gaindosi bat izaten dugu; testuingururik gabe, berehalako erreakzio bat gertatzen da, eta sare sozialen dinamikari zor zaio gauzak azaltzeko modu hori: ez zaio testuinguruari begiratzen, irudi hutsarekin gelditzen gara. Berehalakotasun horrek irudi hunkigarriak bilatzera bultzatzen gaitu, malko errazekoak, eta jendea sutu egiten da, baina haserrealdiak bost minutu irauten digu. Harago ikusten uzten ez digun unearen diktaduran bizi gara.

Elkarrizketatu batek «berehalako elkartasun» gisa definitzen zuenaren aurrean gaude, beraz: «unean uneko al-bisteak dira, baina gero ez ditu inork gogoratzen». Siriaren kasu zehatzean, elkartasuna edo jarrera irekiago eta enpatikoagoa pizten duten beste arrazoi batzuk aipatzen dira:

Pertsona «zuriak» dira, gu bezala, eta gureak bezalako ikasketak eta lanak dauzkate. Horregatik enpatizatzen dugu haiekin.

Lotura emozional horrek bi aurpegi ditu, elkarrizketetan ikusi dugunez. **Kolektibo horren inguruan zabaldu diren estereotipo eta aurreiritzi negatiboek lotutako erro emozional bat dago** azpian:

Arazoa zera da: jendeak diskurtso emozionalak osatzen ditu, funtsean, eta halakoak desagitzen saiatzen zarenean, jendeak maila pertsonaletik bizi du hori guztia, eta oso zaila da emozioei lotutako argudioei aurre egitea (...niri lapurtu egin zidaten behin, ni lanik gabe gelditu naiz, eta abar).

Baieztape interesgarria da, estereotipo horiek desagiteko estrategian nondik jo erakusten duelako eta, era berean, errefuxiatuak eskubideen ikuspuntutik birbaloratzeko eta duintzeko GEHren alorrean egin beharreko lana bideratzeko modua zehazten duelako:

Zaila da, emozio batzuk ez baitaude arrazoimenarekin lotuta, barrenak esaten digunarekin baizik. Horregatik, emozioetara jo beharra daukagu estereotipo horiek desagiteko.

Alde horretatik, elkarrizketatu batzuek beren lekukotzetan argi utzi dutenez, euskal gizarteak ez du **elkartasun internazionalista parekidea sentitzen pertsona guztiekin, haien jaioterrria edozein dela ere:**

Gertatu zaigu EAeko familia bat errefuxiatu bat etxean hartzeko tramiteak egiten ari ginela, zera entzutea: «Familia Siriakoa ez bada, ez dugu nahi». Hasiera batean onartu egiten dituzte, baina familiaren jatorria ezagutzen dutenean, batzuek baztertu egiten dituzte.

Esandako guztia gorabehera, zenbait elkarrizketak nabarmendu dute baietz, badagoela errefuxiatuekin elkartasuna erakusten duen sektore bat gure gizartean. Elkartasun hori, ordea, pitzatzen hasten da norbere **erosotasunaren edo bizimoduaren** alderdiren bati uko egin beharra dakarrenean.

Bi jarrera aurkitzen ditugu: sentsibilizatuta eta konprometituta dagoen jendeak babesa erakusten du, eta errefuxiatuei ongietorria egin eta geure artean hartu behar ditugula uste du; baina bada immigrazioari buruzko mito faltsuen eta informazio okerren eragina bereziki jasaten duen populazioaren beste puska bat ere.

Errefuxiatuak beste herrialde batzuetan, gure mugetatik kanpo, zeuden bitartean, gure jarrera askoz irekiagoa eta sentikorragoa zen, ulertzen genuen jendeak gerretatik ihes egitea eta hori guztia... baina gure erosotasunaren atean jotzen hasten direnean, gure jarrera aldatzen hasten da. Laguntzearen aldeko jarrera dagoela esango nuke, bai, baina... Eta hortik sortzen dira estereotipoak.

Mugikortasun-egoeran dagoen populazioaren eta, horren baitan, errefuxiatuen kontrako jarrera arrazista eta xenofoboaren gorakada Espainiako Estatuan eta EAEn azken urteotan jasandako **krisi ekonomikoaren** ondorioa dela aipatu dute zenbait elkarrizketak. Hainbat baieztapen jaso ditugu horren harira:

Orain dela hamar-hogei urteko diskurtso eta irudi berberak erakusten jarraitzen dute hedabideek, baina jendearen ongizatea aldatu egin da. Krisiarekin okerrera egin du gure bizi-kalitateak eta jendeak haiei botatzen die errua, egungo egoerara eraman gaituen sistemari bota beharrean.

Ongizaterik ez baduzu, errua beste norbaiti leporatu behar, eta telebistek eta politikariek ederki erakusten digute nor den etsaia.

Eskuin muturreko alderdiak hazi egiten dira ondo ez dabilzan herrialdeetan. Horri zor zaio eskuin muturreko alderdiek Espainiako Estatuan izandako gorakada. Murrizketa erabatekoak egiten ari diren testuinguruan, oso erraz saltzen da gure gaitzen errua besteei botatzea.

«Gero eta enpatia gutxiago daukan munduan bizi gara. Hedabideek enpatia eta ezagutza piztu behar dituzte», salatzen zuen beste elkarrizketatu batek. «Gaitza saltzea oso erraza da». Krisi garaian «errudunak» bilatzen ditugu. Imajinario kolektiboa osatzeko garaian, «biztanleriaren zati bat gaitz guztien errudun gisa aurkezten ari dira, segurtasuna aitzakiatzat hartuta, eta horrek arbuioa eragiten du».

Egia esan, ez da erraza beste kultura, testuinguru eta hizkuntza bateko jendearekin tratatzea, baina zenbait elkarrizketak salatu dutenez, hainbat sektore zailtasun horretaz baliatzen ari dira haiekiko arbuioa pizteko:

Idea eta kontzeptu horiek (ongiaren eta gaizkiaren ardatza) jendeari buruan iltzatzen joaten zaizkio eta imajinarioa sortzen joaten dira pixkanaka-pixkanaka. Gizarteak etsai bat behar du, gure premia-egoeraren (krisia) «errua» daukan norbait.

Euskal gizartearen diskurtsoan Ekialde Ertaineko errefuxiatuen inguruan dauden estereotipo eta aurreiritziei buruz ari garela, eta aurreko atalean aipatu dugun moduan, gogoan izan behar dugu arabiar guztiak multzo homogeen gisa aurkezten zaizkigula maiz, eta **haiei buruzko estereotipoek eragina daukatela Ekialde Ertaineko** (eta Palestinako) **errefuxiatuengan** ere. Gure gizartean arabiar jatorriko (edo itxurako) gizonei buruzko estereotipo ohikoanakin zein diren galdetuta, hauxe erantzun digute zenbait elkarrizketak, beren pertzepzioari eta gaiarekin dute loturari jarraiki:

Matxista, lapurra, eskuluzea, meskitak, fanatikoak, garrasi egiten duen jendea, jende zikina, laguntza sozialez aprobetxatzen dira, laguntza sozialen jasotzaile absolutuak dira, laguntza horietaz abusatzen dute...

Gai horretan aurrerago sakonduko dugun arren, **emakume arabiarrei buruz** ere badira errealitatearekin zerikusirik ez duten **estereotipo eta aurreiritziak**.

Arabiar emakumei buruzko imajinario sozialaren arabera, emakume otzanak dira, zapia daramate buruan, ez dakite senarrari ezetz esaten eta haren mende bizi dira, ezin dute gizonekin sozializatu, musulmanak dira, ez dira kalera ateratzen, ez dute etxetik kanpo lan egiten eta ekonomikoki mendeak dira.

Dena den, genero-desberdintasun nabarmenak alde batera utzita, arabiarrei dagokienez, **begirada ikaragarri kolonialista** batean oinarritutako estereotipoak dauzka gure gizarteak, elkarrizketatu askoren iritzi.

Populazio horren inguruan dagoen imajinarioan denak dira estereotipo negatiboak: pobrezia, laguntza sozialez aprobetxatzea, islamofobia, analfabetismoa (batzuek masterrak eta doktoretzak eduki arren)... Diskurtso koloniala dago.

Ildo horretan, gai interesgarri bat aipatu dute elkarrizketatuek: **Iparraldeko herritarrek garen aldetik** Hegoaldeko herrialdeen gatazkekin eta baliabide-gabeziarekin **daukagun erantzukizuna**.

Herritarrok ez gara konturatzen herrialde gisa etorkin askoren jaioterriaren egoerarekin daukagun erantzukizunaz, jendeak ez du gogoeta egiten eta pentsatzen «gu ere arazoaren parte» garela, ez errutik, erantzukizunetik baizik, eta ez diogu gure kontsumo-ereduari erreparatzen, edo baliabide kolonialen arpilatzeari, edo nazioarteko merkataritza-jokoaren arauiei...

Argudio berari jarraiki, nazioarteko harreman kolonialei eta gaur egun babesa eskatzen duten herrialdeetako baliabideen arpilatze historikoari buruzko **oroimen historikorik eza** aipatzen zuen beste batek.

Elkartasuna erakusteko betebeharrak morala dugu, baina iruditzen zaigu gure eskubidea dela bizi garen moduan bizitzea, irabazi egin dugula, eta denak berdin jarraituko duela. Ez dugu inolako erantzukizunik sentitzen. Pertzepzio horrek gizarte gisa erreakzionatzea galarazten digu.

Oroimen historikoa falta zaigu. Ahaztu egin zaigu historian zehar errefuxiatuak bidali ditugula guk, luzaroan egin ere, eta gure herrialdearen barruan ere asko direla arrazoi ekonomikoengatik batetik bestera alde egin behar izan dutenak, ez aberasteko, jateko adina irabazteko baizik.

Ekialde Ertaineko errefuxiatuekin lan egiten duen pertsona batek gai garrantzitsu bat aipatu du euskal herritarrek errefuxiatuekin dauzkaten jarrera batzuk azaltzeko (ez zurrizko): **populazio horrek espazio publikoa okupatzen duelako** pertzepzioa.

Ekialde Ertaineko etorkinek espazio publikoa okupatzen dute, kalean egoteko ohitura daukate. Eta horrek erreakzio bat eragiten du harrera-gizartean, «besteak» «gure espazioa» okupatzen ari dela iruditzen baitzaie.

Bai elkarrizketatuek bai gaiari buruzko ikerketa espezializatuek (gorago aipatu dugun Ikuspegiren barometroak, esaterako) diotenez, etorkinek (eta horien artean errefuxiatuek) harrera-gizarteko **ongizate-gizarteak eskain-**

**tzen dituen laguntza sozialak asko (neurrigabe) erabiltzen dituztelako** aurreiritzi edo zurrumurrua oso hedatuta dago. Elkarriketatu batek honela azaltzen zuen:

Ez dago diskurtso egituraturik, zuzeneko ebaluaziorik, baina batzuk etengabe ari dira praktika batzuk auzitan jartzen, «dirua kostatzen ari zaizkigula» erakusteko.

Talde bateko kide ez sentitzeko fenomeno soziologiko horri berari jarraiki, euskal herritarren artean moral bikoitzari erantzuten dioten zenbait judizio eta estereotipo daudela ikusi dugu: **moral hori zorrotzagoa da eta aurreiritzi gehiago dauzka kanpokoekin bertakoekin baino**. Bertakoek egiten dituztenean auzitan jartzen ez diren jokamolde eta ekintzek kritika gogorrek jasotzen dituzte (arbuioari eta xenofobiari lotutako diskurtsoaren barruan) kanpotarrek egiten dituztenean. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)<sup>37</sup> dugu adibiderik argienetakoa.

Gehien hedatutako eta batere kontrastatu gabeko estereotipo bati jarraiki, errefuxiatuek gizarte-laguntzak eta DSBE jasotzen dituzte, eta haietaz abusatzen dute. DSBE jasotzen duten eta inolako ekarpenik egiten ez duten euskal herritarrei buruz, ordea, ez da irakurketa kritikorik egiten, onartu egiten da, inolako kritikarik gabe. Jasotzen duena etorkina denean, berriz, kritikak jasotzen ditu.

Zenbait adituk ohartarazi dutenez, **arabiar komunitateari zuzendutako jarrera eta jokamolde arrazistak** ikusten dira euskal gizartean. Azken urteotan, zenbaiten ustez Irailaren 11z geroztik, arrazakeria gero eta hedatuagoa dago eta gero eta onarpen handiagoa dauka gizartean, arabiar komunitateari zuzendutakoak bereziki.

«Ez dugu mororik nahi» bezalakoan atzean dauden emozio eta beldurrak magrebtarrak bezainbeste ukitzen ditu Palestinako eta Ekialde Ertaineko herritarrak, kaleko jendeak ez baitu alderik sumatzen haien artean.

Beste elkarriketatu batek argudio bera azpimarratu zuen:

Uste dut jendeak ez dituela palestinarrak edo marokoarrak bereizten, «arabiarra dena arabiarra da», eta imaginario kolektiboan berdina da moroa, marokoarra eta etorkina.

Arabiarrekiko jarrerari *islamofobia* delakoa gehitzen zaie: musulmanak direla iruditzen zaizkigunekiko arbuioa.

Jatorriaren eta erlijioaren aldagaiak gurutzatzen direnean areagotu egiten da arbuioa. Ez dira berdin ikusten magrebtar edo aljeriar bat eta kurdu bat.

Horren harira, beste datu garrantzitsu bat aipatu behar dugu: **arabiar gizarteak ikaragarri matxistak direla uste du imaginario kolektiboak**. Mendebaldeaz kanpoko gizarteak, Ekialde Ertainekoak eta Magrebkoak bereziki, ikaragarri matxistak direlako ideia eta aurreiritzia zabaldu da gure gizarteetan. Euskal gizartea berdintasunaren miraria deritzon horretan bizi da: jende gehienak uste du gure gizartean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortu dela dagoeneko, erakundeek eta gizarte-eragileek zabaltzen dituzten datu objektiboek besterik dioten arren. Parekidetasuna lortu gabe dago fronte askotan: gizonen eta emakumeen soldaten arteko aldea daukagu, beirazko sabaia, erantzukizunak ez dira banatzen... Hala ere, errazagoa da geurea ez diren beste gizarte batzuk matxistatzen jotzea, haien benetako azterketarik egin gabe. Horixe diote zenbait elkarriketatuak:

<sup>37</sup> DSBE (Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta) Euskal Enplegu Zerbitzuak (Lanbidek) ematen die beren oinarritzko beharrak asetzeko baliabide nahikorik eduki ez eta bazterketa soziala jasateko arriskuan dauden pertsonen. Informazio gehiago hemen: [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net).



**Genero-islamofobia** daukagu bestetik. Landa-lanean elkarrizketatu dugun aditu batek honela azaltzen digu zer den:

Erljioak modu bortitzagoan zanpatutako emakume otzan eta gaizki tratatuen imajinarioa sortzen da, baina ez patriarkatuari buruzko gogoeta batetik abiatuta. Gizarte haiek ikaragarri matxistak dira, jende guztia (hala gizonak nola emakumeak) da matxista eta ez dago feministarik (Mendebaldeko feminismoaren barruan ere aurkitzen dugu genero-islamofobia hori).

Paradoxikoa da geureaz bestelako kulturak nola epaitzen ditugun **erlijioaren ikuspuntutik**, erlijio katolikoa Mendebaldeko gizartean zeinen errotuta dagoen konturatu gabe. Ildo horretatik:

Muga/galga jartzen zaie gureaz bestelako kultura eta erlijioei, ustezko laiktasun baten izenean, baina ez da inolako autokritikorik egiten gure ohitura, sinesmen eta arau sozialen azpian dagoen oinarri erlijiosoari buruz. Gure gizartea Mendebaldeko balioetan oinarritzen da eta horiek dira balio dutenak. Inork ez du irakurketa kritikorik egiten balio horien azpian dauden printzipio kristau eta katolikoengandik inguruan.

Arabiar jatorriko pertsoneri buruz guztiz hedatuta dagoen estereotipo bat sortzen da horrela eta eragina dauka ikerketa honetan aztergai dugun kolektiboarengan ere: Ekialde Ertaineko, eta bereziki Palestinako, populazioan. Elkarrizketatu batek honela zehaztu zuen:

Atzeritarrek, arabiar kulturek, baina baita latinoamerikarrek ere, «matxismoa dakartelako» estereotipoaz ari gara. Estereotipo horren arabera, kolektibo horietan handiagoa da emakumeen aurkako indarkeria.

Elkarrizketatu batzuek azpimarratu dutenez, **hedabideek eta alderdi politikoek** imajinario hori sortzen eta indartzen laguntzen dute beren jarrera ideologikotik abiatuta, modu interesatuan egin ere:

...zapalduta dauden emakume arabiarrek salbatzeko mezuak botatzen dituzte, baina mezu horiekin eraso larriagoak justifikatzen dituzte (buru-zapia daraman emakume bati autobusera igotzen ez uztea Gasteizen)<sup>38</sup>, eta populazioaren sektore hori diskriminatzeke mezuak zabaltzen dituzte. Berdintasun-printzipioa babesten dute itxuraz, baina ez dute praktikatzen edo sinesten, mezu horretaz baliatzen dira, etorkinen eta islamaren aurkako beren politikak bultzatzen laguntzen dielako... Izugarritzko pagotxa da beren programaren eta balio politikoaren propaganda egiteko.

Esparru teorikoari buruzko atalean esan dugun bezala, **komunitate bati buruzko estereotipo eta aurreiritziak eraikitzeak** komunitate horrekin (gure ikerketari dagokionez, arabiar populazioarekin) partekatzen ditugun erroak ukatzea dakar. Zenbait elkarrizketatuk aipatu dutenez, espainiarren eta latinoamerikarren artean erro komunak partekatzen ditugulako sentsibilitaterik eta sentimendurik ez dugu aurkitzen arabiar populazioaren kasuan.

Espainian ez dago oroimen historikorik, eta pisu handiagoa dauka lauhun urte iraun duen kristautasunak, garai batean izan ginen gizarte musulmanaren zortziehun urteek baino. Gure nortasunaren zati hori ukatzen eta gaitzesten du jendeak, eta horrek elikatu egiten du espainiar sentimendu nazionala.

Elkarrizketatutako pertsona guztiek diote euskal gizartea **kulturaniztasunera bideratuta dagoela, nortasun desberdinen arteko derrigorrezko elkarbizitzara**, baina jendeak ez duela nahasteko gogorik eta ez duela kulturartekotasuna onartzen.

38 Ikus hurrengo albistea: <https://www.elmundo.es/pais-vasco/2014/11/07/545ca668e2704eed478b457a.html>.

Ildo beretik, asilo-eskatzaileei lana bilatzen laguntzen dietenek beren kezka agertu dute, errefuxiatuak euskal hiri handietako auzo jakin batzuetan «ghetto modukoetan pilatzeko» arriskua dela eta.

Gizarte kulturantz batean bizi gara, baina biztanleriaren sektore hori ghettoetan pilatzen da, gure hirietako auzo jakin batzuetan. «**Hirigintzari lotutako segregazio**» bat daukagu (etorkinak auzo jakin batzuetan pilatzen dira, alokairuak merkeagoak direlako han eta ez dituztelako kanpotarrak diskriminatzen). Ez da zerbait formala, baina maizterrak aukeratzeko garaian jabeek argi hitz egiten dute eta «ahozko kontratu murriztaileak» aplikatzen dituzte. Laguntza sozial kolonialaren fenomeno gehitu behar diogu horri, ghetto bihurtutako auzo horiek ez baitute asistentzia sozialik izaten (osasu-eterik, eguneko zentrorik, ikastetxerik...).

Integratzeko **baldintza bat** jartzen da beti: **ekoizpen-sistemari ekarpena egitea**. Honelaxe azaltzen digu beste pertsona batek:

Aldagai ekonomikoa erabakigarria da integrazioa ahalbidetzeko garaian.

Akademiako espezialista batzuek EAetik kanpo ere aurkitzen dugun fenomeno kultural batekin lotzen dute jarra hori, Europar Batasunaren kontzepzioarekin berarekin zerikusia duen zerbaitekin:

Salgaiak, zerbitzuak eta kapitalak ez dira inoiz arazo izan, bai, ordea, pertsonen mugimendua.

Oinarrizko arazo bat daukagu: harrera-gizarteek, euskal gizarteak barne, ez dute oso ondo ulertzen «jendeak ez duela kapritxoagatik migratzen; eta migrazioaz hitz egiteko garaian, hori kontuan hartu beharra dago».

### c) Eztatanda publikoaren eta proiektio sozialaren kanal eta euskarri nagusiak

Estereotipo eta aurreiritziak zein kanalen bidez zabaltzen diren eta euskal gizartean haiek blokeatzeko edo desgaitzeko mekanismorik ba ote dagoen ere aztertu dugu ikerketan.

Ildo horretatik, lehen ondorioetako baten arabera, **ez dago EAEn integratutako errefuxiatuen erreferenterik**, edo ez dira balioesten, ez behintzat goian aipatutako aurreiritziek eztabaida publikoan daukaten garrantzi berarekin.

Jendeak ez daki gure artean bizi diren asilo-eskatzaile askok zenbateko ahalegina eta lana egiten duten, zenbat sakrifizio egin behar dituzten aurrera ateratzeko; eta ez dakite lan-merkatuan ghettoetan daudela, guk nahi ez ditugun lanak egiten baitituzte oraindik. Ikusiko dugu zer gertatzen den ghetto horietatik atera eta lan-merkatu berean gurekin lehiatzen hasten direnean. Beste arrazakeria-eztatanda bat?

Batzuek diote ahoz ahokoan, **senide eta lagunen artean eta esparru pribatuan daukatela estereotipoek eraginik handiena**. Baten batek inolako testuingururik gabe kontatutako gertakariak egia absolututzat hartzen dira, hedatu ahala kontakizun horiek aldatuz badoaz ere.

Ia jende guztiak esaten dizu boliviarrak bat laguntza sozialez aprobeztatu dela, edo marokoar batek esku-zorroa lapurtu ziola bere lehengusuari... baina beti dira bigarren edo hirugarren eskuko kontakizunak, eta horrelaxe zabaltzen dira gezurrak eta hazten dira estereotipoak.

Ikerketa honen harira, ekarpen teoriko interesgarria egin zigun elkarrizketatu batek: **mikroarrazismoak** terminoa aipatu zuen.

Gaur egun ez dago bere burua arrazistatzen hartzen duen jende askorik, bere burua matxistatzen jotzen duen askorik ez dagoen bezala, baina eguneroko jokamoldeak ikusi behar hemen, jarrera xenofobia erakusten baitute eta mikroarrazismotzat jo genitzake (arabiar bat ikustean esku-zorroa ezkutatzea, mesfidantzaz begiratzea, espaloiz aldatzea...). Halakoak maiz egiten ditu jendeak, eta haiek konturatu egiten dira.

Luis Boninoren *mikromatxismo* kontzeptuarekin gertatzen den bezala, *mikroarrazismo* terminoak herritar guztiei mezu argi bat zuzentzeko aukera ematen digu: txikiak izan arren, gizartean arrazismoa areagotzen duten jokamoldeak eta jarrerak identifikatu beharra dagoela. Jokabide horiek diskurtso xenofobia legitimatzen eta txertatzen dute gure artean, eta jendeak sinistu egiten ditu lehen aipatu ditugun kontakizun eta gezurrak.

Dena den, euskal gizartean atzerritarren kopurua handitu ahala ugaritu egin da bertakoen eta kanpotik etorritakoen arteko harremana eta bizikidetzak. Alde horretatik, **auzo edo herri berean eguneroko harreman pertsonalak edukitzeak lagundu egiten omen du gizartearen barruan integrazioan sakontzen**. Horrek aldaketak eragiten ditu arabiarren inguruko diskurtsoan eta begiradan lehen haien kontrako arbuioa erakusten zuten pertsonen artean.

Bestalde, eta ikuspegi globalago batetik, Ekialde Ertaineko eta Palestinako errealitatearen inguruko informazio-iturri nagusietako bat dira **hedabideak**, zalantzarik gabe. Hala idatzizkoak nola ikus-entzunezkoak. Horren harira, inkestatu ditugun prentsako eta telebistako arduradunek informazio interesgarria partekatu dute diagnostiko honetan aztergai hartu dugun inguruaz –Ekialde Ertainaz eta Palestinaz– informatzeko eta hango egoeraren berri emateko oztopoei buruz. Elkarrizketatu batek zera aipatzen zuen:

Guk nahiko genuke Ekialde Ertainari buruzko albisteek jarraipen eta estaldura handiagoa edukitzea, baina zer argitaratuko den erabakitzen dutenen iritziz gai horiek gutxi saltzen dute.

Albistegietako editorialak eta edukiak erabakitzen dituztenentzat errefuxiatuen egungo krisiak interesik ba ote duen galdetu diegu hedabideetatik datozen elkarrizketatuei, eta baietz erantzun dute:

Bai, interesgarria eta komenigarria iruditzen zaie errefuxiatuen krisiak Europako mugetan nola eragiten digun erakustea.

Gai horri espazioak eta denbora-tarteak emateko garaian aurkitzen dugun argudio nagusia honako hau da: «beste gai batzuekin lehiatzen direla, eta beste horiek, beharbada hain garrantzitsuak ez izan arren, gehiago saltzen dutela».

Gainera, kontua ez da informatzeko **denbora-tarteak eta espazioak** eskaintzea soilik, gertatzen ari denari buruzko ideia global eta sakona garatzeko aukera ematen duten datuak eta informazioak ere eman behar zaizkie herritarrei, testuinguru egokian txertatuta. Hori ikusita, elkarrizketatuek zera adierazi dute:

Labur bada ere, gu saiatzen gara gaiaren testuingurua aurkezten, baina batzuetan berrogei lerro baino ez ditugu (zutabe bat).

Euskal herritarrek bateko eta besteko errealitatearen arabera sentitzen duten sinpatia-maila desberdinari buruz gorago esan dugunaren haritik, krisi humanitarioen eta errefuxiatuen krisien kasuan ere aldeak egoten dira **oihartzun mediatikoari** dagokionez.

Leku batzuei buruz askoz informazio gehiago ematen da eta jendeak zilegitzat jotzen du [errefuxiatuek] (ezezagutzaren barruan) ezagunxeagoak zaizkion errealitate haietatik ihes egitea.

Hedabideetako langile batzuek **autokritika** egin dute beren lanaren inguruan:

Errefuxiatuentzako laguntza/harrerari buruzko informazioa zerbait folkloriko gisa aurkezten da, sako-  
neko tratamendurik gabe. Gu saiatzen gara gertatutakoa azaltzen eta testuinguruan kokatzen, zergatik gertatu den argitzen, eta lekukotzat jasotzen (Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak edo Nazio Batuen agentzienak, adibidez).

Informazioaren tratamendua aztertzeke garaian, albisteari edo informazioari **emozionaltasuna emateko beharra** aipatu dute elkarrizketatuek:

Enpatia eta giza ikuspegia zaintzen ditugu. Gatazkak ez dira termino geopolitikoetan aztertu behar soilik. Informazioa gai geopolitikoetara mugatzen bada, ez ditugu joko-taula geopolitikoaren ondorioak azaltzen.

Dena den, konturatzen dira alderdi emozionalari lotzeak berekin dakartzan **arriskuez**.

Ez genuke jendearen nahigabea esplotatu behar, ezin gara morboan erori. Adibidez, sexu-indarkeria-  
ren edo torturaren kasuan ez dago xehetasunik eman beharrik, pertsonen duintasuna eta isiltasuna errespetatu behar dira.

Ildo horretatik, euskal herritar gehienak errefuxiatuen dramatik emozionalki deskonektatuta daudela uste dute hedabideetako ordezkariak.

Gaiari buruzko ezezagutzak, batetik, eta testuingurua aurkezten duen informazio zorrotzik ez edukitzeak, bestetik, zaildu egiten du herritarrek errefuxiatuekin konektatzea eta enpatia sentitzea.

Elkarrizketatutako hedabideek zera azpimarratu dute: **jendeak ez duela konexiorik sentitzen errefuxiatuen errealitatearekin eta dramarekin**. Eta horrek beren lana oztopatzen duela diote. Ondorioz, berri emateko garaian dilema bati erantzun behar izaten diote:

Harrera-komunitate gisa, nola jasotzen dugu informazioa? Nola ulertzen dugu? Datuak falta zaizkigu. Herritarrek jakintza-eremua zabaltzen saiatu behar dute, baina ez da erraza. Herritarrei ez zaie gustatzen datuak jasotzea.

Alde horretatik, **irudiak** tresna erabilgarria dira, eta hedabideen alorrean oso baliabide indartsua zerbaiten berri emateko eta hartzaileengan erreakzioak sortzeko.

Grafikoak drama ez islatzen saiatzen dira, baina profesional bakoitzak kontu handiz zaintzen du bere esparrua eta bakoitzak bere ikuspegia dauka. Batzuek irudi artistikoak bilatzen dituzte, adibidez, errealitatea islatzearen kaltetan. Egia da ez dela bateraezina errealitatea [errefuxiatuak] biktimizatu gabe erakustea eta irudi artistiko bat erabiltzea, baina... non dago muga? Zergatik zaintzen da gehiago europarrak diren hildakoen tratamendua siriarrarena baino, esate baterako? Siriako irudiek, adibidez, bi motatako erreakzioak pizten dituzte: errefusa, «ez iezadazu drama erakutsi», edo bat-bateko, une bateko, pena eta errukia.

Gainera, hedabideetako ordezkariak kritikoak dira eta onartzen dute **ez dela modu berean** informatzen, leku batzuei buruzko irudiak ez baitira erakusten eta horrek areago ezkututzen ditu imajinario kolektibotik.

Yemeneko gosetearen argazkirik, Siriako edo Afganistaneko irudirik ez da argitaratzen, esaterako.

Era berean, irudi jakin batzuen olde etengabea ikusteak bilatzen ez den ondorio bat dakar, halaber: errealitate baten berri eman beharrean, **estereotipoak elikatzen laguntzen da**.

Hedabideek paterei buruz etengabe zabaltzen dituzten irudiek aurreiritziak eta estereotipoak elikatzen dituzte, beldurra pizten baitute (inbasioaren aurrean) eta egoera kaskarrean bizi diren eta larrialdiko laguntza behar duten pertsonen estereotipoak indartzen dituzte, eskubideak dauzkaten subjektu gisa aurkeztu beharrean. Irudion eraikuntza gidatzeko kode etiko bat behar dugu, eta etika pixka bat aplikatu beharko genuke imajinario hori osatzeko garaian.

Horren harira, **desinformazioaren eta estereotipoak indartzearen ondorio horiek saihesteko jardunbide egokiak** aipatu dituzte zenbaitek.

Testuingurua ezagutu behar dugu, zergatik egin duten ihes, zer egiten zuten ihes egin aurretik... Dagoeneko existitzen den dramaren berri eman behar dugu baina «sentsazionalizatu» gabe, eta haien eguneroko borroka eta errefuxiatu izan aurretiko bizitzak azaldu. Sentsazionalismoan eta dramaren erortzea saihestu behar dugu, haien egunerokotasunaren berri eman behar dugu, haien eguneroko bizimodua erakutsi.

Gaiarekin eta errefuxiatuekin harremana daukaten gizarte-eragileek nabarmendu dutenez, hedabideek **eragin erabakigarria dute euskal herritarrek gaiarekin** dauzkaten jarrera eta jokabideetan. «Aylanen kasua» mugarririk nabarmenetakoa izan zen, alde horretatik.

Turkiako hondartzako umeari buruzko irudiak hedabideetan azaltzea inflexio-puntua izan zen.<sup>39</sup> Jendea haserretu egin zen, galderak egiten hasi zen eta erreakzionatu egin zuen. Sirian zer gertatzen zen jakin nahi zuen, eta Espainia zer egiten ari zen Siriatik etorritako errefuxiatuekin. Argazki hura inflexio-puntua izan zen ministerioak errefuxiatuen harrerari buruz zeukan politikan, gizartearen presioak eta sentsibilitateak ordura arteko politika aldatzera bultzatu baitzuen. Denbora pasatu ahala, gizarteak sentsibilizazioa galdu du, berriro. Orduz geroztik, hondartzako haurrarena baino irudi gogorragoak ikusi ditugu, baina ez da ezer gertatzen, gizarteak ez du erreakzionatzen. Geure burua babesteko mekanismo batzuk dauzkagula ematen du, gertatzen denetik babesteko sortzen joaten garenak, interpelazioa iritsi ez dakigun.

Ildo horretan, zenbait eragilek hedabideak aipatu dituzte –eta Siriako errefuxiatuen krisiaz egin duten jarraipena, bereziki–, **elkartasun eta ongietorriko erreakzio sozial jendetsuaren eragile gisa**.

Ekimen positiboak ere aipatu behar ditugu, Ongi Etorri plataformak edo etorkinei laguntzeko logistika egituratzeko, auzoetan (Santutxu, Sanfran, Bilbi, Atxuri<sup>40</sup>...) sortutako sareak, esate baterako.

Elkarrizketatutako hedabideetako profesionalak nabarmendu dutenez, hedabideen inpaktua aldatu egiten da **komunikatzeko erabiltzen den tresnaren** arabera. Hedabideak informazio egiazkoa eta estereotiporik gabekoa zabaltzeko tresna gisa modu kritikoa aztertzeko garaian, informazioa zabaltzeko bitarteko desberdinak eta bakoitzaren ezaugarriak aintzakotzat hartzea komeni dela diote.

Ikus-entzunezko euskarriaren berehalakotasunak gaietan sakontzea eragozten du. Prentsa idatzia analitikoagoa da, aldiz: analisi gehiago dauzka, erreportaje gehiago, sakonera handiagoa, eta ez dugu mundu digitalak bezain beste «erasorik» jasotzen.

39 Ikus: [https://www.elconfidencial.com/ultima-hora-en-vivo/2015-09-03/aylan-kurdi-simbolo-de-la-tragedia-de-los-refugiados-sirios\\_676524/](https://www.elconfidencial.com/ultima-hora-en-vivo/2015-09-03/aylan-kurdi-simbolo-de-la-tragedia-de-los-refugiados-sirios_676524/).

40 2018ko udan migratzaileei harrera egiteko eta elkartasuna erakusteko herritar-sare bat sortu zen Bilboko zenbait auzotan: [https://www.eldiario.es/norte/euskadi/migrantes-paso-ahora-duermen-Santutxu\\_0\\_806319834.html](https://www.eldiario.es/norte/euskadi/migrantes-paso-ahora-duermen-Santutxu_0_806319834.html).

Alde horretatik, Internet eta sare sozialak dira hedabide gisa kritikarik gehien jasotzen dituztenak eta, aldi berean, konplexuenak. Ildo horretan, pertsona batek zera dio:

Sare sozialen «presioa» izugarria da eta ontzat ematen dituzte egiazkoak eta zorrotzak ez diren albisteak. Paperak, aldiz, gehiago irakurtzeko eta galderak patxadaz egiteko aukera eskaintzen du.

Sare sozialen erabilera gero eta zabalagoa da gizartean eta horrek arriskuan jartzen du kazetaritzaren zorrotztasuna:

«Berehalako klik-aren» mende bizi gara, Twitterren bat-batekotasunari lotuta, testuingurua ez da aintzat hartzen, irudiak ikusgarriak izatea da axola duena.

Sare sozialen «informatzeko» mekanikak ezereztu egiten du errefuxiatuen errealitatea, gizatasuna ukatzen die. Eta ikuspuntu horrek biktimizatu egiten ditu errefuxiatuak.

Era berean, zabaltzen den **informazio motan eragina daukan beste aldagai bat hedabideen oinarrian dagoen ideologia** dela aipatu du baten batek. Zenbait hedabidetako arduradunen esanetan, hedabidearen ideologiak gutzit baldintzatzen du zer informazio aukeratzen den eta nola lantzen den.

Euskal gizartea Palestinaren alde dago, baina, Ekialde Ertaineko gatazkei dagokienez, ezkerre bantuta dago hango gatazken (Libiaren eta Siriaren, eta are Irakeko kurduen) berri emateko moduari dagokionez: *Siriako iraultza* edo *gobernua* edo *erregimena* terminoak erabiltzeak, adibidez, definitu egiten zaitu. Sahararekin, Kurdistanekin eta Palestinarekin gertatzen denaren aurka, ezkerreko kazetarien arteko zatiketa oso nabaria izan da eta gatazka kontatzeko modura hedatu da. Euskal ezkerrek jarrera argia du Sahara, Kurdistan eta Palestinaren inguruan, ez, ordea, arabiar «iraultzen» kasuan. Tratamendu desberdina: iraultza? Irakeko kurduak?

Estereotipoak eta aurreiritziak zabaltzeko garaian elkarrizketatuek gehien salatu duten elementuetako bat **albiste faltsuak edo faltsutuak** izan dira. *Fake news* direlakoak estereotipoak eta aurreiritziak berresteko tresna dira. Desinformatzeko helburuz, albiste-atari, prentsa, irrati, telebista eta sare sozialen bidez zabaltzen diren sasi-kazetaritzako edukiez osatutako gezurrak dira *fake news* horiek<sup>41</sup>.

Eta nahita zabaltzen dira jendeari ziria sartzeko, jendearen erabakiak manipulatzeko, erakunde, pertsona edo instituzio baten izen ona zikintzeko, nahiz irabazi ekonomikoak lortu edo interes politikoak elikatzeko. Albiste faltsuak propagandarekin eta egia-ostearekin lotuta daude. Albiste faltsuek gertaera faltsuak benetakoak balira bezala aurkezten dituztenez, arrisku larria dira hedabide serioentzat eta kazetari profesionalentzat. Komunitate baten portaeran eragina izateko asmoz albiste faltsuak zabaltzeko ohitura hori antzinatik datorrigu, baina albisteon hedapena garai historiko bakoitzean eskuragarri dauden hedabideen arabera denez, masa-hedabideak agertu aurreko denboretan albisteok ez ziren hainbeste eta hain azkar zabaltzen. Informazio- eta komunikazio-teknologiaren garapenak albiste faltsuak ikaragarri zabaltzeko ahal izatea ekarri zuen eta albiste horiek helburu politikoetarako erabiltzea mundu-mailako kezka bihurtu zen, ondorioz.

Elkarrizketatu dugun kazetari batek dioenez, «urez (informazioz) inguratuta gaude, baina ur hori ez da edateko ona. Kalitatezko kazetaritza zorrotzaren gabezia handia daukagu».

Hainbestera, berdin baitio zabaltzen dena egia edo gezurra den. Datuekin eztabaidatu behar dugu, eta horrek esfortzua eskatzen du.

Mezu jakin batzuk eraikitzeke garaian, ederki jokatzen dute etsai komunaren ideiarekin.

41 Iturria: Wikipedia.

Gaur egungo gizarteak lortu duen globalizazio teknologikoari esker, edonork dauka, edonon dagoela ere, komunikazio-sare batera konektatzea eta era guztietako informazioak eskuratzea. Baina bazter askotan (ez soilik Europan) populismoak eta eskuin muturra gorantz doazen testuinguruan, sare sozialek mezuak aske zabaltzeko aukera ematen dute, inolako iragazkirik edo egiaztapenik gabe. Zenbait elkarrizketaturen esanetan, «giza eskubideetan atzera egiten ari gara, iritzi-askatasunak esparru hori bera gainditzen duen neurrian». Ildo horretatik, «sareetan zabaltzen denari erreparatu behar diogu, eta aztertu, *fake news* direlakoei aurre egin ahal izateko. Herritarrek hezi egin behar ditugu, jakin dezaten zerbait Interneten argitaratuta egoteak ez duela esan nahi egia denik».

*Fake news*-en aurkako borroka konplexua da, den-denak ez baitira faltsuak. Non amaitzen da adierazpen-askatasuna? Adierazpen-askatasunak ezin du dena besarkatu. Ezin dugu gure adierazpen-askatasuna erabili beste giza eskubide batzuk urratzen baditugu.

Horrek guztiak badu bere alde ona ere, gizartean legitimatuta dauden eragileek (GGKE-ek eta Nazio Batuen agentziek, esaterako) sare sozialen erabilera egokia egin baitezakete, herritarrek datuekin eta estatistikekin hez-teko. Gizarte-sektorearen alorreko elkarrizketatu batek, ordea, auzi hau mahaigaineratu zuen:

Datuekin geratzen gara, baina zenbakiak ez dira iristen, ez dira aintzat hartzen, eta jendea ez da kontzientziatzen. Datu txar batek, gezurrezkoa izan arren, estereotipoa indartzen badu, askoz inpaktu handiagoa sortuko du, hura deseraikitzen saiatzeko erabil ditzakegun mila datu egiazkok baino.

Elkarrizketatu batek dioen moduan, «gero eta konektatuago gauden arren, munduko beste bazter batzuetako errealitateetatik gero eta deskonektatuago egoteko paradoxa bizi dugu».

#### **d) Politika publikoak, estrategiak eta jardunbide egokiak**

Especialistei egindako elkarrizketen azken atal honetan, politika publikoek errefuxiatuei buruzko estereotipo eta aurreiritziak nola lantzen dituzten ikusi nahi izan dugu. Hala esparru publikotik nola ekimen pribatutik aurreiritzi horiek ezabatzeko estrategiarik eta praktikarik garatzen ote den argitu nahi izan dugu, halaber.

Esparru publikoak migrazio-politikak lantzeko daukan modua funtsezko auzia dugu hemen, bildutako lekukotzen arabera.

Migrazio-mugimendua segurtasun-arazo gisa ari dira jorratzen, segurtasun-gabeziaren eragile eta ondorio gisa, hain zuzen ere.

Migrazio-fenomenoaren erregulazioari lotutako alarma sozialak, aurreiritziak areagotzeaz gain, zenbait sektore politikok bultzatutako eskubide-murrizketa legitimatzen du.

Gorago esan dugun bezala, asiloari eta errefuxiatuak hartzeari dagozkion politikak estatuaren esku badaude ere, euskal instituzio publikoak (autonomia-erkidegoak, aldundiek eta udalek) EAeko asilo-eskatzaileak integrazteko politika aktiboak bultzatzen ari dira. Arloko espezialistek salatzen dutenez, euskal instituzio publikoek bultzatutako **integrazio-politikak ikuspegi produktibista du oinarrian**.

Euskal gizarteak asilo eske datozenei eskain diezaiekeenak lotura estua dauka pertsona horiek euskal gizarteari eskain diezaiketenaekin.

Nola integratuko dira, bada, beren oinarritzko beharrak asetzeko adina ematen dien lanik ez badute?

Kotizatzen hasten direnean, jendeak begi onez ikusten ditu, eraiki dugun gizartearen ikuspegi merkantilizatzailearen ondorioz.

Illo horretan, **funtzionalitate sozialera bideratutako elkartasuna** aipatzen da: integrazioa ez dute legitimatzen giza eskubideek, justiziak eta halako balio unibertsaletan, eredu ekonomiko jakin batera eta tokiko edo eskualdeko egitura produktibora egokitze ahalmenak baizik. Elkarrizketatu batek honela zioen:

Eusko Jaurlaritzaren barruan gizarte-gaien alorrean aurrerapauso gehien ematen ari diren sailak, hain zuzen, funtzionaltasun soziala lantzen dutenak dira. Adierazgarria, benetan.

[Errefuxiatuak] ez dira gizartearen parte, elementu pasibo gisa ikusten ditugu. Funtzio sozialaren esparruko pertzepzioa aldatu beharra dago: zer eskaintzen digute gizarte gisa?

Kritikak jasotzen dituen beste politika publiko bat **hezkuntza-politika** dugu. Elkarrizketatutako zenbait pertsonak kezka agertu dute EAEko hezkuntza-ereduaren inguruan, **integrazioa lortzeko eta kulturarteko gizarte eraikitze**ko xedeetan dituen gabeziengatik.

Zenbait elkarrizketatutako ikastola publiko zein pribatuen ereduaren balorazio negatiboa egin dute eta salatu dute ikastolek ez dutela populazio migratuak integratzeko politika aktiborik.

Ikastolen sistema ghetto elitista bihurtu da aspaldi. Elitismo faltsu bat dago, ikaskuntzaren itxurazko homogeneizazio kulturantz baten ondorioz, ezkutuko zerbait da, jendeak ez baitu arazo larritzat jotzen, baina hezkuntza-instituzioek ez dute beharrezko arreta jartzen aspaldi identifikatuta dagoen segregazioari.

Elkarrizketatu batek salatu duenez, ikastolen sisteman ez dago **desberdintasuna integratzeko eta kulturartekotasuna balioztatze**ko baliabiderik edo politikarik eta, ondorioz, etorkinek ez dute bertakoek adina arretarik jasotzen.

Kulturen arteko bizikidetzak bultzatzeko hezkuntzak daukan ahalmen eraldatzailea ukalezina da eta hortik dator alarma. Kulturartekotasuna lortzeko ezinbestekoa delako haurrak txikitatik elkarrekin bizitzea, arbuio-pertzepzioak saihesteko; ikasgelatik berdintzea, alegia.

Arrazakeriaren aurkako praktika hezitzaile aktiboak aplikatzeko espazioa ere bada ikasgela:

Adin gazteenak aprobetxatu behar ditugu islamofobia desagerrarazteko; haurrak ez daude mezu islamofoboekin kutsatuta eta haien gauza normala da beraiek bezalakoak ez direnekin bizitzea.

Elkarrizketetan egin genuen beste galdera bat hauxe izan zen: gatazkarik ba ote dagoen, batetik, **euskal identitatea** identitate gutxitu gisa berrestean eta, bestetik, beste populazio batzuen (tartean Ekialde Ertaineko) integrazioaren eta kulturartekotasunaren aldeko politika aktiboago bat bultzatzearen artean. Horren harira, elkarrizketatu batek zera erantzun zuen:

Euskal eskola publikoan aniztasuna dago, baina ikastoletan ez. Ikasgelak berebiziko garrantzia dauka integrazioa eta inklusioa sustatzeko eta aniztasunean bizitzen ikasteko.

Jardunbide egokiei dagokienez, Ongi Etorri Eskolara<sup>42</sup> programa aipa dezakegu: etorkinei zuzendutako ekimen horren bidez, lagundu egiten zaie harrera-komunitatean ondo integratzen.

Zeharo desberdina den beste eremu batera jauzi eginez, errefuxiatuekin lanean diharduten agentzia eta erakunde sozialekin egindako elkarrizketetatik ekarpen interesgarriak atera ditugu, hala nola **emakumezko errefuxia-**

42 Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus <https://www.ongietorrieskolara.org>.



**tuak ahalduentzeko jardunbide egokiak**, emakumezko errefuxiatuen kolektiboa ikusarazteko estrategiak eta dauzkaten eskubideen eta jasaten duten berdintasun-eza espezifikoa erakusteko lana, garapenerako generoaren ikuspegitik.

Elkarrizketa-prozesuan parte hartu duten erakunde batzuek gurekin partekatutako zenbait estrategia eta gogoetaren bidez, emakumeak ihes- eta asilo-prozesuen biktima pasibotzat aurkezten dituen irudi estereotipatuari aurre egitea lortzen ari dira. Elkarrizketatu batek emakume biktima/bizirauleekin egindako lan arrakastatsuen adibide bat eskaini zigun:

Emakumeak biktima gisa ez, baizik eta biziraule gisa posizionatzearen aldekoak gara gu, baita indarkeriarekin zerikusia duten gaietan ere. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren (GEH) helburua jendearengan haserrea piztea da, ez errukia. Arreta ez jartzea biktimizazioan, biziraupenean baizik, eta zorientasuna lortzean testuinguru guztiz zail batean.

Elkarrizketatu berak oso kontzeptu interesgarria aipatu zuen: **agentzia**.

Hizpide ditugun emakumeei agentziarik ez kentzea da gure helburua, indarkeriaz ari bagara ere. Jendeak bere bizitzaren gainean erabakitze gaitasuna bultzatzen dugu, eta bizitza horiek bizitzeko ekintzak garatzea. Beren erabakien subjektu diren emakumeen ondoan egoten gara eta laguntza ematen diegu, kalteberatasun handiko testuinguruetan. Emakume horiek indarkeriaz eta oztopoz betetako bidaiak egiten dituzte eta, beraz, boteretsu gisa posizionatu nahi ditugu.<sup>43</sup>

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako (GEH) espazioen dinamizatzaileek euskal esparruan garatzen diren sentibilizazio-prozesu eta -proiektuetan **emakumeek** jokatzeko duten rolarik buruzko gogoeta kritikoa partekatu zuten egin genizkien elkarrizketetan. Haietako batzuek zioten oso garrantzitsua zela emakumei entzutea, beren bizi-esperientziak zuzenean azaldu ahal izan zitzaten, baina aldi berean **ezagutzaren esparrutik ere jarduteko** aukera eman behar zitzaizela, bizipenaren esparrutik hitz egitea mugatu gabe:

Guk ez dugu rolen banaketa sinplista bat egin nahi, gu (jende argia) garelarik fenomenoaz hitz egiten dutenak eta haiek esperientziatik (bestelako ekarpenik egiteko gai izango ez balira bezala).

Palestinako biztanleekin lan egiten duen GGKE bateko beste elkarrizketatu batek zera zioen:

Oso interesgarria da Palestinari buruzko ikuspegi femeninoa, emakumeak genero-zapalkuntzaren azpian menderatuta egon baitira historikoki, eta, beraz, ikuspegi eta kontakizun osoagoa daukate. Egia da generoa lantzea zaila dela, arreta gatazkan jartzen duzunez «lurrundu» egiten baita zure genero-lehentasuna.

Zentzu berean, begirada feministak errealitatearen irakurketa konplexuagoak eskaintzen dituela aipatu dute eta nola, horrek, emakumeen ahotsaren bidez, **berdintasunik ez dagoen beste egoera batzuetan sakontzeko** aukera ematen duen, **begirada interseksional** batetik:

Oso emakume interesgarriak ekarri izan ditugu, «okupazioak patriarkatua eta kapitalismoa areagotzen ditu[ela]» azaltzen eta interseksionalitatearen premia aipatzen zutenak.

Gizarte-erakundeek ere **metodologia berritzaileak** behar direla aipatzen dute, estereotipoak eta aurreiritziak harreman zuzenetik eta emozioetatik lantzeko:

43 Jendeak bere bizitzari buruz erabakitze eta erabaki horiek aurrera eramateko gaitasuna.

Emozioetatik eta bizipenetatik lan egiteko konpromisoa daukagu. Enpatiak asko mobilizatzen du eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza bi ertz horietatik landu behar dugu. «Bidean jasandako indarkeria» (emakumezko etorkinek herrialde batetik besterako bidean jasandako eskubide-urraketa) aztergai daukan ikerketa batek ez dauka bere sufrimenduaren lekukotza ematen duen emakume bati entzuteak adinako eraginik.

Eskubideen defentsarako erakunde batean dabilen beste pertsona batek gauza bera esaten zuen:

Pertsonalizatu beharra dago, kopuruak edo datuak aipatu beharrez pertsona zehatzei buruz hitz egin behar dugu, entzuten gaituztenek pertsona haiekin konektatu dezaten eta ikusi egin ditzaten, gu bezalakoeak direla konturatzeko. Beren herritik ihes egitera behartuta dauden pertsonen errealtatea ukitu, ikusi, sentitu ahal izatea litzateke egokiena, dena atzean utzita ihes egiten badute, beren bizitza salbatzeko egiten dutela ulertarazteko.

Beste kulturei buruzko aurreiritzi eta estereotipoen arazo bat hauxe da: galarazi egiten dutela bizikidetzeta eta beste kolektibo batzuetako pertsonak gure etsaiak balira bezala edo gu baino gutxiago balira bezala ikusten dituela jendeak. Ildo horretatik:

Estereotipoak desegiten dituzten datu eta informazioetan oinarritutako tresna erabilgarriak eraiki behar ditugu. Horixe litzateke estrategia egokia.

Baina, gainera, arlo horretan lan egiten duten zenbait elkarrizketatuk argi daukaten beste gauza bat da, mito faltsuak desegiten dituzten diskurtso arrazionalak sortzeaz gain, alderdi emozionala ukitu beharra dagoela, halaber, estereotipoak desegin ahal izateko:

Zurrumurrak deuseztatzeko jarrerak landu beharra dago, estereotipoek populazioan sortzen duten joera arrazista neutralizatzearen.

Gizarte batek beste batekin enpatia garatuko badu, biek partekatzen dutenari erreparatu beharko zaio. Eta horretarako, errealtate honetatik abiatu behar dugu:

...zurekin zenbat eta antz handiagoa, orduan eta errazagoa da bestearekin identifikatzea eta enpatia sentitzea. Horregatik gara irekiagoak Siriako errefuxiatuekin Sahara azpikoekin baino.

Hori dela eta, gaia jorratzen duten zenbait erakunderen apustua bi errealtateak harremanetan jartzea izan da, **enpatia garatzea lan pedagogiko gisa**:

Enpatia soziala sortzea, errefuxiatuen onarpena indartzen laguntzeko.

Alde horretatik, elkarrizketatuta asko bat *datoz **Zurrumurruen Aurkako Estrategia***<sup>44</sup> delakoaren arrakasta azpimarratzeko garaian. Landa-lanerako elkarrizketatu genituen sare horretako zenbait parte-hartzailek adierazitakoaren arabera, formula horren arrakasta bi alderdi uztartu izanari zor zaio: etorkinei eta asilo-eskatzzaileei buruzko egiak eta mito faltsuak zabaltzen dituzten diskurtsoak desegiteko ekintzei, batetik, eta emozioen lanketari, bestetik, estereotipoek gizartean pizten dituzten jarrera arrazistak neutralizatzeako helburuz.

44 Informazio gehiago eskuratzeko, ikus <http://zurrumurrurikez.eus>.

### 5.3. ANALISI Kuantitatiboa eztabaida-taldeetatik abiatuta

Aurreko faseetatik ateratako ondorioak bereziki aukeratutako jende-talde batekin alderatzeko hiru lurralde historikoetan antolatutako tailer fokalen emaitzak aurkeztuko ditugu azken atal honetan.

Landa-lanean egindako tailerretan zehar aholkularitza-taldeak sistematizatutako ondorioak dira hemen jaso ditugunak, behar bezala antolatuta, irakurketa eta analisia erraztearren.

#### a) Errefuxiatuekiko, oro har, eta bereziki Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuekiko pertzepzioak

Talde fokaletako parte-hartzaile gehien-gehienek **ez dute errefuxiatu terminoaren definizioa ezagutzen, ez dakite zertan bereizten diren errefuxiatuak eta migratzaileak, edo zein diren asilo kondizioa eskuratzeko baldintza zehatzak**. Jende gehienak onartzen du ez dakiela nazioarteko edo Estatuko legeriak errefuxiatuei ematen dizkien eskubideak zein diren, ezta estatus hori eskuratzeko bete beharreko baldintzak ere. Bai militantziazatik, bai lanagatik gaiarekin lotura zeukatenak ere ez ziren gai alderdi horiek ondo zehazteko.

Gauza interesgarri batekin egin genuen topo: tailerretako parte-hartzaileek ez dute errefuxiatuaren figura arabiarr itxurako pertsonekin lotzen. Tailerren ondorioen arabera, errefuxiatuen profila Saharaz azpiko Afrikatik datozen etorkinekin lotzen da, Siriako krisiaren ondoren alderdi hori zertxobait aldatu bada ere. **Asilo-eskatzaileak etorkin ekonomikoekin nahastu ohi dira**, eta burura datozenak afrikarrak izaten dira, ez beste leku batzuetakoak (Ekialde Ertainekoak adibidez).

Elkarrizketatuen lekukotzekin gertatzen den bezala, talde fokaletan ere ikusi da **errefuxiatuak gizonak direla imajinario sozialean**. Tailerretan egindako ariketak gorabehera, munduko (eta EAEko) errefuxiatu gehienak gizonak direla pentsatzen jarraitzen dute parte-hartzaileek. Gaiarekin zerikusia daukaten pertsonak berak ere harritu egiten dira munduko errefuxiatuen ia erdia emakumeak direla jakitean.

Era berean, errefuxiatu eta asilo-eskatzaileen estereotipoaren edo gehiengoaren pertzepzioaren arabera, estatus ekonomiko apaleko eta baliabiderik gabeko pertsonak dira. Hala parte-hartzaileak nola elkarrizketatuak bat datoz errefuxiatuei buruzko irudian: baliabiderik gabeko pertsonak dira, herrialde batetik bestera edo beren herrialde barruan batetik bestera doazenak, arrazoi desberdinak tarteko (ez soilik ekonomikoak), eta ez daukate baliabiderik beren ibilbidean. Imajinario hori errefuxiatuei egotzen zaien kalteberatasunarekin lotu ohi da, eta horrek «**bizirauteko**» **potentziala ezeztatu eta «biktimizatu» egiten ditu**.

Errefuxiatuen jaioterriari dagokionez, parte-hartzaileek ere ez dakite zein diren munduan **migrazio-fluxurik gehien sortzen** (ez munduari ez EAERI dagokienez) **eta jasotzen duten herrialdeak**. Estereotipoaren arabera, Saharaz azpiko eta Magrebeko biztanleak dira gehienak, datuek besterik badiote ere: errefuxiatu gehienak Latinoamerikatik eta Asiatik datoz gaur egun.

Proposatutako dinamika eta ariketen bidez ikusi dugunez, tailerretako parte-hartzaileek ez dute Ekialde Ertaineko errealtatea edo testuingurua ezagutzen. Parte-hartzaileek onartzen dute **ez dutela hango errealtatea edo testuingurua ezagutzen, eta ez dakite Ekialde Ertaina mapan kokatzen ere**. Bai lanagatik, bai militantziazatik gaiarekin zerikusia daukatenek ere onartzen dute ez dakitela eskualdea zehazki zedarrizten eta ez dira gai hura osatzen duten herrialdeak zehazteko.

Palestinari dagokionez, tailerretako parte-hartzaileek **gerrarekin eta gatatzarekin** lotzen dute hango errealtatea. Sinpatia politiko eta emozionala dute palestinar herriarekin, herri zanpatua den aldetik, baina ez dute hango errealtate kultural, politiko edo soziala ezagutzen, eta gerraren eta gatatzaren oinazearekin lotzen dute zuzenean eta soil-soilik. Ez dago ikuspegi positiborik, sufritzen duen biktimarena soilik. Alderdi kuantitatiboan ere gauza bera ikusten dugu: kontsultatu dugun jendeak gerrarekin identifikatzen du Ekialde Ertaineko eskualdea, eta Palestina bereziki.

**EAEn errefuxiatu asko bizi direla** uste du jendeak. Parte-hartzaile guztiak bat datoz atzeritarren kopuruak gora egin duela esateko garaian, baina adinekoak dira alarma soziala gehien sentitzen dutenak eta igoera horrek gehien kezkatzen dituenak. Gazteek ez dute hainbesteko igoerarik ikusten edo ez dute sumatzen aldaketaren inpakturik. Gainera, migrazio-fluxuen igoera naturaltasunez onartzeko elementu subjektibo bat ere badago, parte-hartzaile gazteak etorkinak izan baitira inoiz beste herrialderen batean. Diotenez, esperientzia horri jarraiki

naturala iruditzen zaie, globalizazioaren ondorioz, jendea gaur egun «gehiago mugitzea», analisi kuantitatiboan argi gelditu den moduan.

### **b) Errefuxiatuekiko, oro har, eta bereziki Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuekiko estereotipo eta jarrerak**

Tailerretako parte-hartzaileek aditzera eman dutenez, gizarteak estereotipo eta aurreiritzi batzuk dauzka arabiar populazioari buruz, eta Ekialde Ertainetik datozen errefuxiatuak populazio horrekin identifikatzen dituzte, oro har. **Arabiar gizonei buruzko imajinarioak** emozio negatiboak hedatzen ditu: gaitzespena, beldurra, distantzia emozionala, oldarkortasuna. Arabiar emakumeen kasuan, emakume otzanak eta musulmanak direla pentsatu ohi da, eta senarraren edo aitaren nahiaren mende bizi direla, edo gizonetzko autoritatearen baten mende. Gora-goz aztertu dugun bezala, gaian espezializatutako pertsonekin egindako elkarrizketetan ere antzeko gogoetak entzun ditugu.

Azken estereotipo horri dagokionez, tailerrean azaldu zutenez, emakumeek oro har, eta militante feministek bereziki, jarrera kritikoa dute estereotipo horrekin. Tailerretan parte hartu duten emakume feministek jarrera ideologikoagoak eta **jokamolde askoz irekiagoak dauzkate, eta askoz estereotipo gutxiago**, arabiar emakume musulmanen inguruan. Matxismoak gure gizarteetan daukan presentziaren autokritikatik abiatuta, arabiar gizarteetako borroka feministaren adibide positiboak aurkezten dituzte.

Tailerretako parte-hartzaileek ez dute lotura emozionalik sentitzen arabiar gizonen figurarekin, ez daukate haien erreferente positiborik beren imajinarioetan, guztiz negatiboak baizik, eta **emozio negatiboekin** lotzen dituzte. Arabiar emakumeen kasuan, askatasun indibidualik gabeko eta patriarkatuaren mendeko pertsona gisa ikusten dituzte. Arabiar emakume ahaldunduen adibideak ez dira halakotzat identifikatzen eta era askotako jatorriak egozten zaizkie, sekula ez emakume arabiarrena, beren imajinarioan ez baita halakorik sartzen. Emakumeak beren familien (umeen eta zaharren) arduradun gisa ikusten dira, gizonak ez bezala. Parte-hartzaileei ez zaie burutik pasatzen igarotze-prozesuetan dauden arabiar gizonak beren seme-alabez edo zaharrez arduratu daitezkeenik. Familiako ardurak arrotzak balitzaizkie bezala ikusten dira gizon horiek. Arabiar emakumeak pertsona otzanak eta etxearen eta familiaren arduradun bakarrak bezala ikustearekin dauka zerikusia estereotipo horrek.

Errefuxiatuen errealtatearen aurrean jendeak dauzkan erreakzioak, hala positiboak nola negatiboak, alderdi emozionalari lotuta daude. Ildo horretatik, are asilo-eskatzaileak hartzeko jarrera irekiagoa daukaten pertsonen kasuan ere, ez da argudio politikorik edo eskubideetan oinarritutako arrazoibiderik erabiltzen. Talde fokaletan errefuxiatuak baldintzarik gabe hartzearen aldeko jarrera erakutsi duten pertsonen arrazoi emozionalengatik egiten dute, elkartasun edo humanismoagatik, baina eskubideak eta betebeharrak aintzakotzat hartu gabe.

Etorkinen jaioterriko testuinguruari dagokionez, Ekialde Ertaina **oso eskualde islamizatu** dela uste du jendeak, eta erlijio musulmana, erradikala, muturrekoa eta katolikoaren oso desberdina. Tailerretako parte-hartzaileek adierazitakoaren arabera, jendeak oso ikuspegi estereotipatua eta **guztiz negatiboa** dauka erlijio musulmanari buruz. Muturreko jarrera hauek lotzen dira erlijio horrekin: **matxismoa**, emakumeen menderakuntza, arrazionaltasunik eza, estremismoa, kultur ohituren inposaketa, eta erradikaltasunarekin zerikusia duten inolako ñabardurarik gabeko adierazpide gehiago.

Bere burua **abertzaleztat** daukatenean, baina, beste ertz batetik heltzen diote gaiari. Sentimendu abertzaleak dauzkan jendearen iritziz, EAEn bizi diren errefuxiatuek euskal identitatearen ezaugarriak onartu eta bereganatu behar dituzte. Profil guztietako pertsonen (gazte, zahar, emakume, gizon, alor sozialeko langile nahiz bestek) adierazi zuten jarrera hori tailerretan.

